



# Hain gutun luzea

Mariama Bâ

Itzulpena: Iokin Otaegi



# **Hain gutun luzea**

Mariama Bâ

Izenburua: Hain gutun luzea.

Jatorrizko bertsoia: *Une si longue lettre (1979, Le serpente à plumes)*.

Lehen edizioa: 2015eko martxoa.



edizio honena **edol**



itzulpenarena Iokin Otaegi.



hitzostearena Josune Muñoz.



azaleko irudiarena María de Bernardo.

Zuzentzaileak: Karmele Etxabe eta Amaia Apalauza.

argitaletxea **edol**

argitaletxeaedo@gmail.com

www.argitaletxeaedo.org

Diseinua: **edol**

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak. 20140 Andoain.

ISBN: 978-84-940489-9-9

Lege gordailua: SS-217-2015

# Aurkibidea

## **Mariama Bâ**

*Hain gutun luzea*.....7

## Hitzostea

### **Josune Muñoz**

*Mariama, jaso ditinagu hire hitzak*.....151

## Biografiak

*Mariama Bâ*..... 175

*Iokin Otaegi*..... 176

*Josune Muñoz*..... 177



# Hain gutun luzea

Mariama Bâ

Itzulpena:  
Iokin Otaegi



**Literola**





## 1

Aissatou:

Jaso dinat hire hitza. Erantzun ahal izateko, nahasme-  
nean eusgarri, koaderno berria ireki dinat, konfiden-  
tziak mina goxatzen duela erakutsi baitit gure arteko  
harreman luzeak.

Hire existentzia ez dun kasualitatea gertatu nire bizi-  
tzan. Hire amamaren eta nirearen arteko etxebizitzak  
harresi batez zeudenan bereziak. Osaba-izebak zaintze-  
ko lehian bizi izan zitunan bion amak. Guk biok, berriz,  
Koranaren eskolara zeraman bide harritsu berberean  
gastatu ditinagu oihal eta oinetako. Eta zulo berberean  
ezkutatu gure esne-hortzak, sagu maitagarriari berriak  
ekartzeko eskatzen geniola.

Urteen eta gertakarien joanean ametsak ahaztu egiten  
badira ere, garbi gordetzen ditinat orduko oroitzapenak,  
nire memoriaren gatza baitira.

Hire izena burura etorri orduko, joana berpiztu egi-  
ten dun niregan emozioen segizioarekin. Begiak itxi, eta  
hara hor sentazioen jarioa etenik gabeko joan-etorrian:  
egur-sua, berotasuna eta lilura; gure ahozuriko gozame-  
na mangoari eta piper minari txandaka hozka egitean.  
Begiak itxi, eta bazoazan eta bazatozan irudiak: hire  
amaren aurpegia, izerdi tantaz izartua sukaldetik irteten  
zenean. Bazatorren iturritik urketara joanak ziren nes-  
katxen berbotsa.

Bide berberak eramán gaitin oraina emankor bihurtu  
duen nerabazarotik heldutasunera.

Ai, enetxo, enetxo, enetxo! Hiru aldiz egiten dinat dei<sup>1</sup>.  
Atzo dibortziatu hintzen. Gaur alarguna naun!

Nola esan? Modou hil dun. Ezin destinoarekin hitzordurik erabaki. Nahi duenean nahi duenari heltzen zion halabeharrak. Desioen bidetik ekartzen din osotasuna. Baina oreka galarazi eta jo ere bai, gehienetan. Sufritu beharra dun orduan. Telefono dei bat, eta hara nire bizitza azpikoz gain.

Taxi! Taxi! Azkar! Azkarrago, mesedez! Nire aho-lehorra! Bola geldi mingarria bularrean! Azkar ba! Ospitalera! Zornearen eta eterraren usain nahasiak. Aurpegi suminduak. Ezagunen talde bat negarrari emana. Ezbehar bel-durgarriaren gogoz kontrako lekukoak.

Amaitzen ez den pasillo luze bat. Gero eta luzeagoa. Eta, han, gela bat. Gelan, ohea. Ohean, Modou. Oihal zurian bilduta zerraldo. Bizidunen mundutik bakartua. Bazatorren dardaraz esku bat; desestaltzen din gorputza poliki-poliki. Alkandora urdinaren anabasan, bularra, betikotasun lasaian, iletsua. Aurpegi hori, ezusteko minan higatua, bere-berea din, bai. Eta kopeta soildu hori, guztiz berea. Eta aho erdi ireki hori. Beraren eskua estutu nahi dinat. Baina atzera botatzen naiten. Haren adiskide Mawdo entzuten dinat azalpenak eman nahian: bihotzeko ezbeharrak bat-batean jo duela gutun bat diktatzen ari zela. Eta burura zatorkidan: «Hil eta gero, sendagile». Bihotz masajearen keinua egiten zidan, eta alferrikako ahoz ahokoarena. Eta, nire buruan, oihartzunak: bihotzekoa, masajea, ahoz ahokoa. Jainkoaren nahiaren aurkako arma barregarriak.

Atmosfera berria sortzen duten hitzak entzuten ditinat inguruan, eta bertan murgiltzen naun, arrotz eta

---

1 Hiru aldiz errepikatzeak aipatzera doan gaiaren larritasuna adierazten du. (Oharrek egilearenak dira, besterik adierazi ez denean.)

gurutzean josia. Heriotza, kontrajarritako bi munduren arteko pasabide meharra: zalapartatsua bata, higitua bestea.

Non etzango naiz? Itxura oneko adinak baditin duintasun exijentziak. Arrosarioari heltzen natzaion. Zutik irauten dudan bitartean, arduraz aletzen dinat belaun dardartien gainean. Haurgintzaren kadentzian astintzen naiten giltzurrunek.

Atentzio eske zabiltzan nire buruan, ustekabeen, bizitzako puskak, Koranaren txatal handiosak eta kontsolamenduzko hitz nobleak.

Jaiotza, mirari alaia; heriotza, mirari beldurgarria. Bien artean, bizitza, destinoa. Hala zionan Mawdo Bâk.

Adi begiratzen zionat Mawdori. Haren blusa zuria ohi baino handiagoa iruditzen zaidan. Argala ikusten dinat. Haren begi gorrituak berrogei urteko adiskidetasunaren lekuko ditun. Edertasun bikaineko eskuak erreparatzen ditinat, finak, gaitza sumatzeko esku zalu. Hor zauden, biluzi; ez adiskidetasunak ez jakituriaren zorrotzak ez diton laguna salbatu.



## 2

Beraz, Aissatou, Modou Fall hil egin dun.

Hala aitortzen din gizon eta emakumeen etengabeko joan-etorriak, «jakin dutenez» esaka. Eta inguratzen nauten alarau eta negarrek. Gehiegizko urduritasun giro honek mingarriago bihurtzen din nire sufrikarioa, bihar lur eman arte iraungo baitu.

Irratiak berria zabaldu duenez, alde guztietatik zatoren jende uholdea!

Andrazkoak eta gertuko ahaideak zabiltzan arduran lanpetuta: intsentsua, kolonia, kotoia... Hil ondoko garbiketarako behar direnak ospitalera eramateko. Eta musulman bat ehorzteko zilegi den jantzi bakarra: zazpi metroko perkal zuria. Dena kontu handiz saski berri batean tolestatuta. Eta Islamaren Lur santutik ekarrita etxe guztietan pietate handiz gorde ohi den *zem-zem* mirarizko ura ere bai. Gehi Modouren gainean zabaltzeko oihal ilun ederra.

Hankak luze, burua oihal beltzez estalita, bizkarra kuxinetan galdua jarraitzen dinat jendearen joan-etorria. Aurrian dinat une honetarako propio erositako galbahea; berak jasotzen ditin lehen erremusinak. Alboan dudan emaztekideak asaldatzen nain. Ohiturari men eginez nire etxera ekarri baitute hiletetan parte har dezan. Haren sekretuen gainean ireki eta itxi zabiltzan beraren begi handi ederrak. Masailetak txuloak berriz, gero eta txuloago, eta begi-zuloak begi-zuloago. Damu dun agian.

Dena den, dela axolagabekeria garaian, dela maitasun garaian, tristezia murgil dun beti ume hau.

Gizonezkoek, bitartean, kamioneta, motozikleta eta bolido, auto ofizial eta partikularrak nahas-mahas, bere azken egoitzara zaramaten Modou ilara luzean (denbora askoan hitz egingo dun hilikutxaren atzetik ibili zen jendetzaz). Gure ezkonahizpek buruko zapiak kentzen zizkiguten. Ehun bat hedatu dituen emaztekidearen eta bion buruen gainean, oihal-denda bat osatuz. Bitartean, inguruan dauden emakumeak, ohituretan ikasiak, txanponak botatzen dituzten balantzaka dabilen oihal-teilatuen gainera, suerte txarra aienatzeko.

Hau dun unerik beldurgarriena Senegalgo emazteki guztientzat: denbora labur honetarako sakrifikatzen ditin ondasun guztiak ezkon familiaren oparitan. Are okerrago, beren pertsonalitatetik eta duintasunetik eten egiten dun, eta senarraren zerbitzuko gauza bilakatzen; haren aitonaren, amonaren, aitaren, amaren, anaiaren, arrebaren, osabaren, izebaren, lehengusuen, lehengusinen, adiskideen zerbitzuko objektu. Baldintzatua geratuko dun haren jarduera: ezkonahizpetatik inork ez baitu, zikoitz eta zeken, ezkontza nahasle edo abegi txarreko emazte baten burua ukituko.

Ondo merezia dugula irizten zioten, eta gure aldeko goraipamen korua saiatzen dun deiadarka. Erakutsi dugun pazientziak, gure bihotz zabaltasunak, gure oparien ugaritasunak zuribidea eta saria aurkitzen din egun honetan, oztopo guztien gainetik. Ezkonahizpek berdintasun osoz tratatzen dituzten ezkondata hogeita hamar urte eman dituen eta bost baino ez daramatzana. Haserre bizian hartzen dinat Modouren amaginarreba berria pozez zorutzen duen berdinkeria grina hau.

Gizonek, hilerritik itzultzean, etxeko sarreran dagoen ontziko uretan eskuak garbitu ondoren, bi alargunon

inguruan bildutako familiaren aurrean desfilatzen diten. Doluminak aurkezten zizkiguten, eta desagertuari dagozkion handiespenak goraiatzten:

—Oi, Modou, gazte eta zaharron adiskide...

—Modou, lehoi-bihotz, zapalduaren ararteko...

—Modou, eroso beti, dela trajez, dela txilabaz...

—Modou, anaia ona, senar zintzoa, musulman leiala...

—Jainkoa, erruki zakizkio...

—Zeruko zorionaren aurrean damu dakiola Lurreko egonaldia...

—Lurra bekio amultsu!

Hor zauden baloi borobilaren atzetik ostikoka eta tiragomaz txori harrapari ibilitako haur garaiko lagunak. Hor zauden ikaslagunak ere. Hor, sindikatu borroketako bazkideak.

Bihotz erdiragarri jarraitzen dinate, bata bestearen atzetik, *Siguil ndigalé-ek*<sup>2</sup>, esku trebeek ondo oratutako bizkotxo, bonboi eta kola-intxaurrak banatzen dituzten bitartean, zeruetako bidean joandakoari lehen eskaintza gisa.

---

2 Hobeia opatzeko dolumin formulak.





## 3

Hirugarren egunean ere, antzeko joan-etorriak: seni-tartekoak, adiskideak, txiroak, eskaleak, ezezagunak. Herrian hain ezaguna zenez, txutxu-mutxuka zabilen hildakoaren izena; jendetza jarri dun bidean. Abegi onez hartuak ditun denak, ostua edo izorratua izan daitekeen guztitik hustutako nire etxean. Mota guztietako zerri eta alfonbrak nonahi zauden bilduak. Gorabehera honetarako alokatutako burdinazko aulkiak urdin distira dariela zauden eguzkitan.

Bitartean, bizigarri igotzen zaidan Koranaren irakurketa: Jainko hitzak, zeruko oharrak, zigor edo zorion agindu zirrargarriak, on egiteko aholkuak, txarkeriaren aurka argi ibiltzekoak, apaltasunaren eta sinesmenaren gorapenak. Malkoak masailetan behera, hotzikarak hartzen nain. Txatal bakoitzaren amaieran, nire ahots ahulduak herriaren “amen” suharrarekin bat egiten din.

Kalabazetan epeltzen ari den *laax*-aren<sup>3</sup> usaina pizgarri barreiatzen dun airean. Bazatozan etxean bertan edo inguruko etxeetan egositako arroz gorri eta zurizko palankanak. Fruituen zukua, ura eta esne gatzatua izotz puntuan fresko banatzen ditun plastikozko edalontzietan. Gizonen taldea jaten ari dun, isilik. Beren buruan bueltaka dituen agian une bat lehenago sendo lotua,

---

3 Senegalgo jakia, artatxiki-irinaz edo arrozaz egindako oreka oinarri duena, eta esne gatzituaz edo kakahuete-kremaz zein baobab-fruituen nahasturaz lagunduta jan ohi dena.

zuloan behera jaitsia eta bertan arduraz itxia zen gorpu gogortua.

Emakumeen artean, berriz, hori zarata: hitz ozenak, deiadarrak eta barre algarak. Zalapartan besarkatzen ditene elkar aspaldian ikusi gabeko adiskideek. Merkantuan ikusi berri duten oihalaz ziharduten batzuek. Berek ehundutako jantziaren nondik norakoaz ari ditun besteak. Azken esamesak barreiatzen ditun. Eta, algaraka leher, begiak iraultzen dituzten albokoaren bubuak sortzen dien lilura goraiatzean. Eta henna hautsarekin irudi geometrikoak marraztuz, eskuak eta oinak belzteko era bitxi hori miresten ditene.

Noizean behin, gehiago ezinean, gizonezkoen ahots erregatuak bileraren zertarakoa ekartzen din gogora: ari-ma baten salbazio errituan gaudela, alegia. Baina abisua laster dun ahaztua, eta hor dun berriro, lehen baino ozenago, zalaparta.

Gau aldera zatorren, ordea, hirugarren eguneko momenturik nahasgarriena. Gero eta jende gehiago, hobeto ikusi eta hobeto entzun nahian, elkarri bultzaka. Kide-tasunaren, odol loturen, auzoen, asoziazioen arabera, taldeak osatzen ditun. Hiletan zenbateraino parte hartu duen erakutsi nahi din talde bakoitzak. Jenerotan eman ohi zunan garai batean laguntza: abereak, artatxikia, arroza, esnea, irina, olio, azukrea. Bankuko billetetan nabarmentzen dun gaur egun jendea, eta inork ez din auzoak baino gutxiago eman nahi izaten. Neurtu ezin den barne sentimena dirutan neurtu nahia. Benetan kez-kagarri! Hau ere bazatorkidan burura: hildako zenbaitek bizirik iraungo zinan senitarteko eta adiskideek errezeta salbagarrian edo ospitaleko egonaldietan xahutu balute dirua, hileta honetako jatorduetan xahutu ordez.

Diru sarrerak zehatz eta kontu handiz idazten ditun. Antzeko egoera batean berdindu beharreko zorrak

baitira. Modouren gurasoek koaderno bat ireki diten. Modouren dama amaginarrebak eta haren alabak agenda bat ekarri diten. Niri dagozkidan sarrerak blok batean idazten ditin Fatim nire ahizpa txikiak kontu handiz.

Hiri honetako familia nagusi batean sortua naun, ezaguna naun gizarteko maila guztietan, ikasleen gurasoekin harreman adeitsuak dituen irakaslea naun, Modouren emazte izan naun azken 30 urte hauetan, eta neuk hartzen ditinat gutun-azal gehienak. Nirekiko arretak hazi egiten nain bestearen begietan, eta dama amaginarrebari tokatzen zaion orain haserre egotea. Alabaren ezkontzarekin hiriko burgesian sartu berria, berak ere biltzen ditin billeteak. Alaba, ordea, mutu, izututa balego bezala, inguruan duen giroari arrotz.

Gure ezkonahizpen deiadarrek ateratzen diten Binetou zurruntasunetik. Bere burua astindu ondoren sartzen dun jokalekuan. Berrehun mila frankoko dirutza galanta eman diten gu “janzteko”<sup>4</sup>. *Thiakry*<sup>5</sup> gozoa eman zigutengan atzo gure egarriaren asegarri. Fall griota harro zagon, etenik gabe amagandik alabarengana pasatu delako betekizun hori: «Ehun mila franko aitaren aldekoek, ehun mila franko amaren aldekoek».

Banan-banan kontaktzen ditin billete urdinak eta arrosak, eta erakusten, honela amaitzeko: «Asko daukat zuetaz esateko, errege odoleko zaretan Fall, Damel Madiodioren bilobok. Zoritxarrez, zuetako bat ez dago hemen. Ez da alai egoteko eguna. Zuekin batera deitoratzen dut Modou, zaku bat arroz ematen baitzidan sarri. *Arroza-zaku* deitzen nion. Har itzazue, bada, eskaintzok, zuek, gizon zuzen baten alargunok».

---

4 Senarraren arrebei dagokie alargunaren dolu jantziak erostea.

5 Esne mindu gozoa artatxiki irinari nahastuta egindako edaria, baporetan egosia.

Modouren jatorriko lehengusu eta lehengusinen bilobei eskainitakoa bikoiztu egingo dun, eta, era berean, bere partea bikoiztera behartua zagon alargun bakoitza.

Horrela, hilobiratu berria den senarraren familiak zaraman nekez osatutako billete sorta, eta erabateko gabezia uzten gaitin horren beharra izango dugunok.

Urrutiko senitarte eta ezagutza zaharren segida zatoren orain: griotak, bitxigileak, bitxi-saltzaileak, laobe<sup>6</sup> kantariak. Bata bestearen ondorengo “ikusi arte” jasangaitzek asaldatzen gaitizten, ez baitira maitasunezkoak eta doakoak, kalitatearen arabera txanpona edo bankuko billetea eskatzen dutenak baizik.

Apurka-apurka hustu dun etxea. Bafada desatseginetan nahasten dun izerdiaren eta janariaren kiratsa. Tu eginez botatako kola arrasto gorriak nonahi: lan handiz zainduak ditudan baldosak, zikin. Koipez likits hormak, zimur-zimur egindako paperen dantza. Hori dun egun bateko balantzea!

Amona zahar baten irudia eskaintzen zidaten nire begi bizkortuek. Nor ote da? Nondik ote dator? Makurtuta, bere bubu hegalak bizkarraldera bilduta, plastikozko zorro batean husten ari dun arroz gorriaren soberakinak. Pasatu duen egun ederraren adierazgarri dun haren aurpegi distiratsua. Seinale bat eraman nahi zien Oukamen, Thiaroyen, Pikinen<sup>7</sup> edo auskalo non bizi diren etxekoei. Zutitu eta nire begirada gaitzeslearekin topo egin duenean, marmarrean hasi dun kolaz gorritutako hortzen artean: «Etxekoandre, bizitza izan den bezain ederra duzu heriotza», desenkusatu dun.




---

6 Aizkolari.

7 Dakarreko bazter auzoak

Zortzigarren eta berrogeigarren egunetan ere gauza bera gertatuko dun zoritxarrez, berandu “jakin dutenek” baliatuko baitituzte egun horiek. Soinaren garbiketa arinak nabarmenduko ditin gerri-ondoko txairotasuna, aldaiken borobila, bularretako berria edo kaleko saltzaileari erositakoa, txotxa ahoan, xal zuria edo loratua sorbalдан, intsentsuaren eta *gongoaren*<sup>8</sup> lurrin betegarria, algarra errazeko ahots irtena... Koranean, argi esaten zaigun, hala ere, hirugarren egunerako hanpatu eta ehorzlekua bete egiten duela hildakoak, eta lehertu egiten dela zortzigarren egunerako, eta desegin eta barreiatu, berrogeigarren egunerako. Hori esaten zaigun! Zer esan nahi ote dute, bada, instituzio bilakatuta Jainkoaren miseriakordia eskeko otoitzekin batera egiten diren jan-festa zalapartatsu hauek? Nor ote dabil hor etekin bila? Nor ote dago hor egarria ase nahian? Nor dago hor atsekabea erakusteko? Nor, hildakoa gogora ekartzeko?

Gaur arratsean, Binetou, nire emaztekidea, bazoan bere SICAPera<sup>9</sup>. Uf! Azkenean!

Gaixoak, alderraiak, berantiarrak eta alferrak bazatozan betebeharrak sakratua deritzotena betetzera. Dolumin bisitek bere horretan jarraitzen ditin, beraz. Bataio bat huts egin daiteken; dolu bat, inoiz ez. Txanponak eta billeteak saldoka zatozan eskearen galbahera.

Bakarrik bizi naun. Bainu garbitzaileak eta astelehen eta ostiral dolu egunetako jantzien aldaketak soilik eteten ditin monotonia.

Nire eginbeharrak zuzen beteko ditudala espero dinat. Erlijio eskakizunekin bat zatorren nire bihotza. Haurtzarotik erlijioaren iturri zorrotzetan janaritua bainaiz, ez

8 Usain gozoko hautsa, kitzikagarria.

9 Société Immobilière du Cap-Vert, alokatu eta saltzeko edo soilik alokatzeko txaletak eraikitzen dituena.

dinat uste huts egingo diodanik. Apenas minik ematen didaten lau hilabete eta hamar egunetan, nire zeruertza mugatuko diton horma hauek. Badinat nahiko oroitzapen neuregan bildua bizitzeko. Oroitzapen horiek ditun, bestalde, beldur ditudanak, zapore mingotsa baitute.

Ez dezatela oroitzapenen deiek zikindu ibili behar dudan erabateko garbitasun bidea.

Bihar arte.

## 4

Ai, Aissatou, kuttun hori, aspertzen haut agian badakizkinan gauzok kontatzean. Ez baititut sekula hainbeste begiratu, ez baitzaizkit horrenbeste axola izan.

Gaur goizean amaitu dun, behingoz, etxeko saloian egin den familia-bilera. Hiretzat erraza dun bertan zein izan diren asmatzea: dama amaginarreba, haren anaia eta anaiaren alaba Binetou, gero eta argalago; Tamsir zaharra, Modouren anaia; Mawdo Bâ, auzoko imana; nire alaba, eta Abdou, haren senarra.

Koranak agindutako *Miraasak*<sup>10</sup> hildakoaren sekreturik gordeenak erauztera behartzen hau. Besteren esku uzten baita kontu handiz isilpean gordetako. Aurkikuntza horiek gordin ekarri ohi dituen argira norbaiten jokae-ra. Izu-ikaraz neurtzen dinat zenbaterainokoa izan den Modouren saldukeria. Haren lehen familiaganako axolagabekeria, nire seme-alabenganakoa eta neureganakoa, alegia; bat baitator beraren bizitzako aukera berriarekin. Zapuztu egin gintinan. Baginela ere kontuan hartu gabe bideratu zinan bere etorkizuna.

Mingain gaiztoek diotenez, funtzio publikoko teknikari posturako promozioak ez zinan ezertan gutxitu aldapan behera zeraman gastuen lehia, horren truke ito baitzuen matxinada sindikala. Txanpon bakar bat ere aurreratu gabe hil dun. Zorren salatariak? Pila bat:

<sup>10</sup> Defuntuak utzitako ondasunak eta zorrak eguneratu eta ondorengoei haiek banatu edo ordainaraztea, indarrean dagoen gizarte edo erlijio-markoaren arabera (arabieratik wolofera egokitutako hitza).

oihal- eta urre-saltzaileak, janari-banatzzaileak, harakina, auto-saltzaileak...

Atxiki hakio! Larrutzearen giltza non dagoen? SICAP txaletean zagon giltza: goi mailako standing-a, lau logela, bi bainugela (arrosa bata eta urdina bestea), areto zabala, hiru piezako apartamentua dama amaginarrebarentzat, bigarren patioaren buruan. Emazte berriarentzat, Frantziako altzariak. Eta dama amaginarrebarentzat, bertako ebanistek egindakoak. Modouren kontura dena, jakina.

Neu bizi naizen Fallène txaletaren hipotekaren gainean berak baimendutako banku mailegu bati esker eskuratu zitinan etxebizitza hori eta barneko apaindura aberatsa. Fallène txalet hau, zeinaren oinarritzko tituluak beraren izena daraman, bion ekonomiarekin erositako ondasuna ditun. Ez besterik. Hori ausardia gora bidean!

SICAP hori eskuratzeko, hilero hirurogeita hamar mila franko botatzen jarraitzen zinan. Hori baitzen hamar urteren buruan etxea bereganatzeko baldintza.

Bere egoera pribilegiatua baliatuz, erraztasun handiz jaso zitinan maileguzko lau milioiak. Horri esker, dama amaginarreba eta haren senarra Mekara bidali ahal izan zitinan Hadja eta El-Hadj tituluak lortzeko. Horratx, baita ere, mailaturik txikienagatik Binetouren Alfa Romeoa behin eta berriz aldatzeko erraztasunaren arrazoia.

Bai ondo ulertzen dudala, orain, Modouk biona zen bankuko kontua bazterrera laga izana; maltzurra gizona. Bakarrik eta libre nahi zinan, diru kontuetan askatasunez jokatu ahal izateko.

Gainera, Binetou eskolatik atera zuenez, berrogeita hamar mila frankoko laguntza ematen zionan hilero, soldata finkoa bailitzan. Azkarra izanik, neskak ikasten jarraitu nahi zinan, batxilergoa erdietsi arte. Modouk, azeri maltzur, zera uste zinan: gazteen errukirik gabeko kritikak saihestuko zituela, bere jabegoa ziurtatzeko.



Dama amaginarrebaren baldintza guztiei amore emanez, hilero aipatutako kopurua emateko papera sinatu zinan. Harro erakusten zinan dama amaginarrebak Modouk sinatutako papera, sendo sinetsita baitzegoen Modou hil eta gero ere diru hori jasotzen jarraituko zuela, herentziatik hartuta.

Nire alaba Dabak, ordea, aitaren heriotza egunean bertan ordenantzak emandako SICAP txaleteko ondasunen zerrenda-agiria erakusten zinan. Dama amaginarrebaren eta Binetouren zerrendak ez baitzituen aitatzan zenbait gauza eta altzari. Ilunpetan desagertuak edo gezurretan eramana nonbait.

Ondo dakin hik zenbateraino naizen minbera. Bai bat, bai besteak erakutsitako jokaerak ez zidan grazia izpirik egiten...



## 5

Harri eta zur utzi hindudan atzo nire ezusteko berriekin; ziur nagon.

Zoramenak? Txarkeriak? Eutsi ezineko maitasunak? Zer barne iraultzak atera zuen Modou Fall bide zuzenetik, Binetourekin ezkontzeraino?

Nire sumina menderatu nahian, gizakiaren zorian pentsatzen jarri naun. Bizibide bakoitzak heroismo partzela bat gordetzen din halabeharraren zartailupean, utzikeriaz, ukapenez eta onarpenaz eraikitako partzela bat. Ilunpetan hiltzen diren mundu zabaleko itsuengan pentsatzen dinat. Baita mundu zabalean arrastaka dabil-tzan perlesiadunengan ere. Gorputza pusketatan joaten zaien legenardunengan.

Aukeratu ez duzuen adur triste baten biktima zuek; zer dira, zuen arranguraren parean jarrita, nire patuan ahalmenik ez duen hildako batek inolako errukirik gabe sorrarazitako borrokak? Zuzen jokatzuz, posible zenuten, zuen zoritxarrak bateratuz, ondasunez mozkor dauden horiek beldur-ikaraz dardaran jartzea. Posible zenuten, matxinadan eta nazkan ahaltsu, zuen goseak eskatzen duen ogia bera okaztatzea.

Zuen egonarriak ez zaituzte erasokor eta beldurgarri bihurtzen, baina bai benetako heroi; zuen egoera miserablea gorabehera, ezezagun zarete historia handiarentzat, ez baituzue inoiz ere nahasten ezarritako ordena.

Berriri diot: zer dira, zuen aje fisikoen aldean, aje moralak? Haietatik ere libre ez zaudeten arren. Zuengan

pentsatzean, eskerrak ematen dizkiot Jainkoari egunero zerua eta lurra besarkatzen dituzten begiengatik. Gaur nekezia moralak gogortzen banau ere, bihar alde egingo dit gorputzetik. Orduan, nire oin askatuek poliki-poliki eramango naute berriro, eta iodoa eta itsasoko urdina izango ditut inguruan. Izar eta laino zuri nireak izango dira. Haizearen bafada izango dut kopetan freskagarri. Etzango naiz, iraulka ibiliko, dardara egingo. Oi, osasun, zaude nigan! Oi, osasun!

Nire ahaleginek ez naiten etsipenetik luzaroan askatzen. Umezurtz jaioberriarengan jartzen dinat orain nure burua. Bere semearen irribarrea inoiz ere ikusiko ez duen itsuarengan. Besomotzaren kalbarioan. Haiengana zihoanan nire burua. Hala ere, nire gogorik ezak bere horretan dirau; nire etsaigoa barnean zagon, eta oldartzen ditun nigan mugarik gabeko tristeziaren olatuak.

Zoramena ala gogo txarra? Zer barne nahasmen-duk desbideratu zuen Modou Fall, Binetourekin ezkontzeraino?

Eta gizon hori pasio osoz maite izan dudala aitortu behar; bizitzako hogeita hamar urte eman dizkioda-la berari; hamabi bider eramán dudala erraietan haren haurra. Nire bizitzara lehiakide berria ekartzea ez zaion nahikoa izan. Materialki eta moralki erre din bere joana, beste bat maitatzean. Holako ukaziorik! Eta hala ere...

Hala eta guztiz ere, zer ez zinan bada egin ni bere emaztea gerta nendin!

## 6

Gogoan dun noski lehen aldiz Ponty-Villera eraman gintuen goizeko tren hura, Sebikotne-ko goi mailako maisu-eskolaren hirira. Azken euri zaparradei esker, berdea zunan zabaldegia Ponty-Villen. Eta, izadi zaballean, gazteriaren festa: banjo melodiak dantzarako pista bihurtutako lo-tokietan, berriketak geranioen pasealeku luzeetan eta mango arbolen abaro hostotsuan.

Modou Fall, nire aurrean dantzarako deia eginez makurtu hintzenean jakin nian heu hintzela nik espero nuena. Heu, bai, handi eta atletikoki eraikia. Eta anbar koloreko belzkara, urrutiko morisko izaeraren erakusgarri. Baita gizontasunean eta harmonian batutako trazuen fineziaren erakusgarri ere. Ororen gaisetik, ordea, hik bahekien xeratsu izaten. Bahekien pentsamendu oro asmatzen, desio guztiak... Bahekizkien definitu ezin diren gauza asko; horiek ematen ziaten ospea, eta gure arteko harremanei marka berezia ezartzen.

Dantzan hasten ginenean, nirearen gainera makurtzen zuan hire bekoki jadanik soildua. Zorion berberak argitzen zitian gure aurpegiak. Hire eskuaren presioa amultsuago bilakatzen zuan, posesiboago. Niregan, dena zuan baietza, eta, hire adimen zorrotzean, hire sentsibilitate inguratzailean, hire adeitasunean eta erdipurdikakorik ametitzen ez zuen gogo biziaren aurkikuntzan indar hartuta, gure harremanak eskolako urte eta oporraldi iraun zian. Gogo sutsu horrek eraman hinduen, eskolatik ir-teterakoan, bakardadean, bi batxilergoak prestatzera.

Frantziara joan hintzen gero, eta, gutunek ziotenez, itxita bizi hintzen, begiak erretzeko moduko inguru dis-tiratsuari men egin gabe. Horrela heureganatu huen harri-garriak eragin dituen historiaren zentzu sakona, eta mugarik ezagutu ez duen kulturaren murgildu hintzen. Emaztekien esne koloreko aurpegiak ez hinduten haiengana itsatsi. Gutunaren arabera betiere, fisikotik harago jo gabe, ilajearen oparotasuna, luzera eta malgutasuna zauzkak emakume zuriak, beltzak ez bezala. Eta begi-tartea, urdina izan daitekeena, edo berdea, ezti berriaren kolorekoa sarri. Deitoratzen huen zeruaren geldotasuna, non koko-ondo baten adatek ere ez luketen kulunka-rik egingo. «Emakume beltzaren zinbili-zanbulu hori espaloian barrena» falta zitzaian; lilura sortzen duen Afrikako geldotasun txairo hori, alegia. Erraietarainoko mina sortzen zian jendearen erritmo biziak eta hotzak eragindako hozminak. Bizkarra makur, ikasten bilduta hengoela esanez amaitzen huen. Eta maite hitzak har-rikatuz bukatzen gutuna. Lasaitasun hitzak, azkenik: «Heu haiz nigan daramadana. Heu, babesten nauen *negresa*. Eskuak estutzeko baino ez bada ere, elkarrekin topo egin; horrek ahantzaraziko baitizkit gosea, egarria eta bakardadea».

Eta itzuli hintzen irabazle. Legeetan lizentziatua! Hire ahotsa eta hizlari trebearen dohainak bazter utziz, nahia-go izan huen soldata eskaseko lan apal bat, baina hire he-rrientzat eraikitzailea.

Hire balentriak ez zituan hor bukatu. Mawdo Bâ, hire adiskidea, gure zirkuluan sartzeak Aissatou nire adiski-derik minenaren bizitza aldatu zian.

Ez zieat gehiago barre egiten heuri buruz nire amak egiten zituen itzulinguruei, ama batek argi ikusi ohi bai-tu bere haurraren zoriona non dagoen. Ez diat gehiago barre egiten hark ederregia, adeitsuegia, gizona izateko

perfektuegia aurkitzen hinduela pentsatzen dudanean. Sarri aipatzen zian goiko ebakortzen arteko ageriko tar-tea, gizon bat beste guztiaren gain atsegina jartzen duenaren adierazgarri. Zer ez zuen ba egin hortik aurrera gu bereiz gintezen. Higan ez zian ikusten eskolako uniforme kakiz jantzitakoa baino. Ez zian isilean gordetzen hire bisitak luzeegiak zirela. Denbora non galdu ez zekien alferrontzia hintzela esaten zian. Nire burua asebetetzen erabiltzen huela denbora, gazte interesgarriagoen kaltetan.

Zeren, Afrikako emakumeen artean lehen aurrera-koiak geu, gutxi baikinen. Burugabetzat jotzen gintiztean gizonek, *sorgindu* deitzeraino; *deabru* ere bai, zenbaitek. Baina askok gozatu nahi gintiztean. Zenbat amets janaritu ote genitian etsi-etsian zorion iraunkorraren bila. Kale egin geniean, beste ametsak geure egiteko, zeinak, zoritxarrez, xaboi punpuilak bezala leher egin duten gu esku hutsik lagata.





## 7

Ez dinat sekula ahaztuko guretzat “ohikoa ez den” etorkizuna nahi izan zuen emakume zuria, denen artean lehena. Begira diezaiozun elkar hartuta, beste behin ere, gure eskolari: berdea, arrosa, urdina, horia, benetako ortzadarra. Berdea, urdina, horia, jolaslekua betetzen zuten loreen koloreak. Arrosa: oheak bikain jasota zeuden lo-tokietako kolorea. Gure eskola, bai, entzun, gure ikasleko grinagatik dardaraka suma daitezke hormak. Bizi dezagun hango atmosferaren bozkarioa, ilunabarrean; arratseko kantuak, gure otoitz bateratu esperantzaz ase-beteak durunda egiten zuenean. Gaur errepublika autonomotan banatua dagoen Afrika mendebaleko frantses esparruan, lehiaketa bidez egiten zen errekrutatzea, eta horrek adimen, nortasun, ohitura eta usadio ezberdinen nahasketa emankorra eskaintzen zinan. Arrazako arrasto zehatzez kanpo ez zitinan ezerk bereizten Dahomeyko Fon eta Gineako Malinkea. Denborari eta urrutitasunari eutsi dioten adiskidegoak lotu zitunan. Askatasun misiora bidalitako benetako ahizpa batzuk gintunan.

Tradizioen, sineskerien eta ohituren trabatik askatu; geurea ukatu gabe, zibilizazio ugarien aldetik balioetsiak izan; munduarekiko ikuskera jaso, nortasuna landu, geure berezitasunak indartu, gure akatsak apaldu; moral balio unibertsalei gugan fruitu emanarazi; hara zuzendari miresgarri hark bere buruari eman zion egitekoa. *Maite* hitzak oihartzun berezia zinan beragan. Gure txirikordak zutik edo tolestatuta, gure atorra eta gure oihal,

paternalismorik gabe maitatu gintinan. Jakin zinan gure dohainak ikusten eta aintzat hartzen.

Asko pentsatzen dinat harengan! Beraren oroimenak denboraren esker gaiztoari garaile eutsi badio, loreek behinolako indarrez lurrintzen ez duten une honetan, heldutasunak eta hausnarketak amets lilurakorrak biluztu dituztenean, zera erakusten din: gure formaziorako eta osotasunerako aukeratutako bidea ez zela halabehera izan. Bat zatozan Afrika berrian emakume beltza suspertzeko dauden aukera sakonekin.

Etsipenera daramaten tabuetatik askatua, analisirako gai, zer dela-eta jarraitu behar ninan nik amaren hatza, Daouda Dieng seinalatzen zidana, ezkonge oraindik, bai, baina helduegia nire hemezortzi neguetarako. Poliklinikan Afrikako sendakuntza lanbidean arituz, aberatsa zunan, eta bazekinan hortik etekina ateratzen. Beraren txaleta, itsasertzeko harkaitz baten gainean kokatua, itsasora begira, elite gaztearen elkartze gunea zunan. Ez zunan han ezer falta, ez edari gozagarriz betetako hozkailurik, ezta orain musika motela eta sarri deabru aireak jario zituen fonograforik ere.

Bihotzak behartzen ere bazekinan Daouda Diengek. Nire amarentzat, opari erabilgarriak, arroza-zakutik hasita, hain estimagarria gerra garaietako gabezian; niretzat, erregalu soilak, xingolazko paperean eder bilduta. Baina nik nahiago ninan betiko kaki osoko gizona. Doterik gabe egin zunan gure ezkontza, arrandiarik gabe, aitaren begirada gaitzeslearen mende, amaren haserre min zapuztuaren aurrean, ahizpa txundituen isekapean, gure auzo harritu isilean.

## 8

Mawdo Bàrekin ezkondu hintzen gero, Afrikako Farma-  
zia eta Medikuntza Eskolatik irten berria bera. Ezkontza  
eztabaidatua. Auzoko haserre marmarrak entzuten diti-  
nat oraino:

—Zer da hori? *Orokolore* bat bitxi-saltzaile batekin ez-  
kondu? Utikan! Ez du dirurik bilduko.

—Mawdoren ama Dioufene etniakoa da: Sineko Gele-  
war. Hori putzaldia amarentzat aurreko emaztekideen  
aurrean! (Mawdoren aita hila zunan).

—Hara zeren gainean erortzen den kostea ahala kostea  
*gonamotz* bat emaztetzat hartu nahi denean.

—Gizonak bide zuzenetik okerrera eramaten dituzten  
deabru bihurtzen ditu eskolak gure neskak.

Eta isilean gordetzea nahiago ditudanak! Baina Maw-  
dok tinko eutsi zionan.

«Norberarena da ezkontza» erantzuten zionan entzun  
nahi zuenari.

Bizitzako aukerari zion atxikimendua garbi erakutsi  
zidan hire aita bere lantokira eta ez bere etxera ikuste-  
ra joan zenean. Distira biziz etorri ohi zunan ibilera ho-  
rietatik, «zuzen erabaki duenaren» alaitasun betean.  
*Sortzaile* deitzen zionan hire aitari. Oxido karbonoa-  
ren kedar garratza egunero irensten zuen dosiagatik  
ahuldutako gizona miresten zidan. Urrea dun gizon  
horrek urtzen duen gauza, urrea: urtu, araztu, bihu-  
rritu, mehetu, zaflatu, zizelkatu. «Ikustekoa da, gero»,  
zioen Mawdok. «Ikusi egin behar da suari putz egiten».

Biriken bizitzatik, masailak puztu egiten zitunan. Bizitasun horrek biziago egiten zinan sua. Gorri, urdin, zuzen gora, makur behera, ahultzen zunan edo indartzen bere nahierara eta lanaren beharrera. Eta urre izpiek txinparta gorrietan, eta aprendizen kantu lakatzek batzuen mailu kolpeka, besteen eskuek hauspoetan eragiten zuten presioaren erritmoan, begiratzeko itzultzen zitunan aurretik pasatzen zirenak.

Hire aitak, Aissatou, urrearen lana babesten duten erritoak ezagutzen zitinan; urrea, *djin-en*<sup>11</sup> metala. Lanbide bakoitzak badin aitak semeari eskura ematen dion eta iniziatuek baino ezagutzen ez duten araudi bat. Hire anaia nagusiak, zirkunzidatuaren txosnatik irten bezain pronto, inimizioak irekitzen duen unibertso berezi horretan sartu zitunan.

Baina hire anaia gazteena? Zurien eskolara zuzenduak izan ditun haren pausoak.

Neketsua dun jakitatearen aldapa latzeko igoera zurien eskolan.

Aberatsek soilik beren haurrei eskain diezaieketen luxua dun haurtzaindegia. Beharrezkoa dun, hala ere, haurtxoen arreta zorrozteko eta bideratzeko.

Oinarrizko eskola ugaritzen ari bada ere, zaila dun haurra horra eramatea. Lekurik ezean, ume pila bat uzten ditizten kale gorrian.

Lizeoan sartzten ditun nerabezaroak leher egiten duen garaian, segadek aurrez aurre harrapatzen dituztenean: droga, noraezeko ibilerak, gorputzeko atseginak ez din ikaslea babesten bere nortasuna indartzeko borrokan.

Unibertsitateak ere baditin ukazio nabarmenak eta etsipena sortzen duten arazoak.

---

11 Gaiztoak gerta daitezkeen espirituak.

Zer egingo ote dute aurrera jarraitu ezin dutenek? Liburuetako jakitate ñimiño batera heldu denari itsusi irudituko zaion tradizioko lanbide bati heltzea. Enplegatu edo biajante edo saltzaile izatearekin egiten diten amets. Desohoretzat begiratzen zaion eskulangile izateari.

Ofizio gabekoen masak gizentzen ditin gaizkileen zerrendak.

Pozez hartu behar ote genuen errementari, lantegi eta zapatarien desertzioa? Itzal apurrik gabeko alaitasuna erakutsi behar ote genuen horregatik? Ez ote geunden eliteko eskulangile tradizionalen galeraren hasieran?

Amaierarik ez duen betiko eztabaidaren betiko galderak. Bat gentozanan denok modernitatea tradizioan txertatzeko haustura ugari ikustekoak ginela uste genuenok. Joanaren eta etortzekoaren artean puskatuak, etorriko ziren “odoljarioak” deitoratzen genitinan... Eta izena ematen genienan galera posiblei. Baina sumatzen geninan ezer ez zela lehen bezala izango. Nostalgiaz blai geundenan, baina zirt edo zart aurrerakoi.



## 9

Mawdok, printzesaren seme, bere garaierara jaso hinduen hi, errementariaren alaba. Ez zunan amari uko egi-teaz beldur izan.

Gure bizitzak alboz albo eramán ditinagu. Ezkonduen bizitzako zaputzaldiak eta adiskidetzeak ezagutzen genitinan. Era ezberdinean eramaten genitinan gizarteko gorabeherak eta ohituren zama. Maite ninan Modou. Konpontzen nindunan bereekin ere. Jasaten nitinan beraren arrebak, hain sarri beren supazterretik ihesi nirea lepo egiteraino betetzen zutenean. Erraz jotzen zitenan bertan jatera eta losintxaz goatzera. Aurka egin gabe begiratzén zietenan beren haurrei besaulkien gainean dantzan. Haserre gabe hartzen nitinan alfonbra azpian trebeki irristatzen zituzten karkaxak.

Erosketen aitzakian, behin eta berriz gerturatzén zunan beren ama, semearen arrakasta soziala ikusarazteko adiskidez inguratuta beti, eta batez ere bera bizi ez zen etxe eder honetan zuen nagusitasuna erakusteko. Erregina bati dagokion begiramenez hartzen ninan nik; ase alde egiten zinan, zuhurki ematen nion bankuko billetea estutu bazezakeen batez ere. Baina, etxetik irten bezain laster, hurrena txunditu behar zuen lagun saldoarengan pentsatzen zinan.

Atseginagoa zunan Modouren aita. Eseri gabeko bisitak egiten zizkigunan gehienetan. Baso bat ur fresko hartu, etxea babesteko errezoak esan, eta alde. Banekinan deni irribarrea erakusten, eta onartzen ninan alferrikako

berbetan denbora galtzea. Ezkonahizpek uste zitenan etxeko lanetatik aske zen etxekoandre bat nintzela. «Hire bi neskameekin», esaten zitenan behin eta berriz.

Hoa azaltzera lan egiten duen emakume batek ez duela bere etxearen ardura txikiagoa. Hoa azaltzera ezerk ez duela aurrera egiten heuk esku hartu ezean, sarritan dena begiratu, dena berriro hasi behar dunala: etxea, sukaldea, plantxa. Haurrak garbitu, senarra zaindu. Lanean ari den etxekoandreak beharrian bikoitzak zauzkan, berdin astunak biak, eta biak bateratzen saiatzen dun. Nola bateratu? Hor zagon etxeak elkarrengandik bereizten dituen trebezia.

Koinatetako batzuk ez zitenan nire bizimoldearen inbidiarik. Ikusten baininduten, eskolako lan gogorraren ondoren, etengabe atzera eta aurrera etxean akitua. Atsegin zitenan beren erosotasuna, beren buruhausterik gabeko lasaitasuna, beren jolaserako uneak, eta onartzen zitenan beren senar lanpetuen zaintzapean egotea.

Beste zenbait, burutik mugatuagoak baitziren, nire ongizatearen eta erosteko ahalmenaren bekaizti zitunan. Txundituta geratzen zitunan nire etxean hainbeste “tresna” ikustean: gas-labea, barazkiak xehatzeko errota, azukre-pintzak. Erosotasun horren iturria zein zen ahazten zitzaien: lehena zutik etxean, oheratzen azkena, lanean beti...

Hik, Aissatou, bere duintasun zapuztuan gatibu laga huen ezkon familia. Kexu hintzen: «Hire ezkon familiak estimu handian hauka. Zaindu ezan ondo. Nireak, aldiz, bere noblezia minduaren goitik begiratzen zidan. Ezin ezer egin!».

Mawdoren amak burua mendekuan jarrita zeukan bi-tartean, gu biok bizi egiten gintunan: Gabonetako aforia, etxe bakoitzean txandaka ospatua, bikoteen artean prestatua eta, kostuak ere, erdibana. Konplexurik gabe



berritzen genitinan aspaldiko dantzak : *biguine* sutsuak, rumba amorratuak, tango geldoak. Eta, sentimenduen berritzaile, antzinako taupadak aurkitzen genitinan.

Hiriko itolarritik ere alde egiten geninan, itsas ondoko aire osasuntsua arnasteko.

Dakarreko erlaitza, Afrika mendebaleko ederrenetakoa, naturaren artelana, hegiz hegi ibili ohi geninan. Harkaitz borobilduek eta zorrotzek, beltzek eta okreek, gaisetarik begiratzen ziotenan ozeanoari. Berde, benetako lorategi zintzilikatuak zabaltzen zitunan sarri zero argiaren begiradapean. Ngor-era ere badaraman Oukam-eko bidera irteten gintunan, eta, areago, Yoff-eko aireporturaino. Pasatzean ezagutzen geninan, han sakonean, Almadien hondartzara zeraman kalezuloa.

Ngor-eko hondartzan geratzea geninan atseginen, izen bereko auzoan baitzegoen; arrantzale zahar bizardunek sareak konpontzen zitiztenan *bentennierren*<sup>12</sup> itzalean. Haurrak, biluzi eta mukitsu, uretan zalapartaka ez bazen, jolasean askatasun osoan.

Uretara boteak izateko zain zeutzanan urez asetako hondar finaren gainean olatuek kolpeka garbitutako txalupak, maitekiro margotuak. Beren kroskoan diz-diz egiten zitenan urmael txiki urdinek, zeruz eta eguzkiz beteek.

Hura jendetza jaiegunetan! Familia ugari, leku zabalaren eta aire garbiaren egarri, harat-honat pasieran. Konplexurik gabe jartzen gintunan larrugorritan, iodoz asebetetako haize kirriaren fereka mesedegarriak eta eguzki izpien epeltasunak erakarrita. Eguzkitakoak zabaldua, nagiek lo zegitenan. Umemoko batzuek, pala eta baldetxo eskuetan, asmameneko gazteluak eraikitzen zitiztenan eta eraisten.

---

12 Zeiba arbolaren wolof izena, malbazeoen familiako zuahaitz erraldoia.

Arratsean, bazetozenan arrantzaleak beren arrantzaldi neketsutik. Beste behin ere, ihes egin ziotenan itsasoaren amarru mugikorrari. Horizontean lerro xume beltz bat baino ez ziren batelak bertaratzean, gero eta bereziago azaltzen zitunan elkarrengandik. Dantzan zegitenan olatuen sakonean, eta, gero, nagi azaleratzen, banan-banan. Arrantzaleek, alai eta kantu, oihala eta materiala jaisten zitiztenan. Batzuk borborka ari zen ekoizpena biltzen saiatzen ziren bitartean, besteek jantzi bustiak bihurkatzten zitiztenan, eta beren kopetak xukatzen.

Bizirik zeuden arrainek jauzi egiten zitenan haurren begi txundituen harridurarako, itsas suge luzeak bihurrika zebiltzan bitartean. Arraina uretik irtetea baino gauza ederragorik ez zagon; haren begi argi eta freskoak, urre edo zilar koloreko ezkatak, haren distira urdinxka!

Eskuz bereizten zitiztenan; eskuz pilatu eta eskuz banatu. Etxerako probisio ederrak egin ohi genitinan.

Itsaskirriak umore onera bultzatzen gintinan. Dastatzen genuen gozamenak jai giroan jartzen zitinan zentzumen guztiak, eta neurri berean mozkortzen aberatsa eta pobrea. Natura sakon, aztergaitz eta mugarik gabe-koarekin egiten genuen komunioak arima garbitzen zinan. Etsipena eta gogo iluna bazihoazanan, bat-batean haien ordez betetasun eta irekitasun sentipenak aseta.

Indarberrituta, etxerako bidea hartzen geninan. Oi, zorion xumeen sekretua, osabide onuragarria eguneroko iskanbilan!

Gogoan al ditun Sengalkam-en Mawdo Bâk aitarengandik jasotako zelaian antolatzen genituen bazkari haiek? Sengalkam dun orain ere hiriko zoramenarekin hautsi nahi duten dakartarren abaroa. Gazteek erositako partzela ugari zauden han alboz albo, non benetako bigarren bizilekuak apailatu dituzten: onak ditun sail

berde horiek atsedenerako, gogoetarako eta haurren jolasarako. Oasi horretara zaraman Ruffisque bideak.

Mawdoren amak zaindu zinan eremu hori semea ezkondu zen arte. Lursail horretara lotu zitzaizkionan berriro begiak senar hilaren oroimenarekin; biok bat, gogor saiatuz otzandu baitzuten gure begiek harri-harri eginda begiratzten zuten landaretza.

Hik mugako etxola gehitu huen: hiru logela xume, bainugela eta sukaldea. Lore ugariz hornitu hituen zenbait bazter. Oilategia eraikiarazi huen, artegia ere bai gero.

Elkarren artean gurutzatutako hostotza ugariko kokoondoek babesten zitenan eguzkitik. Mangondo urtsuak zeudenan granada lurrintsuen artean. Arbak makurtzen zitiztenan mangoek, fruituz astun. Papaiak geratzen ziztunan tentalari baina eskuraezin han gorako tantaian gainean, forma askotako bularren antzeko.

Orri berde, brontze koloreko, belar erne berri eta belar zimelduek estaltzen zitenan lurra. Gure oinen azpian, txindurriek etenik gabe berregiten zitenan beren bizilekua.

Zein atsegina zitzaigun itzala zelai landuaren gainean! Irabazleen oihu edo galtzaileen amorru, jolas taldeek bata bestearen atzetik jarraitzen zitenan etenik gabe.

Eta eskura genituen fruituz asetzen gintunan. Eta koko-ura edaten geninan! Eta gatz eta piper istorioak kontatzen genizkionan elkarri! Eta fonografoaren doinu bizien deira eragiten genionan gorputzari. Eta, bitartean, piperbeltz, baratxuri, gurin eta piperrez gozatuta, arku-me erretzen ari zunan.

Bizi, bizi gintunan. Gainezka betetako eskolako geletan zutik, geu gintunan ezjakintasuna gainditzeko osatu behar zen ahalegin erraldoiaren hauspoa.

Lanbide bakoitzari, dela eskulana, dela burulana, begiramena zor zaion, ahalegin fisiko neketsua eskatzen

baitu, trebetasuna, ezaguera zabalak, txindurriaren pazientzia.

Sendagilearenak bezala, gureak ere ez din hutsegiterik onartzen. Bizia ez baita txantxetan hartzekoa. Eta bizia, gorputza dun, eta espiritua, biak batera. Arima itxuragabetzea hilketaren pareko sakrilegioa dun. Irakasleek, haur eskolatik unibertsitateraino, laudoriozko aipamenik eta dominarik irabaziko ez duen armada bikaina osatzen ditene. Beti erne, beti martxan dagoen armada. Atabalik eta uniforme distiratsurik gabeko armada. Armada horrek, amarru eta lakio zapuztuz, nonahi landatzen din jakitatearen eta onbidearen bandera.

Auzo apaletako andereño apalgu, noraino maite genuen irakaskuntzaren apaizgoa! Zer-nolako fedez zerbitzatzen geninan gure lanbidea eta noraino husten gintunan haren ohoretan. Ganoraz betetzen ikasi geninan —ikasle orok bezala— metro gutxira zegoen praktika-eskolan, non eskarmentu handiko irakasleek psikologia eta pedagogiako jakitatea zehazten erakutsi ziguten hasiberrioi. Gure izatearen zerbait bazeramaten ume aldraren garapen eztanda eragiten geninan beren tolesturetan.

## 10

Sindikatu lanean goi mailara igo zunan Modou. Pertsoneri eta gauzei buruz zuen ulermenak beregana biltzen zitinan enpresaburu eta soldatapekoak. Erraz lor zitezkeen erronketan jartzen zinan ahalegina, horiek bihurtzen baitzuten lana arinago eta bizitza gozoago. Langileen egoeraren hobetze praktikora bideratzen zitinan indarrak. Haren slogana: zertarako jarri agerian posible ez denaren lilura? “Posible” dena lortzea garaipena dun. Ez zetozenan denak bat beraren ikusteko moduarakin, baina itxaropena jarria zitenan beraren errealismo praktikoan.

Mawdok ez zinan sindikatueta eta politikan sartzeko denborarik. Gaixoz gainezka zegoen erietzeko zereginean preso, beraren sendagile fama gero eta sendotzena go zihoanan, jendea ez baitzen lehen bezala sendatzaile tradizionalengana joaten, eritasun ezberdinetarako sendabide berberak zituzten-eta haiek beti.

Denek irakurtzen zitiztenan egunkari eta aldizkariak. Irakiten hasia zunan Ipar Afrika.

Iritziak bat egitera zetozenan, edo elkar baztertzer, elkar osatzer edo elkar arbuiatzer. Amairik gabeko eztabaidak; Afrika berriaren irudia osatu al zenuten?

Gure pentsaera eta izaera beraren arragora erakarri nahi zituen kolonizatzailearen amets asimilazionisten ezaugarriak zitunan: pipa muturrean kea dariola, ilaje kizkurraren babeserako kaskoa, izter beltzen gaineko praka motz zuriak, ondo torneatutako zango biribilen gaineko

gona motz-motzak... Bat-batean ohartu zunan txitak berotzen baino ez zela ari zuen belaunaldia, barregarri.

Gupidaririk gabe zihoanan aurrera historia. Eztabaidak astindua ageri zunan mendebaleko Afrika, bide onenaren bila. Ausartenek espetxea ezagutu zitenan. Haien arrastora, beste batzuek jarraitu zitenan haiek hasitako lana.

Gure belaunaldiaren pribilegioa izan dun bi garai historikoren arteko giltzarri gertatzea; mendetasunarena bata, independentziarena bestea. Proiektuen bul-tzatzaile ginelako iraun geninan gazte eta eraginkor. Independentzia eskuratu genuenean, han geundenan gu Errepublikaren sorreran, ereserkiaren jaiotzan eta ikur-rina jasotzean.

Behin eta berriz entzuten ninan herriko indar bizi guztiek mugitu behar zutela. Baina guk, joera bateko edo besteko eta nolana hiko gizarte ereduaren aldeko, horren guztiaren gainetik aitortzen geninan batasun nazionala zela behar-beharrezkoena, beste horiek saihestezinak baziren ere. Gure arteko askok garaile azaltzen zen alderdiarekin egin zitenan bat, indar berria erakartzeko. Besoak gurutzatu eta kanpotik kopiatutako ideologietan babesa hartzea baino hobea zunan borroka hartan emankor gertatzea.

Modouk, praktikoa baitzen beti, gobernuarekin lankidetzan aritzera eraman zitinan sindikatuak, beren taldeei ahal zutena baino gehiago eskatu gabe. Purrustaka ibili zunan enbaxada ugariren ezarpen azkarregiaren aurka, garestitzat jotzen baitzituen gure herri azpigaratuaren-tzat. Handikeria hutsagatiko alferrikako odol xurgatze, atzerrikoen hainbeste gonbidatze, alferrik xahututako hainbeste diru! Eta burua bere soldatapekoengan zuela marmar bizian: «Ai, zenbat eskola eta ospitale tako

ekipamendu galduak! Hileroko zenbat soldata! Zenbat bide asfaltatu!».

Mawdok eta biok entzun egiten zenioten. Goi gailurretan geundenan. Bitartean, semearen ondoan zorion betean ikusten hinduen hire amaginarrebak; beraren semea gero eta sarriago hire aitaren burdinolara joaten zela jabetzean, hire amari gorputzez sendoago eta hobeto jantzita begiratzean, hire amaginarrebak gero eta sukar beroagoz pentsatzen zinan mendekuan.





## 11

Bazakinat, astindu egiten haut, labana zarabilenat zauri osatu gabe; baina zer nahi dun, bakardade eta giltzape honetara behartua bainaiz, ezin atearik itxi burura datorkidanari.

Mawdoren ama izeba Nabou dun gu biontzat eta Seynabou besteentzat. Sinoko izen ospetsua zeraman: Diouf. Bour-Sineren ondorengoa dun. Mundua aldatzen ari dela ohartu gabe bizi zunan lehen. Egia zaharrei atxikia egoskorki. Jatorriko pribilegioei hain estu lotua zenez, uste zinan odolarekin datorkigula bertutea, eta etenik gabe burua astinduz errepikatzen zinan jaiotzako nobleziarik eza portaeran ikusten dela gero. Baina bizitzak ez zion barkatu. Berehala galdu zinan kostatako senarra. Kemen handiz hezi zinan bere lehen seme Mawdo, eta bi alabak, ondo ezkonduak biak. Tigre emearen atxikimenduz maite zinan bere “gizon bakarra”: Mawdo Bà. Eta, zin egiten zuenean bere “gizon bakarraren” sudurraren gainean, dena esana zegonan, biziaren sinbolo baitzen. Orain, bere “gizon bakarrak” ihes egiten zion bitxi-saltzaile madarikatu horren erruz, griot emazteki bat baino gaiztoagoa baita. Griot emaztekoa zorion ekarle dun. Baina bitxi-saltzaileak... guztia erretzen din bere bidean, burdinolako sua bailitzan.

Hire ezkontza arazo konpondua zela iritzita lasai bizi ginen bitartean, Mawdoren amak gogoetan ematen zitinan gauak eta egunak, hire kontra mendekua nola hartuko, bitxi-saltzaile hori!

Egun batez, Farba Diouf ikustera joan behar zuela erabaki zinan. Beraren anaia gazteena zunan, usadio-burua Diakhaon. Neuri eskatutako maleta batean tolestu zitinan kontu handiz aukeratutako jantzi batzuk, eta saski batean pilatu zitinan zenbait erosketa: janari garestiak, Sinen ikusten ez diren Frantziako gazta eta konfiturak, ilobentzako jostailuak, anaiarentzako eta haren lau emazteentzako oihal txatalak.

Modouri eskatutako bankuko billete batzuk kontu handiz bere diru-zorroan gorde, ilea apain-apain jarra-razi, eta bere oin eta eskuak hennaz tindatu. Jantzita, apainduta, bazihoanan.

Ruffisque-ko bidea bitan banatzen dun gaur egun Diamniadio-ko bidegurutzean: I errepide nazionala eskuinera, Mbour-etik harago Sine-Saloum-era daramana; II errepide nazionalak, aldiz, Saint-Louis aldera jotzen din, garai bateko Senegalgo hiriburura, Thiès eta Tivaouane (Tidianismoaren<sup>13</sup> sehaska) zeharkatuz. Izeba Nabouk ez zeukanan leku batetik bestera joateko gaurko erraztasunik. Bide malkar haietan barrena, autobusez, bere oroitzapenetan murgildu zunan. Haurtzaroko lekuetara zeraman ibilgailuaren abiada zoroak ez zionan garai bateko etxondoko paisaia ezagutzea eragotzi. Hara, Sindia; gero, ezkerrera, Popenguine, non Mendekoste eguna ospatu ohi duten *gourmetteek*<sup>14</sup>.

Zenbat belaunaldi ikusi ote ditu pasatzen bazter urratu honek! Izeba Nabouk argi ikusten zinan zein hauskorak garen izakiok naturaren betikotasunaren aurrean.

---

13 Senegalgo anaiarte islamiar garrantzitsuenetakoa, Cheik Ahmed Tidjane-  
rengan inspiratua; haren mausoleoa Fez-en dago, Marokon.

14 Katoliko beltz eta mestizoak, jatorriz antzinako frantziar kolonia-garaiko  
funtzio osoko komunetakoak.

Iraupenaz egiten zion aurre naturak denborari, eta aurka mendeku hartu.

Baobabek zerurantz zabaltzen zitiztenan beren adarretako korapilo erraldoiak. Nagi pasatzen zitenan bidea behiek, eta beren begirada hilekin desafio egiten ibilgailuari. Behizainek, praka motz harroetan jantziak, akuilua eskuan edo bizkarrean zutela zuzentzen zitenan ganadua. Gizon eta abere, bat zegitenan aroen hondotik datorren koadroa osatuz.

Ibilgailu batekin gurutzatzen ziren bakoitzean, izeba Nabouk begiak ixten zitinan. Kamioitzarren karga ikaragarri haiek beldur-ikara ematen ziotenan.

Medinatou-Minaouara meskita ikusgarria ez zegoan artean Islamaren gloriarako eraikia. Baina gizon eta emakumeek bihozkada berberean otoitz zegitenan bide bazterrean. «Tradizioen iraupenaz sinesteko, Dakarretik irten behar», zionan marmarka izeba Nabouk.

Arantzadun landareek mugatzen zitenan ezkerretara Ndiassaneko oihana; tximinoak basotik ateratzen zitun argiz horditu nahian.

Hara, bertan, Thiadiaye, Tataguine, Diouroupe; atzera-go, Ndioudiouf, eta, azkenik, Fatick, Sineko buru. Arnastetuka eta kedarra zeriola, ezkerretara jo zinan busak. Haiek astinduak, haiek! Behin eta berriz. Diakhao azkenean, Diakhao erregerena, Diakhao Bour-Sinetarren sorburu eta hilobi, beraren aurrekoen Diakhao, Diakhao kuttuna, jauregi zaharraren lursail zabalarekin.

Larrialdi berberak nahigabetzen ziotenan bihotza aurrekoen lurrera zetorren bakoitzean. Beste ezer baino lehen, garbitzeko ura eta otoitz egiteko oinpekoa, aita-soen hilobi aurrean barnebiltzeko. Gero, tristurak erabat hartuta eta joandakoen historiaz karga-karga, beste hilobien gainera eraman zitinan begiak. Hilak eta bi-ziak bizikide ditun hemen, familiaren etxaldean: errege

bakoitzak, oliaduraren ondoren, bi zuhaitz aldatzen zitinan errege patioan, bere azken egoitza mugatzeko. Nambouri, bihotza bero, salmo-bertsoak jalgi zitzaizkionan hilarri haiei begira. Maskara tragikoaren aurpegia jarri zitzaionan *Djou-djoungaren*<sup>15</sup> erritmora aurrekoen ospea kantatzen zuten leku sakratu haietan.

Zin egin zinan, Aissatou, hire bizitzak ez duela inolaz ere zikinduko haren ondorengoaren noblezia.

Bere buruan errito zaharrak eta erlijioa bateratuz, gogora etorri zitzaionan espiritu ezkutuen bakea lortzeko Sinera<sup>16</sup> isuri behar zuen esnea. Hurrengo egunean bertan joango zunan begiko gaiztotik gordetzeko eta *tuurren*<sup>17</sup> onginahia erakartzeko eskaintzak uretan egitera.

Erregina bati dagokion abegi onez hartua, berehala murgildu zunan maiorazkoari zegozkion pribilegioen munduan. Belauna lurrean hitz egiten zitzaionan. Eltze-ko onenarekin zerbitzatua, besteengandik aparte hartzen zinan jatekoa.

Alde guztietatik etorri zitzaizkionan bisitariak ohore egitera: odolaren legea zenbateraino zen egiazkoa gogorazten ziotenan horrela. Berritu zitiztenan Bour-Sine aitasoaren balentriak, borroketako hautsa eta aukerako zaldien oldarra... Zaharren errautsak koraren musikara astintzean, intsentsu errearen usain astunean hordi, indarra eta bizia berritu zitinan. Anaiari egin zionan dei:

—Nire bihotza altzariz janzteko neskato baten beharra diat nire alboan —esan zionan—. Nire bi zangoak eta nire eskuin besoa izanen duk haur hori. Zahartzen ari nauk. Beste neu bat bihurtuko diat nik neskatoa. Nireak ezkondu zirenetik hutsik zagok-eta etxea.

15 Sineko errege atabala.

16 Lur azpiko ibaia, izen bereko eskualdekoa.

17 Lagun ikusezinak.

Higan zeukanan burua. Mendekua zehazten ari zunan, baina kontu handiz ekidin zinan hire aipamenik egitea; hireganako gorrotoa, alegia.

—Egina zagon —erantzun zionan Farba Dioufek—. Gehiegi nekatuko hindudalakoan ez dinat inoiz ere alabetako bat heztea proposatu. Arrastoan eusteko zailak baititun gaurko gazteak. Har ezan Nabou txikia, hire ize-nekoa. Hirea dun. Beraren hezurak baino ez dizkinat eskatzen.

Asebeteta, izeba Nabouk berriro hornitu zinan maleta, eta sartu zitinan saskietan mendian baino aurkitzen ez eta hirian garestiegi diren gauzak: kuskus lehorra, kakahuete pasta errea, sorgoa, arrautzak, esnea, oiloak. Nabou txikiari eskuin eskutik ondo heldu, eta itzulerako bidea hartu zinan.



## 12

Maleta itzultzean, izeba Nabouk Nabou txikia aurkeztu zidan; adiskideen etxe guztietan ere aurkeztu zinan, era berean.

Neu arduratu nintzelako sartu zunan Nabou txikia frantses eskolan. Adinean aurrera, izebaren itzal babesgarriari esker ikasi zinan saltsa gozoen sekretua, lisatzeko burdina eta mortairua nola erabili. Haren izebak ez zinan inoiz ere abagunea galtzen Nabou txikiari bere errege jatorria gogora ekartzeko. Eta emazteki baten dohainik behinena esanekoa izatea zela erakutsi zionan.

Zertifikatuaren ondoren, eta urte bat edo beste lizeoan eman ondoren, Estatuko Emagin Eskolarako sarreralehiaketara aurkezteko aholkua eman zionan Nabou zaharrak: «Ona dun eskola hori; hezi egingo haute hor. Koroarik ez buru gainean. Neska zuhurak, belarritarorik gabe, zuriz jantzita, hori baita garbitasunaren kolorea. Ederra dun hik hor ikasiko dunan lanbidea: bizia irabaziko dun, eta, Mohammeden<sup>18</sup> zerbitzariei jaiotzen lagunduz, paradisorako graziak erdietsiko. Egia esan, ez dun gehiegi bultzatu behar emazteki baten jakitatea. Gainera, egun osoa mintza eta mintza pasatzen badu, neure buruari galdetzen zionat nola irabaz dezakeen emakume batek bere bizi».

Beraz, Nabou txikia emagin gertatu zunan. Egun batez, Nabou nagusiak deitu zinan Mawdo, eta esan zionan:

---

18 Seydina Mohammed, Islamaren Profeta.

«Nire anaia Farbak Nabou txikia eman dik emaztetzat, merezi bezala hezi dudalako esker onez. Emaztetzat gordetzen ez baduk, ez nauk aurrerakoan osasun onean biziko. Gaixoaldiak baino azkarrago hiltzen baitu lotsak».

Nik banekin. Modouk ere bai. Herriak bazekinan. Heuk, ordea, heuk ez hion ezeri usainik hartzen.

Eta haren amak eztei gauerako data hartua zuelako, andre guztiek ahapeka xuxurlatzen zutena hiri esateko ausardia erakutsi zinan Mawdok: bahuela emaztekidea, alegia. «Zahartzen ari dun ama. Bizitzako kolpeak eta etsipenak ahuldu ditene bere bihotza. Haur hau errefusatzeko badut, ama hil egingo dun». Sendagileak zion hori, ez semeak. Pentsa, anaiaren alaba, Nabouk berak kontu handiz hazia, semeak gaitzetsia. Zer lotsa jendearen aurrean!

«Ama lotsaz eta nahigabez heriotzara bidean ez jarzearren» hartua zinan Mawdok eztei gaueko hitzordura joateko erabakia. Lege basati haien alde barrenak sutan, zer egin zezakeen Mawdo Bâk moral zaharrea tinko errotutako amaren aurrean? Lan astunak akituta, zahartzen ari zunan; gainera, erresistentzia ñimiñorik ere erakutsi al zuen? Borroka egiteko gogorik? Nabou txikia hain zunan tentagarri...

Horra ba, Aissatou, hortik aurrera hik ez huen axola. Denbora eta maitasuna kili-kolo hire supazterrean? Berehala ahazten diren huskeriak ditun. Hire haurrak? Ez zitenan eragin handirik izan ama bere “gizon bakarrarekin” berradiskidetu zenean. Hik ez huen deus ere axola, hire lau seme-alabek ere ez: horiek ez ditun sekula Nabou txikiaren pareko izango.

Nabou txikiaren haurrak goratuz, griotek esango ditene: «Odola bere iturburura itzuli da».



Hire seme-alabek ez zitenan axola. Mawdoren amak, printzesa horrek, ezin zinan bere burua bitxi-saltzailearen semearen pareko ikusi.

Gainera, bitxi-saltzaile batek ba ote du duintasunik, ohorerik? Hik bihotzik eta haragirik ba ote dunan galdetzea bezala zunan. Ai! Batzuentzat, bitxi-saltzailearen ohorea eta samina gutxiago ditun, askozaz ere gutxiago, *Guélewar*<sup>19</sup> baten ohorea eta samina baino.

Mawdok ez hinduen etxetik botatzen. Bere beharretara joaten zunan hura, eta hi etxean geratzea nahi zinan. Nabou txikia amarenean biziko zunan; heu baihaiz Mawdok maite duena. Bi egunetik behin, amarenera joango zunan, gauez, beste emaztea ikustera, bere ama “hil ez zedin”, “beharra betetzearren”.

Zenbateraino bikain izan hintzen hi, hire zorionarekin sator-lanean ibili zirenak baino!

Konponbideak aholkatzen zitiztenan: «Fruituak ematen ari den arbola ez dun sutara botatzen».

Mami-mamian mehatxu egiten zitenan: «Mutikoak ezin ditun aita gabe aurrera atera».

Ez hien jaramonik egin.

Garai batean emazte hezigaitzen burua makurrarazteko balio izan zuten egia borobilek ez zitenan miraria lortu; ez hinduten hire aukeratik desbideratu. Haustea aukeratu huen, itzulerarik gabeko ihesa egitea hire lau mutikoekin, Mawdorentzat gutun hau begi bistan lagata biona izan zen ohe gainean. Zehatz asko zeukanat go-goan haren edukia:

*Mawdo:*

*Betebeharrak ohoratzearen, printzeek sentimenduak menderatu ohi ditiztek. “Besteok”, berriz,*

19 Sineko printzesa.

garondoa makurtuz, isilik onartzen diagu umiliatzen gaituen zoria. Hara, gure gizartearen bereizketa burugabearen barne araudia koadro laburrean. Ni, ordea, ez nauk horra makurtuko. Ez diat hik gaur eskaintzen diadaana jarriko geurea izan zen zorionaren trukean. Hik, maitasuna, besterik gabe, maitasun fisikotik banandu nahi duk. Haragizko komunioa, gutxieneko neurri batean bederen, bihotzaren onarpenik gabe ezinezkoa dela ihardesten diat nik.

Umeak egiteko gai bahaiz gainbehera datorren ama baten harrokeria asetzeko baino ez bada ere, doilor aurkitzen haut. Horratx, zilipurdi egiten duk nik etengabe jaso haudan duintasun mailatik behera. Ezin diat onartu banatzeko ematen duan arrazoia: alde batetik, neu, «hire bizitza, hire kuttuna, hire aukera»; bestetik, «Nabou txikia, halabeharrez jasan behar dudana».

Gizakia bakarra duk, Mawdo, handitasuna eta aberetasuna nahasian. Haren keinu bakar bat ere ez duk guztiz garbia. Haren keinu bakar bat ere ez duk aberekeinu huts.

Hire maitasunetik eranzten nauk, hire izenetik erauzten. Balio didan jantzi bakarraz, duintasunaz, jantzita, banoak nire bidean.

Adio,

Aissatou.

Eta joan egin hintzen. Kemen harrigarria erakutsi huen heure burua babesteko. Etxe bat alokatu, eta bertan jarri hintzen bizitzen. Eta, atzera begiratu gabe, etorkizunari so jarri hintzen egoskor. Asmo zaila aukeratu huen; eta nire presentziatik eta bultzadatik areago, liburuek salbatu hinduten. Hire babesleku gertatuta, liburuek eutsi zinaten.

Liburuen ahalmena giza inteligentzia azkarraren as-  
mamen liluragarria dun. Hotsetan bildutako zeinu asko-  
tarikoak; hitza moldeatzen duten hots ezberdinak. Ideia,  
pentsamendua, historia, zientzia, bizia sortzen duten hi-  
tzen antolamendua. Harreman eta kultura tresna baka-  
rra, hartzeko eta emateko bitarteko ezin hobea. Liburuek  
lotzen dituzten belaunaldiak aurrerapen iraunkor ber-  
berera. Haiek altzarazi hinduten. Haiek eman zintzen  
gizarteak ukatu zinana. Arrakastaz egindako azterketek  
Frantziara eramane hinduten hi ere. Interprete Eskolak  
Senegalgo enbaxadarako izendapena ekarri zinan Estatu  
Batuetan. Bizitza nasairako adina irabazten dun. Hire gu-  
tunek diotenez, erosotasunean habil, gozamen hutsalen  
bilatzaileengandik eta atxikimendu errazetatik ihesi.

Mawdo? Bere familiarekin loturak berritzen. Diakha-  
koek hartua zaukaten bere etxea; Diakhakoek eusten  
baitiote Nabou txikiari. Baina Mawdok jakin, bazakin,  
alde ederra dagoela hire eta Nabou txikiaren artean; hain  
ederra hi, hain gozoa. Hik bahekien senarraren kopeta  
eztitzen; erabat doakoa baitzen hik eskaintzen hion ba-  
rru-barruko samurtasuna; hik bahituen senarra arintze-  
ko hitz egokiak.

Mawdo? Zer ez zinan ba esaten? «Galduta nagon. Egina  
dagoen gizonaren ohiturak ez ditun aldatzen. Alkandora  
eta praka lehengo tokian bilatzen ditinat, hutsa baino ez  
dinat ukitzen».

Ez naun Mawdoren erruki.

«Nire etxea Diakharen auzoa baino ez dun. Ezin dinat  
bertan atsedetik hartu. Dena zikin. Nabouk bisitariet  
ematen zizkien nire janari eta jantziak ».

Mawdoren erasiari entzungor egina nagon:

«Norbaitek esan zidan atzo Aissatourekin ikusi  
hindutela. Egia al da? Han al dago? Nola dago? Eta nire  
semeak?».

Ez zionat Mawdori erantzuten.

Enigma baitzen Mawdo niretzat, eta bere bidez, baita gizon guztiak ere. Hik alde egiteak erabat hautsita utzi zinan. Nabarmena zunan haren goibeltasuna. Hitaz mintzatzen zenean, ahotsaren gorabeherak gogortzen zitinan. Baina haren itxaropen galdu aireak, etxeko kritika mingotsek, dena hankaz gora jartzen zuten purrustadek, ez zitenan ekiditen Nabou txikiaren sabela bete-beteaz azaltzea aldi-aldi. Bi mutiko jaiok zintunan ordurako.

Begi bistakoak ziren gertaera haien aurrean, Mawdo haserre suminetan jartzen zunan, Nabou txikiarekin zintuen harreman intimoen adierazle. Beraren begiradak zigortzen nindinan: «Ea, ez ezan tentelarena egin. Nola nahi dun gizon bat sorgor izatea garatzen ari den emakumearen aurrean, etxean harekin etengabeko harremanetan egonik?». Eta, hori erakusteko, zera gehitzen zinan: «Film bat ikusi dinat, hegazkin istripu batean bizirik ateratakoek hilotzen zatiak janez iraun zutenekoa. Gertaera horrek arrazoi ematen zien gizakiarengan ez-kutu dauden grinei. Burua oso argi badu ere, grina horiek mendean hartzen dituen gizakia. Hustu hadi gehiegizko ameskeria sentimentaletik. Onar ezan errealitatea bere itsuskeria zakarrean».

«Ezin zaion jantzia eta janaria exijitzen duen ezinbesteko legeari kontra egin. Lege berak bultzatzen din “harra” beste nonbaitera. Eta, “harra” esatean, zuzen ari naun, senaren aberekeria markatzeko... Ulertzen dun... Behin betiko ulertu behar din emakumeak, eta barkatu; ez din sufritu behar haragizko “traizioak” direla eta. Hor dagoena dun garrantzizkoa, bihotzean dagoena, alegia; horrek batzen ditin barnean bi izaki...». (Eta bularra jontzen zinan bihotzaren parean).

«Erresistentziaren azken mugetan estu-estu hartua, eskura daukadanarekin janaritzen naun. Itsusia bada ere hori esatea. Itsusia dun egia ere, aztertzen dugunean».

Horrela, bere burua zuritzeko, “janari”aren mailara jaisten zinan Nabou txikia. Eta, horra, “ahogozoa” aldatzeko engainatzen ditizten gizonek emazteak.

Begiak lauso nengonan. Uler nezala eskatzen zidan. Baina ulertu, zer behar ninan ulertu? Grinaren nagusitasuna? Iruzur egiteko eskubidea? Aldaketa gogoaren aitzakia? Ezin nindunan poligamo joeraren aldeko azaldu. Beraz, ulertu, zer ulertu?

Ai, zein bekaizti nintzen hire azken egonaldiko lasaitasunaz! Han hengoen hi, oinazearen maskaratik aske. Iragarritakoaren aurka, hire semeak egoki ari zitunan hazten. Hi ez hintzen Mawdori buruz larritzen. Bai, ondo hengoen, joana hankapean zapalduz. Tinko hengoen, eta kausa oker baten kaltetu errugabea eta bizi berri baten lehen eragile ausarta hintzen.



## 13

Hirea baino hiru urte geroago gertatu zunan nire drama. Baina, hire kasuan ez bezala, drama sorrarazi zuena ez zunan izan nire ezkon familia. Modou nire senarrarengan hartu zinan dramak erroa.

Batxilergoko azterketa prestatzen ari zela, nire alaba Dabak sarri ekartzen zitinan etxera ikaskideak. Neska berbera gehienetan, uzkur samarra, lotsatia, hauskorra; bistakoa zenez, gure bizigiroan ondoeza sentitzen zuena. Baina zein polita, haurtzaro amaieran, beraren jantzi kolore-galdu garbietan! Distira egiten zinan haren edertasun gardenak. Nola ez zuten ba lilura eragingo haren gorputzeko kurba harmoniatsuek!

Noizbehinka ikusten ninan Modou bi ikasleez interesa agertzen. Ez zinan niregan inolako kezkarik sortzen; Binetou autoan eramateko aurreratzen zenean ere ez. «Berandu baita», zionan Modouk.

Baina, orduan, Binetouren aldaketa nabaria gertatzen hasi zunan. Bat-batean, *prêt à porter* garestiak jantzita etortzen zunan. Alabari azalpenak ematean, barre egiten zinan: «Agure baten poltsikotik ateratzen dinat ordaintzeko dirua».

Egun batez, eskolatik itzultzean, Binetouk arazo larri bat zuela aitortu zidan Dabak:

—*Prêt à porter* jantziak erosten dizkion aitonak Binetouekin ezkondu nahi du. Imajina ezazu. Batxiler azterketarako hilabete gutxi falta direnean, gurasoek eskolatik atera nahi dute, agure horrekin ezkontzeko.

—Ezezkoa emateko esaion, erantzun nionan.

—Eta, aitona horrek txalet bat eskaintzen badio, eta Mekara erromesaldia gurasoentzat, eta autoa, eta hileroko diru-sarrera, eta bitxiak?

—Horrek guztiak ez din gaztetasunaren kapitala berdintzen.

—Zeuk bezala pentsatzen dut, ama. Ez amore emateko esango diot Binetouri; baina hain gogo bizia dauka bere amak erdipurdiko egoeratik ateratzeko, eta hainbesteko damua du alabaren edertasuna egurrezko suaren ke artean lizuntzen ikustean, ezen bekaizti begiratzen baitio nik daramadan guztiari; egun osoan ari da marmarrean.

—Binetou dun inporta dena. Ez dezala amore eman.

Egun batzuen ostean, hizketa berritu zinan Dabak, ondorio harrigarriak utzita.

—Ama! Binetou, ozpinduta, “agure”arekin ezkontzera doa. Hainbeste negar egin du bere amak! Gizonak agindu bezala, “benetako etxe batean” eman nahi dio bizitzari azkena, ea ez al dion “pozaldi” hori oparituko esaten dio alabari. Beraz, Binetouk amore eman du.

—Noiz dira ezkontzekoak?

—Datorren igandean. Baina ez da festarik egingo. Binetouk ezin ditu jasan lagunen isekak.

Eta Binetou ezkondu egin zuten hurrengo igandeko egunsentian. Arrandiaz eta ospez jantzita, Modouren anaia Tamsir nire etxera zetorrela ikusi ninan, Mawdo Bâren eta auzoko imanaren artean. Nondik zetozen beren bubu almidoiztatuetan hain uzkur? Modouren bila zetozenan dudarik gabe, hiruretako batek bere gain hartutako misioa, garrantzi handikoa nolanahi ere, betetzera. Modou goizetik alde egina zela esan nienan. Barrez sartu zitunan, alde guztietatik nabari zen intsentsuaren usain sentsuala gogor barreiatuz. Haien aurrean eseri nindunan, barrez neu ere. Imanak hartu zinan aurrea:



—Ala guztiahaldunak bi izaki bata bestearen ondora ekartzen dituenean, ezin du inork ezer egin aurka.

—Hala da, bai —azpimarratu zuten beste biek.

Etenaldia. Eta, arnasa hartu ondoren, jarraitu zinan:

—Ezer ez da berri mundu honetan.

—Ez noski —goraipatu zitenan Tamsirrek eta Mawdok.

—Mingarria zaigun gertaera, beste asko baino gutxiago gerta liteke mingarria.

Axioma horiek jaurtitzen zituzten ezpainen erdeinuzko mimikari jarraitzen nionan nik, zorioneko ala zorigaiztoko gertaeraren sarrera ote ziren jakin nahian. Nora iritsi nahi ote zuen beste ezer baino gehiago ekaitza adierazten zuen aitzinsolas harekin? Beren etorrera ez zunan, beraz, ustekabea. Ematen al da ba zoritxar baten berri hain dotore jantzita? Ala konfiantza eman nahi zidaten antzezipen hain perfektua eginda?

Bertan ez zegoenarengan pentsatu ninan. Lakioan harrapatu berri den basapiztiaren orroaz galdegin ninan:

—Modou?

Eta imanak aurkitu zinan azkenean bila zebilen hari gidaria, eta ez zinan lagako. Bizi-bizi lotu zitinan hitzak ahoan, txingarrak bailiran:

—Modou Fall, bai. Zorionez, bizirik hiretzat eta gu guztiontzat, Jainkoari esker. Bigarren emaztea hartu baino ez din egin gaur. Dakar Handiko meskitatik gatozan, han ospatu baita ezkontza.

Imanak laharrek bidetik baztertu ondoren, Tamsir ausartu zunan:

—Modouk eskerrak ematen dizkin. Zera zionan: hala-beharrek erabakitzen duela gauzei eta pertsoneri buruzkoa. Jainkoak bigarren emaztea eman zionan, berak ezin din hor ezer egin. Zorion hitzak baino ez ditin hiretzat, gizaldi laurden batez ezkontide izan haizelako, emazteak senarrari zor dizkion atsegin guztiak eman baitizkio.

Haren senitarteak, batez ere neuk, anaia nagusia naizenez, eskertzen dinagu. Ohoratu gaitun. Modouren odol-leko garella badakin.

Eta, gero, gertakaria arindu nahian, betiko hitz jarioa: «Etxea handia bada ere, eta bizitza gozagarria, heu haiz bakarra etxe honetan. Heu haiz lehen emaztea, Modouren ama. Eta kuttuna».

Tamsirren eztarrian dantzan ari zunan Adamen sagarra. Eskuin hanka tolestatuaren gainean gurutzatuta, ezkerrekoa astintzen zinan. Haren oinetakoek, babutxa zuriek, hauts geruza gorri arin bat zeukatena, ibili zuten bidearen kolore. Hauts berbera zegonan Mawdoren oinetakoei itsatsia. Baita imanarenei ere.

Mawdo isilik zegonan. Bere drama hausnartuz, nonbait. Hire gutunean zinan burua, hire erreakzioan, hain bainintzen heure antzekoa. Ez zunan fio. Garondoa markur zegonan, borroka baino lehen galtzaile direla uste dutenak bezala.

Erretzen ninduen edenaren eraginpean bazen ere, baiezkoa eman ninan: «Gizaldi laurden batez ezkontide», «parekorik ez duen emaztea». Haria non eten den atzeman nahian, atzerakako kontuak ateratzen nitinan, eta baita dena harilkatu ere une horretatik aurrera. Amaren hitzak zetozkidan: «Ederregia, perfektuegia». Eta amaren burutazioa bere amaierarekin osatzen ninan: «Egia izateko». Eten zabal batez bereizitako goiko bi ebakortzetan pentsatzen ninan, maitasunak duela lehentasuna pertsona horrengan, alegia. Moudoren egun osoko absenzian pentsatzen ninan. «Bazkal garaian ez egon nire zain» esan baitzuen, besterik ez. Beste absenzietan pentsatu ninan, hain sarriak azkenaldian, gordin asko agerian jarriak gaur eta sindikatuko aitzakiarekin trebeki estaliak atzo. Jan-edanaren erregimen zorrotza jarraitzen zinan, gainera, barrez zioenez «sabeleko

arrautza» puskatzeko; zahartzaroa iragartzen zuen sabel hanpatuko arrautza, noski.

Arratsero, etxetik irteten zenean, jantzi bat baino gehiago probatzen zitinan, bat hartzeko. Besteak, larritasunez albora utziak, lurrean zeutzanan. Tolestatu eta txukun jaso behar izaten nitinan; eta orain jabetzen naun beste emazteki bat seduzitzeko baino ez nuela egiten gehigarriko lan hori.

Ahaleginak egiten nitinan nire barren zurrunbiloari harresia ipintzeko. Batez ere, bisitariei nire nahasmena kontatzeak emango zien betetasuna ez emateko. Irribarretsu, arinkeriaz hartu ninan gertaera, berek egin zuten bezala. Beren betebeharra gizalegez bete dutelako esker ona adierazi. «Aita on eta senar gozo», «adiskide bilakatutako senar», esker on horiek Modouri itzuli. Nire ezkon familiari, imanari, Mawdori esker hitzak adierazi. Irribarretsu. Edatekoak eskaini. Oraindik xurgatzen ari ziren intsentsuaren kiribilen arteko bidean lagundu. Haien eskuak estutu.

Oi, zein pozik zeuden Mawdo ez besteak; zehatz hartzen baitzuen hark gertakariaren neurria.



## 14

Azkenean bakarrik, ezustekoari bidea libre uzteko eta nire nahigabeari neurria hartzeko. Ai, bai! Lehiakidearen izena galdetzea ahaztu zaidan, horrela giza itxura eman ahal izango niokenan nire zoritxarrari.

Ez zunan nire galdera luzaroan erantzunik gabe geratu. Berehala etorri zitunan Dakar Handiko ezagunak ospakizunaren zehaztasunak argitzera, benetako adiskidetasunagatik batzuk, Binetouren amak ezkontzatik atera zuen etekinagatik amorru bizian eta bekaizti bestek.

«Ezin dinat ulertu». Haiek ere ez zinaten ulertzen Modou, nortasun handiko gizona, nola sar zitekeen azken muturreko *ndol*<sup>20</sup> familia batean.

Binetou, nire alaba Dabaren adineko haurra, nire emazte-kide mailara igoa, eta berari aurre egitera behartua ni. Binetou lotsatia! Modou zunan jantzi zaharrituen ordeztatik *prêt à porter* berriak erosten zizkion aitona. Tuntuna ni, uste izan bainuen ez zela inoiz ere beteko zahartzarora heldutako buruan zebilen ametsa, eta uste horretan hustu nitinan nire sekretuak aurkariaren alabarengan. Dena aitortua zinan: txaletarena, hileroko diru-laguntzarena, gurasoei agindutako Mekarako bidaiarena, dena. Neurria hartzen ari zen gizona baino indartsuagoa zela uste izan zinan. Ez zinan Modouren nahiaren indarra eza gutzen, trabaren aurrean erakuts dezakeen ahalegina,

---

20 Eskasian daudenak, behartsuak.

irabaztearen harrokeria, galtzen duen bakoitzean burura datozkion eraso berriak...

Bere harrotasunean minduta, amorru bizian zegonan Daba. Binetouk aitari eman zizkion ezizen guztiak errepikatzen zitinan: Aitona! Tripazorroa! Agure zaharra!... Bere bizitzaren sorburua zikindua zunan egunero, eta berak onartzen zinan. Haserre gorriak harrapatu zinan Daba. Bazekinan egiazkoak zirela bere adiskide laztanaren hitzak. Baina zer egin zezakenen Binetou bezalako haur batek bizi gose-egarria orroka darion ama baten aurrean?

Binetou, beste askoren antzera, “materiaren” aldarean oparitutako bildotsa baino ez dun. Egoera aztertzen zuen neurrian, hazten zihoanan Dabaren amorrua: «Hautsi, ama! Bota gizon hori. Ez zuri, ez niri, ez digu errespeturik erakutsi. Egizu izeba Aissatouk bezala, hautsi. Hautsi egingo duzula esadazu. Ez zaitut gizon bategatik lehian ikusi nahi nire adineko neska batekin».

Engainatutako emakume guztiek diotena esaten nionan neure buruari: Modou esnea balitz, neuk izan dinat esnegain guztia. Geratzen dena, bada, ura baino ez dun, nolabaiteko esne usainarekin.

Baina azken erabakia neure esku zegonan. Modou etxetik kanpo gau osoan (burutua ote zuen ezkontza?), eta aholkua dakarren bakardadeak bidea ireki zidan arazoa bere neurrira mugatzeko.

Alde egin? Gizon batekin eman hogeita bost urte, bi-tartean hamar haur mundura ekarri, eta berriro hutsetik hasi? Ba ote nuen neuk bakarrik nahiko indar erantzukizun moral eta material horren pisuari eusteko?

Alde egin! Marra bat marraztu joanaren muga. Orriari buelta eman; dena distira izan ez bazen ere, garbia behintzat bazunan. Handik aurrera gainean grabatuko zenak ez baitzuen ez maitasunik, ez konfiantzarik,

ez handitasunik, ez itxaropenik edukiko. Nik ez ditinat inoiz ere ezagutu ezkontzaren ifrentzu ustelak. Ez ikasi! Ihes egin! Barkatzen hasten baldin bahaiz, hutsen uholdea zatorren gainera, eta ez daukan barkatu beste erre-medorik; barkatu beste behin ere, barkatu beti. Alde egin, saldukeriatik urrutira joan! Parte naizen senarraren zain neure buruari galderarik egin gabe, hotsik txikienari belarria erne jarri gabe egin lo.

Ezagutu ditudan nire belaunaldiko emazte utziak banan-banan zenbatzen nitinan.

Ezagutu ditinat, ezagutu, geratzen zitzaien gaztetasun oparoaz baliatuta, egoera ona eta lerdentasuna batzen zituen gizona bereganatu ahal izango zutenak, «zihoana baino mila bider hobea». Emakume horien patua miseria zunan, baina miseria atzera egiten zinan masailak borobilduz eta begiak dizdiz jarriz, bizitza aldatzen zien poz berriak betetzen zituen neurrian. Berritze ororen itxaropena galdutakoak ere ezagutu ditinat; azkar asko eraman ditin lurpera bakardadeak.

Halabeharraren jolasa ezin arakatua dun. Auzoko emaztekiak nire aurrean galbahera botatzen dituen kauriak ez zaizkidan optimismorako komeni, ezta, isekaren sinbolo, beren zulo beltz irekia erakusten didatenean ere, ezta zera adierazten didatenean ere, beren bizkar zuriak denak pilan: badatorrela niregana, aberastasunaren agintzari, «bi prakadun gizona»<sup>21</sup>. «Gizona eta aberastasuna, ez hau horietatik bereizten bi kola zuri eta gorrien limosnak baino», gehitzen zidan auzoko Farmatak.

Eta behin eta berriz: «Esaera zaharrak egia zion: hemengo konpondu ezina, beste nonbaiteko aukera gerta daiteke. Zergatik ez dun sinesten? Zergatik ez haiz haustera ausartzen? Baloi bat bezalakoa dun emakumea;

---

21 Botere soziala duena izendatzeko esapidea.

baloi hori jo duenak ez zakin zenbat jauzi egingo dituen. Baloia pirritan doan zorua ezin baitu menderatu, are gutxiago nork harrapatuko duen jakin. Uste ez genuen esku batek harrapatzen baitu sarri...».

Eskupeko gizenak amets dituen auzoko griot endreda-makilari jarraitu ordez, neure buruari begira jarri nindunan ispiluan. Eta ispiluaren elokuentzia nire begietara begira jarri zunan. Desagertua zunan nire argaltasuna, eta nire mugimenduen txairotasuna eta bizkortasuna. Nire sabela nabarmen ageri zunan txiki-txikitatik ibilitako kilometroek sendotutako zangoak disimulatzen zituen oihalaren azpian. Hainbeste umealdiren ostean, bularrek galdua zitenan borobiltasuna eta tinkotasuna. Alde zeginan gaztetasunak nire gorputzetik; ezin ninan amets egin!

Urteen joanean, emazteak beregana atxikitzeke indarra berritzen duen bitartean, gero eta gehiago murrizten zaion gizonari samurtasunerako eremua, lagunaren zahartzea gorabehera. Beraren begi egoistak emaztearen bizkar gainetik begiratzen din. Dagoeneko ez daukanarekin konparatzen din eduki duena, eta daukana, eduki lezakeenarekin.

Nahigabe asko entzuna naun neurea ez ulertzeko. Hire kasua, Aissatou, eta beste emakume askorena. Gutxietsiak, zokoratuak edo trukean emanak. Askok erabilitako edo modatik kanpo geratutako bubu urratuak bezala bazterrera utziak. Zorigaitzak harrapatzen hauenean, indarra behar dun gero hari gaina hartzeko. Badoan segundo bakoitzak bizitza murrizten digula pentsatzen badugu, suharki aprobe txatu behar dun segundo hori, galdutako edo irabazitako segundoen bildumak erabakitzen baitu bizitza hutsegina den ala irabazia. Etsipenari hesia jartzeko eta bere neurri propiora mugatzeko gihartu beharra zagon! Bigun jokatzuz saminari gaina



harrapatzen uzten badion, bertan dun kirioen depresioa. Apurka-apurka, hire izatearen jabe gertatuko dun.

Oi! Kirioen depresioa! Haiei ez balegokie bezala mintzatu ohi ditun klinikoak, burlaizez, eta ohartarazten dituen hire bizi organoak ez daudela ukituak. Egia dun, erradiografiak inoiz ere baieztatu ez dituelako, hire gaitzen zerrenda egunetik egunera luzeagoarekin asper-asper eginda daudela esaten ez dinaten bitartean —burua, eztarria, bularrak, bihotza, gibela—. Hala eta guztiz ere, zein gaiztoak kirioetako depresioak eragindako minak!

Jacquelinengana zoakidan burua, harrapatu egin baitzuten. Boli Kostako Jacqueline, guraso protestanteen aginduari uko eginez Samba Diack sendagilearekin ezkondua. Mawdo Bâren promoziokoa zen sendagile hura, Afrikako Medikuntza eta Farmazia Eskolatik irtetean Abijanera bidalia. Sarri bisitatzen gintinan Jacquelinek, gureak ikustera etorri ohi baitzen senarra. Senegalera itzultzean, mundu berri batean hartzen zinan lur: erreazioetan ezberdin, izaera eta burubideetan ere bai, bera hazi zen lekutik urrun. Horrezaz gainera, senarraren gurasoek —gurasoak tartean beti— are haserreago begiratzen ziotenan Mahomaren erlijioa hartu nahi ez zuelako eta igandero protestanteen tenplura joaten zelako.

Beltza eta afrikarra bera, zer aitzaki izan zezakeen herri beltz eta afrikarrean txertatzeko, Frantziako kolonizatzaile berberaren eskuetatik iraganak izanik, gainera, Senegal eta Boli Kosta? Afrika, ordea, ezberdina dun, pusketaz osatua. Behin baino gehiagotan aldatzen dun aurpegiz eta pentsamoldez lurralde berberean, iparretik hegora edo ekialdetik mendebalera.

Senegaldar bilakatzeko gogoa zeukanan Jacquelinek, baina isekkek itotzen zitenan beregan lankidetzarako

gogo guztia. *Gnac*<sup>22</sup> deitzen ziotenan, eta, goitzenaren esanahia jakin zuenetik, asaldura bizian jartzen zunan hitz hori entzun orduko.

Senarrak, jatorriz urrutikoa, senegaldar emazteki “finen”, hala zionan berak, usnaka pasatu ohi zinan denbora librea, bere abenturak ezkutatzeko ezaxola eta emaztea eta haurrenganako errespetuaz ardura izpirik erakutsi gabe. Hain neurrigabekoa zunan bere axolarik eza, ezen, Jacquelineen begi aurrean ipintzen zitinan portaera txarreko froga ezin ukatuzkoak: maitasun hitzak, hartzaileen izenak zeramatzaten txekeak, jatetxeetako eta ostatu geletako fakturak. Negar zeginan Jacquelinek, parrandarekin erantzuten zinan Samba Diackek. Argaltzen ari zunan Jacqueline. Samba Diack, “juerga betean” zebilenan egunero. Behin batez, kexu zunan Jacqueline, bola mingarria zuela bular aldean, ezkerreko bularraren azpian; handik bizkarreraino punta zorrotz batez zulatua zegoelako irudipena zuela. Zotinka ari zunan. Mawdok auskultatu zinan: «Bihotzean ez duzu ezer», esan zionan. Eta lasaigarri bat errezetatu. Min maltzurak estu hartuta, gogoz irentsi zitinan Jacquelinek pastilla haiek. Flaskoa amaitu zuenean, mina eragiten zion bola leku berean zegoela ohartu zunan; hasierako zorroztasun berberaz estutzen zinan.

Bere aberriko sendagile bati aitortu zionan bere gaitza; elektrokardiograma bat eta hainbat odol analisi agindu zizkionan. Bihotzeko elektrokardiograman, ezer ez; ezer anormalik ez odolean. Lasaigarri bat agindu zionan hark ere: Jacqueline gajoaren larritasuna desagerrarazi ez zuten konprimitu eferbeszente lodiak.

Gurasoengana joan zitzaionan burua, ezkontzari ezezkoa eman izanaren arrazoiak bila. Gutun zirrargarri bat

---

22 Senegaldarra ez dena; nagusikeriazko mespretxu-kutsua du.

idatzi zienan barkamena eskatuz. Gurasoen bedeinkapena heldu zitzaionan, benetakoa, baina ez zionan inolako aurrerapenik ekarri bularreko larritasunaren aurka.

Eraman zitenan Jacqueline Fann ospitalera, Ouakam bidean, unibertsitatetik gertu. Aristide Le Dantec ospitalera bezala, horra ere bidaltzen ditin unibertsitateak medikuntzako ikasleak, egonaldiak egitera. Ospitale hori ez zunan existitzen Mawdo Bâ eta Samba Diack Medikuntzako eta Farmaziako Eskolako ikasle zirenean. Baditin eraikin autonomo batzuk, elkarren artean hobeto komunikatzeko zerbitzu anitz babesten dituztenak. Masa handikoak eta asko izanik ere, eraikinak ez ditin ospitalea jasoa dagoen eremua betetzen. Hara iristean, han sartzen zituzten zoroengan pentsatu zinan Jacquelinek. Azaldu behar izan zitzaionan zoroak psikiatrikoan zeudela, eta *buruko gaixoak* deitzen zitzaie eta etxe hartan. Ez zirela erasokorrak, bestalde; erasokorrak Thiaroye ospitale psikiatrikoan zeudela. Jacqueline neurologian zegonan. Eta bisitatzera joan ohi ginenok ikasi geninan ospitaleak bazuela tuberkulosia zaintzeko zerbitzu bat ere, baita gaitz infekziosoak zaintzekoa ere.

Han zegonan Jacqueline ohean etzanda. Bere ile eder beltzak sakabanatuta, medikutik medikura hasi zenez gero ez baitzuen inolako orrazik askatu buru gaineko mataza. Babesteko zeraman buruzapia alde batera edo bestera mugitzean, agerian gelditzen zunan guk ekarri ohi genion sustraiz egindako nahastura; izan ere, zer ez genuen egin gure ahizpa infernu hartatik ateratzearren? Hire ama zunan, Aissatou, gure ordeztasun sendatzaileei galdetzera joan ohi zena. *Safara*<sup>23</sup> ekarri ohi zigunan

---

23 Ur bedeinkatua, erregu eta dei egiteko erabilia, gaitzei aurre hartzeko zein haiek sendatzeko.

bere ikustaldietatik, eta heuk azkar-azkar betetzen hituen sakrifiziorako arauak.

Heriotzan pentsatzen hasia zegoan Jacqueline. Beldur eta aztoramen, eskua bularrean, zain zegoan, lakio guztiei iruzur zegien bola ikusezin eta iraunkor haren beldur, lasaigarri guztiei iseka egiten baitzien azerikeriaz. Letretako irakasle bat zeukanan Jacquelinek gelakide, Saint Louiseko Faidherbe lizeoan irakasle laguntzaile teknikoa zena. Dioenez, Saint Louisen ezin izan din eza-gutu ibaia pasatzeko zubia baino. Eztarriko minak, batbatekoa bezain jasanezinak, zerbitzua hastea eragotzi zionan, eta hona ekarri zitenan, herriratzeko zain.

Sarri egon ohi naun berari begira. Neskato izateko zaharregi. Hezurretaraino argal, atxikimendurako xarmarik gabea. Ikasketak izan zitinan nonbait gazte garai-ko denbora-pasa bakarra. Zakarra; pasioen indar guztiari ateak itxi zizkionan, antza denez. Bakardadeak behartu din, nonbait, aldaketa bilatzera. Senegalen irakasle plaza bat lortzea izan dun, dirudienez, ihes egiteko amets-bidea. Horrela etorri zunan, baina amets guztiak hilotz, itxaropen guztiak huts, itsaso urdinaren koloreko puntu zuridun lepoko zapiak bularralde zurbiletik bereizten duen eztarriaren aurka bildu ditun isilik gordetako asaldurak oro. Eztarria estaltzen zuen medikamentuak urdintzen zizkionan ezpain meheak, miseriaren gaineko argi printza. Begi argi urdinak zeuzkanan edertasun soil, argitsuak, zeruko grazia bakarra aurpegiaren esker gaiztoan. Jacquelinengan zeuzkanan begiak. Jacquelinek begiratzen zionan. Eztarria ukitzen zinan. Jacquelinek bularrera eramaten zinan eskua. Eta barre egiten genan haien eskuen jolasari begira, alboko gelako gaixoa etortzen zenean batez ere. “Berriketari” egitera, zionan; klimatizatzailearen laztan freskagarriaren kontra jartzen

zinan bere sorbalda, jasanezinak baitzitzazkion beroaren bafadak gorputzaren alde horretan.

Distonia neurobegetatiboaren agerraldi arraro eta anitzak. Argi ibili, doktoreok; neurologo edo psikiatra ez bazarete, batez ere. Adierazten zaizkizuen gaixotasunek galerna moralean baitute sarri beren erroa. Jasandako eskarnioak eta gorputzean non edo non pilatzen diren etengabeko kontraesanek ito egiten baitute azkenean.

Bizitza maite zuenez, Jacquelinek kemen handiz eutsi zianan bata bestearen ondorengo odol hartzei. Behin eta berriz egin zizkiotenan elektrokardiogramak eta biriken erradiografiak. Elektroentzefalograma bat ere egin ziotenan, eta han ageri ziren sufrimenaren arrastoak. Elektroentzefalografia gaseosoa beharrezkoa zela uste izan zunan orduan. Guztiz mingarria dun, ziztada lunbar batez lagundua baita beti. Ohean iltzatua egon zunan egun horretan Jacqueline, inoiz ere baino errukarriago eta izuak hartuago.

Adeitsu agertu zunan Samba Diack, emaztearen hondamenaren aurrean hunkitua.

Egun batez, hilabete osoko tratamendu baten ondoren (zain barneko ziztada eta lasaigarriak) eta bilaketaren ondorioz, gelakide frantsesak bere herrirako bidea hartu zuenean, Jacqueline deitu zinan neurologiako buru egiten zuen sendagileak. Zuhurtziak eta lanbidearen nobleziak ederrago azaltzen zuten gizon bat zeukanan bere aurrean, miseria beldurgarriaren salerosketak —zoramenarenak— garraztu gabeko gizona. Arreta handiz begiratzen ohitutako begi zorrotzez aztertu zitinan Jacquelinek begiak, haren barruan organismoa nahasten zuten itolarrien iturria bilatu nahian. Ahots gozoz, izaki aztoratu harentzat ezti, aitortu zionan: «Diack anderea, zeure burua osasun onean dagoela aitortzen dizut. Erradiografiak ez dute kontrakorik erakutsi, odol analisiek

ere ez. Deprimituta zaude, hori da guztia, hau da... ez zara zoriontsu. Bizi duzun errealitatetik urrun daude nahiko zenituzkeen bizi baldintzak; hori da zure oinazeen iturria. Gainera, zure erditzeak bata bestearen ondoren gertuegi gertatu dira; organismoak bere bizi-zukuak galtzen ditu, eta ez du ordezkorik sortzeko astirik. Laburbilduz, zuk ez daukazu zure bizia arriskuan jartzen duen ezer.

Erreakzionatu egin behar duzu, irten, bizi-arrazoiak bilatu. Goiari eutsi. Apurka-apurka irabaziko duzu. La-saituko zaituzten shock sail batzuk emango dizkizugu. Gero, joan zintezke».

Buruari eraginez eta irribarre sendogarriz baieztatzen zitinan sendagileak bere hitzak, eta hitz haiek ageriko itxaropena sortu zuten Jacquelinengan. Bizkortuta, esan berri ditudan aitopenak egin zizkigunak, eta elkarriketa horretatik erdi sendatua atera zela aitortu. Gaitzaren muina ezagutzen zinan, eta borrokari ekingo zionan. Bere burua zentzatzera behartzen zinan. Urrutitik zetorren Jacqueline!

Zer dela-eta ekarri dudak gogora adiskide honen zorigaitza? Bukaera zorionekoa izan zuelako? Ala, besterik gabe, nik egin dudak aukeraren aitormena atzeratzeko? Neure buruak aukera hori nahi ez, baina hobeto zetorrelako nik Modou Fallekiko sentitzen nuen samurtasun neurrigabearekin?

Bai, argi ikusten ninan non zegoen irtenbiderik onena, duinena. Eta, nire familiaren harridurarako, Dabak eragin arren, nire haurrek denek batera ezetsi arren, geratzea erabaki ninan. Ustekabean harrapatuak, Moudok eta Mawdok ez zitenan ulertzen... Jakinaren gainean, heuk, nire adiskide kuttunak, ez huen, nire bizi-aukera berriaren errespetuz, nire asmo zoro hori burutik kentzeko ezer egin.

Negarretan pasatzen nitinan egunak.

Nire bizitza aldatu egin zunan handik aurrera. Poligamiari dagokionez, prest nengonan Islamaren legearen arabera banaketa onartzeko. Ez ninan deus ere jaso.

Nire aukerarekin haserre, seme-alabek destaina egiten zidatenan. Niri dagokidanez, beraiek zitunan nik errespetatu behar nuen gehiengoa.

—Zure minak ez dira amaitu— iragartzen zidanan Dabak.

Bakardadea zunan nire ingurua. Niregandik ihesi zebilenan Modou. Artaldera itzul zedin adiskideek eta familia-koek egindako ahaleginak alferrikakoak gertatu zitunan. Bikote berriaren gertuko batek aitortu zidanan “txikia” trantzean sartzen zela Modouk nire izena aipatzen zuen bakoitzean eta seme-alabak ikusteko gogoaz azaltzen zuten. Ez zunan sekula gehiago etorri; bere zorion berriak gure oroitzapena estali zinan apurka-apurka. Ahaztu egin gintinan.





## 15

Aissatou, adiskide hori, ez zagon hi eta Nabou txikia aldean jartzerik, esana dinat. Baina aitortu beharra zaukanat ez dagoela Nabou txikia eta Binetou alderatzerik ere. Izebaren ondoan hazi zunan Nabou txikia, bere seme Mawdoren emaztetzat gordea baitzuen. Hortaz, Mawdo izan zinan amets Nabou txikiak nerabezaroan. Begien aurrean edukitzen ohitua, berez, inolako gatazka izpirik gabe, izan zunan harengana erakarria. Neska ez zunan zapuztu haren ile urdintzen hasiengatik; haren begitarte aitontzen hasia lasaigarri zunan gaztetxoarentzat. Gainera, maite zinan eta oraindik ere maite din Mawdo, bataren eta bestearen kezkek eduki bera ez badute ere beti. Izeba Nabouren izaera biziak aurrea hartuta eta bere mendeku gogo amorratuaren esanetara jarria, eskolak utzitako aztarna ez zunan sakona izan Nabou txikiarengan, izeba zaharrak ez baitzuen ezer laga ezustekoaren esku ilobaren heziketan. Izarren azpiko gaubeiletan izan zinan eragina iloba Nabouren ariman, ipuin bitartez batez ere. Haren ahots adierazkorrak gerlariaren errukirik gabeko zigorra goratzen zinan; eta kexu zunan bere mintzo esanguratsuan, dena esaneko zen maitearen egonezinarekin. Alferkeria, maltzurkeria eta saldukeria iraintzen zitinan bitartean, ausarten kemena goraiatzuten zinan; umezur-tzarentzat arreta eta zaharrarentzat begiramena eskatzen zitinan. Animalien antzezpenak eta kantu nostalgikoek hatsanka uzten zitena Nabou txikia. Eta, apurka-apurka, behin eta berriz errepikatzearen indarrez, zalantzari

bide eman gabe, gaztetxoarengan barneratzen zitunan arrazaren handitasuna eta bertuteak.

Ahozko heziketa barneraeraz eta liluragarri horrek bazaukan erantzun ona eragiteko ahalmena harreman zuzenean landutako kontzientzia. Gozotasunak eta eskuzabaltasunak, esanekotasunak eta begiramenak, egiteko eta mintzatzeko iaiotasunak atsegina bilakatzen zitena Nabou txikia. Bizkarrak jaso, *txepela* deitzen zionan Mawdok.

Horrezaz gainera, Nabou txikiak bazinan bizibidea. Ez zinan jarrera erabakitzeko astirik. Aldiriko auzo jendetsu eta gabezia handikoen muturrean, Repos Mandel izena zeraman amaetxeko hurbileko zainketaren erantzule, egunean zehar sarri betetzen zitinan bizi-keinu askatzaileak. Behin eta berriz pasatzen zitunan jaioberriak bere esku trebeetatik.

Leher eginda etortzen zunan lanetik, zaindari eta lanabes egokien urritasuna eta sendagaien eskasiagatik erreta, ohe faltagatik, bere iritzian azkarregi bidaltzen zituztelako erditu berriak etxera, berenak eta bi esanez. Samindu egiten zunan: «Azkarregi uzten da jaioberri hauskorra higienarik gabeko ingurumari bateko gizartearen esku».

Lorik gabeko gauek eta etengabe hartutako nekeek ere jaisten ez duten heriotza-tasaz pentsatzen zinan. Eta amets egiten: «Abentura zoragarria dun jaioberria gizaki sendo egitea! Zenbat amak lortzen dute hori, ordea?».

Bizitzaren eta gabeziaren bihotzean, itsuskeriaren muinean, bere jakituriari eta trebeziari esker, Nabou txikia garaile zunan, baina ezagutu zitinan porrot mingarriak ere; herioren indarraren aurrean, ezina erakutsi behar!

Ondo barneratutako erantzukizunaren jabe eta ikas-  
sía, gainera, heu eta neu bezalako zunan Nabou txikia!  
Adiskide ez badut ere, gure kezka bat zatozan sarri.

Gogorra zela bizitza iruditzen zitzaionan, baina, borro-  
kalari bizkor, ez zunan arinkeriarako egina.

Binetouri dagokionez, askatasun osoan bizi zunan bi-  
ziraupena beste legerik ez zen inguruan. Haren amaren  
ardura nagusia eltzea zunan, eta ez alabaren heziketa.  
Ederra, jostaria, bihotz onekoa, argia; eroso bizi ziren  
familia askotan zinan sarrera, haietan haziak baitziren  
beraren adiskideak. Aukeratutako ezkontzarekin, uko  
zeri egiten zion oso argi zeukanan Binetouk. Biktima iza-  
nik, zapaltzaile izan nahi zinan. Berea ez zen nagusien  
munduan erbesteratua, urrezko presondegia nahi zinan  
beretzat. Garratza zunan, sufriarazi egiten zinan. Saldua  
zunan, egunetik egunera altxatzen zinan prezioa. Garai  
batean pizgarri izandako uko-egiteak, orain, minduta,  
banan-banan zenbatzen zitinan, eta Modou lehertu arte  
saiatzen zunan neurritz gaineko ordaina eskatzen zuten  
uko haiek asetzen. Beren bizimoduko oihartzunak bis-  
tariaren arabera hanpatuak edo gutxituak iristen zitzaiz-  
kidanen. Binetouk ez zinan ezagutzen adin helduaren  
sedukzioa, denboraren gatz eta piper. Eta Modouk hile-  
ro tindatzen zitinan ileak. Modaz kanpoko bere praken  
neurriak hartzen zituenean ere, ez zinan Binetouk irri  
zitalez burla egiteko aukerarik huts egiten. Itolarriraino  
saiatzen zunan Modou alde guztietatik ihesi zihoakion  
gaztetasunari eusten: zorigaiztoko kokots bikoitza, haize  
bolada txiki batek zalantzati eta astun bihurtzen zuen ibi-  
lera. Inguruan, berriz, grazia eta edertasuna. Huts egitea-  
ren beldur zunan, eta, ohartzeko denborarik ez izateko,  
egunero asmatzen zitinan festak, non haur xarmanga-  
rriak, beso arineko ninfak, dantza egingo zuen, irri batez  
eguzkia eta muzin batez tristura sorraraziz. Aztikeriaz

ari zunan jendea. Adiskideen andre taldeak, seriotasun osoz, aurre egiteko eskatzen zidatenan: «Beste edonoren esku uzten al dun hire lan astunaren fruitua?».

Kartsuki adierazten zizkidatenan emazteki gaiztoa uxatuz senarra bere familiara bildu zuten marabuten izenak, jakituria sendokoak. Oso urruti zeukatenan, ordea, bizilekua hitzontzi horiek. Casamance aipatzen zitenan, non sekulakoak baitziren Diola eta Madjago edabe magikoak. Hatza Linguere aldera begira jartzen zitenan, Peulen herria, bai armaz bai marabuten magia mendekuan iaioa. Mali ere aitatzen zitenan, ebakidura sakoneko aurpegi Bamabara herria.

Aholku horiei jarraitzea neure burua zalantzan jartzea izango zunan. Neure buruari botatzen nionan jada etxearen gainbeheraren errua. Modouk beste bidea hartu zuelako neure burua gaitzetsi behar ote nuen ba? Ez, nik ez ninan erreguen aurrean amore emango. Nire arrazoiak eta sinesmenek naturaz gaindiko ahalmenak arbuiatzen zizkidatenan. Arrazoi eta sinesmen berberak erabateko ezetza ematen ziotenan borrokarako gogo oro hutsera daraman xarma errazari. Aurrez aurre begiratzen nionan errealitateari.

Errealitateak dama amaginarrebaren aurpegia zeukanan, zeinak ahokada bikoitzak irensten zituen eskaintzen zitzaion azpiletik. Urrezko bizimoduaren zantzu eta ametsak betetzen ari zitunan. Ahaztua zegonan haren txabola eskasa, zink txapaz eta aldizkari azalez tapizatua, *pin-up* eta iragarkiak alboz albo jarriak zituena. Keinu bat bainugelan, eta hor dun ur beroa, zurrusta zoragarrian, haren sorbalda ferekatzen! Keinu bat sukaldean, eta izotz puskek hozten zitenan basoko ura. Beste keinu bat, eta gasa jariatzen zunan gas-labetik, arrautzopil gozo bat prestatzeko.

Garai batean etxeoandre, aspaldi bazterrera utzia, dama amaginarreba itzaletik argira etorri zunan, eta senar desleial bat bereganatu zinan. Bazitinan baliabideak: parrillan kiskalitako okela, oilasko errea eta, zergatik ez, logelako pertxan zintzilik egon ohi zen gau-jantziaren patrikan lagatako bankuko billeteak. Ez zionan begiratzten, garai batean bezala, Toucouleur kaleko saltzaileari erositako ur erradaren prezioari. Miseria ezagutu ondoren, ditxa berriaz gozatzen zinan. Espero zuenaren erantzuna zunan Modou. Adeitsu, billete-sortak bidaltzen zizkionan hark, eta, kanpora egiten zituen ibileren ondoren, bitxiak eta gau-jantzi aberatsak opari ekartzen. Orduan lortu zinan “eskumutur astuneko” emakumeen maila, griotek kantatzen zuten bezala. Lilura betean entzuten zitinan irratiak haren omenez ematen zituen ereserkiak.

Familiak ohorezko lekuak eskaintzen zizkionan zeremonietan, eta beraren aholkuei jarraitzen zietenan. Modouren auto luzea iritsi eta bera azaltzen zenean, esku-uholde bat luzatzen zunan beregana, bankuko billeteak eskain zituan.

Binetourena ere errealtatea zunan, *night club*etik *night club*era ibili ohi baitzen. Soineko luze garestiz jantzia iristen zunan; urrezko gerrikoz distiratsu zeramanan gerruntze bat, Modouk lehen haurra jaiotzean oparitu-tua.. Oinetakoek zorua mailukatzen zitenan, bera han zela hots eginez. Zerbitzariak, begiramen handiz, bazterrera egiten zitenan eskua luzatuz, sari on baten zain. Destainazko begiradaz goitik behera neurtzen zitinan bera etorri aurretik eserita zeudenak. Milika hazitako umearen keinuz adierazten zionan Modouri zer mahai zuen aukeratua. Azti baten keinadaz, lerroan jartzen zitinan botilak. Gazteen aurrean agertzen zunan, eta arrakasta izateko bere modua inposatu nahi zienan. Ederra eta desiragarria Binetou, nork ukatuko! «Itsutzekoa!»,

jendearen ahotan. Baina, txunditzeko uneak joan zirenean, berak makurtzen zinan burua apaintasun huts gisa gaztetasuna eta aberastasun huts gisa zoriona baino ez zuten bikoteen aurrean.

Musikak batzen zitinan eta banatzen bikoteak, une batean geldo eta limurtzaile, hurrengoan bizi eta deabruzko. Tam-tamaren zoroaldiak lagunduta tronpetak leher egiten zuenean, gazteek hartzen zitenan zorua, musikaren eraginak berotuta, ostikoka, saltoka, jauzika eta zilipurdika, orroka adieraziz beren gozamina; jarraitzeko ahaleginak egiten zitinan Modouk. Argi gordinek errukirik gabeko sarkasmoen eskuetan uzten zutenean, «artegian otsoa» aurpegiatzen ziotenan batzuek. Zer axola! Binetou baitzuen besoen artean. Zorioneko zunan.

Leher eginda, etsipenez begiratzen zienan Binetouk kideen mugimenduei. Berak eraildako bizitzako irudiak berak zartatzen zionan bihotza.

Daba ere joan ohi zunan batzuetan *night club* horietara, nire gogoaren kontra. Apainkeriarik gabe jantzita, mutil-lagunaren eskutik azaltzen zunan; hala nahita, oso berandu iristen zunan, aitaren begi-bistan jartzeko. Aurrez aurreko barregarria gertatzen zunan: bikote itxuragabea alde batetik, bata bestearekin egoki zetorrena bestetik.

Eta gaueko jaiak su ematen zionan azken muturrerainoko tentsioari, garai bateko bi adiskide kontrajarriz: aita bere alabarekin eta suhia aitagarrebarekin.

## 16

Nik biziraun baino ez ninan egiten. Lehendik neuzkan betebeharez gain, Modourenak neureganatu nitinan.

Oinarrizko janariak erosi beharrak mugiarazi egiten nindinan hilaren amaieran. Azokan eskasten zirenean ere, tomate, olio, patata eta tipulen faltan ez egoteko konpontzen nindunan. Senegalgo etxekoandreek oso gogoko dituzten *siam* arroz zakuak biltzen nitinan. Diru-kontuen ariketa berrian saiatzen zunan neure burua.

Argi begiratzen nienan elektrizitatearen eta uraren fakturak ordaintzeko azken datei. Emakume bakarra nindunan, sarri, itxaron lerroan.

Hondatutako ateetan sarraila eta kisketa berriak jarzea eta kristal hautsien ordezkioak ipintzea bezain aspergarria zunan konketa trabatua askatzeko iturgin baten bila ibiltzea. Mawdo Fall, nire semea, marmar bizian ibili ohi zunan bonbilla errearen ordezkio berria jarri behar zuenean.

Biziraun, bada. Lotsatik askatzen nindunan zinemara lagunik gabe joateko; hilabeteak aurrera, gero eta estuasun gutxiagorekin esertzen nindunan zegokidan lekuan. Begien bistara azaltzen zunan lagunik gabeko emakumea nintzela. Ezaxola itxura egiten ninan nik amorruiak kirioak mailukatzen zizkidanean, malkoek begiak lautotzen bazizkidaten ere, eutsi ezinik. Jendearen harri-durazko begiradetan neurtzen ninan zenbateraino den estua emakumeari ematen zaion askatasuna.

Goizeko zinema emanaldiek asetzen ninditenan. Bartzuen eta besteen ikusmirari aurre egiteko kemena ematen zitenan. Ez ninditenan seme-alabengandik luze urrutiratzen.

Zinema, itomenetik askatzeko lasaibide indartsua! Film intelektualak, tesidunak, sentimenduzkoak, poli-ziakoak, barregarriak, suspensekoak; horiek izan zituan nire lagun. Haietatik ateratzen ninan hazteko gogo, kemena eta iraupena. Beren ekarpen kulturalak mundu ikuskera sakontzen eta zabaltzen lagundu zidatenan. Besteen oinazeetan parte hartzean, ahaztu egiten nitinan neureak. Aisialdi merkea denez, gozamen osasuntsua ekar lezaken zinemak.

Bizirauten ninan, bada. Zenbat eta gehiago buruan erabili, neurri berean nintzaionan atseginago Modouri, harreman guztiak moztu nituelako. Iniziatiba neurea izan ez bazen ere, seme-alabek eskatu zidaten irtenbidea ninan: haustura. Gezurra ez zunan garaile atera. Modouk erauzi egin nindinan bere bizitzatik, eta hori oso garbi erakusten zinan bere jarrerarekin.

Beste gizon ezkonduak zer egiten duten? Plisti-plasta ibili beren ezbaian: sentimendurik eta interesik ez dagoen lekuan ezarri beren presentzia. Hori egiten ditene. Ezerk ez ditin inarrostean beren supazterrean: ondo apaindutako andreak, bihotz samurreko seme-alabak, gozo hornitutako janariak. Hor zeuden, harrizko gonbidatu. Bals azkarreko orduen joanaren zain, besterik ez. Gauean, nekea edo gaixoaldia aitzakia, sakon zagiten zurrunga. Gogoz hartzen ditene beren gurutze-bideari amaiera emango dion egun-argia!

Ez nengonan ba oker. Modouk ez zinan batere interesik nigan, eta banekin. Utzia, abandonatua, airean dabilen hostoa jasoko duen eskurik aurkitu gabe; horrela esango zinan amamak.



Ausardiaz egiten nionan bizitzari aurre. Betebeharririk ez ninan huts egiten; horiek betetzen zitenan nire denbora, eta bideratzen nire burutazioak. Baina, gauean, barkardadeak, astun, gaina hartzen zinan.

Ez ditun hain erraz hausten bi izakik ataka gaiztoz zedarritutako bide luzean korapilatu dituzten lotura leunak. Horren bizipena ari nindunan berritzen garai bateko eszena eta berbaldiak gogora ekartzean. Beren orduan, gogora etortzen zitunan garai batean sortutako ohiturak. Gaueko hizketaldi haien behar larria ninan; barre-algara lasaigarri edo konplizeen hutsunea; opioa bezainbat falta zitzaidanan eguneroko gauzak argi jartzeko ordu hura. Itzal beltzekin ninan borroka. Burutapenen noraezak logura uxatzen zidan. Borroka egin orde, gaitzaren itzulinguruka nenbilenan.

Irratien etengabeko emanaldiek laguntzen zidaten. Kontsolamendu eginkizuna ezartzen nionan irratia-ri. Gaueko melodiak larritasuna kulunkatzen zitenan. Lehengo eta oraingo kantuen mezuak barneratzen nintzan, itxaropena pizten baitzidaten. Tristurak alde egiten zinan.

Geratzen zitzaizkidan indar guztiez suhar aritzen nindunan Modouren orde etorriko zen “beste bati” deika.

Gauei esnatze mingarriek jarraitzen zietenan. Amatasun maitasunak zutik eutsarazten zidan. Etxeko zutabe neu, laguntza eta samurtasuna zor nienan etxekoei.

Modouk neurria hartzen ote zion etxe honetan neurri guztien gaintetik zuen lekua hutsik egoteari? Eskaintzen ote zizkidan haurrei eusteko behar nituen indarren gaineko eraginak?

Mintzaira jostalaria hartzen ninan nire batailoia esnatzeko. Inguruak berotzen eta atmosfera usain gozoz lurrintzen zinan kafeak. Aparretan zeudenen bainugelak;

barre-algarak eta txantxak jario. Egun berria ahalegin eske! Egun berria, eta ni, zain...

Zain! Zeren zain? Haurrek ez zitenan erraz onartuko gizon berri baten presentzia. Aita gaitzetsi ondoren, ja-sangarri gertatuko ote zitzaien beste bat? Zer gizon au-sartuko litzateke, bestalde, begiramenik gabe larrua ere kentzen dioten hamabi begi pare etsaien aurrean?

Zain! Zeren zain, ordea? Ez nengonan dibortziatuta... Abandonatuta nengonan: hosto hegalaria bat nindunan, esku batek ere jaso nahi ez zuena, gure amonak esango zukeen bezala.

Biziraun! Hori zunan egiten nuena, ez besterik. Herri-ko garraioen urritasuna ezagutu ninan. Seme-alabek ba-rrez ikasi zitenan hori. Egun batez, Dabak aholku ematen ziela entzun ninan: «Batez ere, amatxori ez esan puntako orduetan itolarria dela autobusetan ibiltzea».

Pozez eta nahigabez, biak batera, negar egiten ninan. Pozez, haurrek maite mindutelako; nahigabez, gauzak al-datzeko ahalmenik ez nuen ama nintzelako.

Orduan, asmo txar izpirik gabe, hiri aitortzen ninan nolakoa zen gure bizitzako alderdi mingarriena: Modou-ren autoak dama amaginarreba herriko bazter guztietan barrena zerabilen bitartean eta Binetouk bere Alfa Ro-meo gaur zuri bihar gorriarekin bideak urratzen zituen bitartean.

Ez dinat inoiz ahaztuko, ahizpa kuttun hori, hire eran-tzuna. Ez dinat inoiz ahaztuko nire ustekabea eta poza Fiateko kontzesionarioak deitu eta hik osorik ordain-duko huen autoa aukeratzeko esan zidanean. Alaitasun orroak bota zitiztenan haurrek beren gurutze-bidearen azkena gertu zegoela jakin zutenean. Ikasle gehienen gu-rutze-bidea gertatzen dena, bestalde.

Adiskidetasunak badin maiteminak ezagutzen ez duen handitasuna. Zailtasunean, sendotu egiten dun

adiskidetasuna, maiteminak heriotzara daraman bitartean. Maiteminak nekearen nekez bikoteak banantzen dituen bitartean, adiskidetasunak eutsi egiten zion. Maiteminak ezagutzen ez dituen gorakadak ditin adiskidetasunak. Hire gabeziak ekarri hizkidan ni laguntzeko; heuk, bitxi-saltzaileak.

Eta, nire beldurrei gaina hartuz, gidatzen ikasi ninan. Bolantearen eta eserlekuaren artean dagoen leku estu hori neurea gertatu zunan. Enbragea zapaldu, eta abiadurak aldatzen ditin. Frenoak abaila apaltzen din, eta, azkartzeko, azeleragailua zapaldu behar dun. Ez nindunan azeleragailuaz fida. Oinaren eraginik txikienarekin, autoak salto egiten zinan. Pedalen gainean dantza egiten ikasi zitenan nire oinek. Etsipen uneetan, neure buruari esaten nionan: «Zergatik Binetou hori bolantean eta ni ez?». Eta, orobat: ez zionat Aissatouri huts egin behar! Kirioen eta odol hotzaren arteko borroka irabazi ninan. Gidabaimena lortu, eta horren berri eman ninan.

Esaten ninan: «Eta orain...». Hiri esker, herriko kaleetan barrena hika hitz egin ziezaieketen nire hurrek amaginarreba oparoari eta haren alaba belaxkei, krema koloreko Fiat 125aren atzeko eserlekuan.

Harri eta zur jardun zunan Modou, ezin sinetsirik, autoaren nondik norakoa aztertzen. Ez zinan inoiz ere onartu benetako historia. Mawdoren amak bezala, berak ere uste zinan bitxi-saltzaileak ez duela bihotzik.



## 17

Arnasestuka nagon.

Tiraldi bakarrean jaulki dizkinat hire historia eta neurea. Beharrezkoa zunan, baina ez dinat esan minak urradura berberak berritzen dituela gogora ekartzean, aspaldikoak badira ere.

Hire etsipena neurea gertatu zunan, nire arbuioa hirea gertatu zen bezala. Barka iezadan beste behin ere hire orbana berritu badut. Nirea odol jario zagon beti.

Esango didan: bizitza ez dun, bada, zimurrik gabekoa! Lazturen aurka egiten dinagu tupust. Bazekinat, bai: ez zagon zimurrik gabeko ezkontzarik. Izaera ezberdinen eta sentimenduen indarraren isla ditun. Halako bikoteetan, elkarrizketa orori ezetza emanez samurtasunaren bultzada hausten duen emaztearen biktima dun gizona, bere antsietan bilduta apetatsu. Beste batean, alkoholismoa dun osasuna, ondasunak eta bakea jaten dituen pipia. Norbanakoaren nahasmendua azaleratzen din alkoholak, pertsona hori eszena barregarrietan suntsituz, muturrekoak eta labanaren zemaia baitira, hutsik egin gabe, hurkoa isilarazteko argudiorik sendoenak.

Hemen, erraz irabazteko irrika dun nagusi: jokalaria zentzakaitzak, hala tapiz berdeen gainean nola zuhaitz baten itzalean eserita. Deabruzko kiratsez betetako areto beroegiak, jokalaria amorratuen begitarte asaldatuak. Karten bals satanikoak denbora, ondasunak eta kontzientzia irensten ditin, eta ez din amaierarik izango horretara jarrita dagoenaren azken arnasa arte.

Nire ezkontzako porrotean neuk eragindako akatsak bahetzen ari naun. Neurri gabe eman dinat, jaso dudana baino gehiago eman ere. Bikotean ez bada, osotasunera iritsi eta beren neurriari dagokion eran hazi ezin diren horietakoa naun. Ulertzen haut; begiramena zionat emakume askeen aukerari, baina ez dinat inoiz ere ulertu zoriona bikotetik kanpo.

Etxea maite izan dinat. Etxea itsasbazter atsegin bilakatu dinat, eta horren lekuko haut. Bertan gauza orok din bere txokoa, koloreen sinfonia harmoniatsua sortuz. Nire sentiberatasuna ezaguna zain, Modouri eskaini diodan neurritz gorako maitasuna ere bai. Gau eta egun etengabe haren zerbitzuan, heu haiz testigu nola hartzen nion aurre haren desiorik txikienari ere.

Moldaerraz gertatu naun haren familiarekin. Gure etxetik alde egin badu ere, sarri etorri ohi ditun haren aita eta ama, anaia Tamsir, arrebak ere bai. Haurrak istorio-misteriorik gabe ari ditun hazten. Nire jaunaren oinetara botatako hainbeste koroa bailiran, haurren eskolako arrakasta dun nire harrotasuna.

Modou ez zegonan preso. Nahi zuena egiten zinan bere denborarekin. Oso ondo ulertzen ninan bere lasaitu beharra. Etxetik kanpo, bere gogoala hala zelako, sindikatuko jardunean aurkitzen zinan osotasuna.

Nire jokabidearen ahuldadeak aztertzen ari naun. Nire biziera soziala iskanbilatsua gerta zitekenan, sindikatuko etorkizunean Modouri itzal egiteraino. Familiak engainatua eta barregarri utzia izan den gizonak eska ote dezake errespetua besteengandik? Bere betebeharra txarto egiten duen emaztearen gizonak eska ote dezake, lotsarik gabe, lanaren ordain justua? Andre erasokorrak edo bigunegiak senarraren gain botatzen din bere jokabideak sortzen duen destaina eta ezinikusia. Goxoa bada, ideologiarik gabe biltzen ahal ditin ekimen baterako

laguntzak. Dena esateko, gizonaren lorpen guztiak emakume baten euskarrian oinarritzen ditun.

Eta etenik gabe galdetzen zionat neure buruari. Behin eta berriro galdetu ere. Zergatik? Zer dela-eta alde egin du Modouk? Zer dela-eta sartu du Binetou gure artean?

Arrazoizkoa dun, erantzungo dun hik: joerak ezerezetik jaiotzen ditun sarri; imintzio bat, keinu bat, buruari eusteko modu batek lilurutzen din bihotza, eta barruan gorde.

Neure buruari galdegiten zionat. Gazte garaiko maitasunari denen gainetik leial izan natzaiola dun nire egia; negar egiten zionat Modouri, eta ezin dinat ezer egin horren aurrean, Aissatou.





## 18

Behar bezala ospatu ninan atzo Modouren heriotzaren berrogeigarren eguna. Barkatu egin zionat. Jainkoak entzun bitza egunero haren alde zuzentzen ditudan otoi-tzak. Neure baitan bilduta ospatu dinat berrogeigarren eguna. Korana irakurri diten ikasiek. Zerurantz igo ditun haien ahots suharrak. Jainkoak har hazala aukeratuen artean, Modou Fall!

Pietatezko betebeharren ondoren, Tamsir etorri dun gelara, hik hain maite huen besaulki urdinean esertze-ra. Kanpora begira, keinu egin zion Mawdori, baita bere auzoko meskitako imanari ere. Imana eta Mawdo bereganatu zaizkion. Tamsirrek hartu din hitza gaurkoan. Antz harrigarria Modouren eta Tamsiren artekoa, herentziaren lege adierazkaitzaren tik berberak. Ziurtasun osoz mintzo dun Tamsir; gogora zekartzan (beste behin ere) nire ezkontzako urteak, honela amaitzeko: «Irten ondoren (doluminaren amaieran, esan nahi din), neuk hartuko haut emaztetzat. Egoki hatorkit; gero, hemen bizitzen jarraituko dun, Modou hil ez balitz bezala. Anaia gazteenak hartu ohi din zaharrenak utzitako emaztea. Alderantziz gertatuko dun oraingoan. Hi haiz nire fortuna. Esposatzen haut. Bestea baino nahiago haut (Binetou, alegia); arinegia dun, gazteegia. Modouri ere mintzatu nintzaionan ezkontza horren aurka».

Hori dun hori harropuzkeriaz betetako maitasun aitorpena dolu egunak amaitu gabeko etxe batean! Hori ziurtasuna eta hori azala! Zuzen begiratu zionat Tamsiri

begietara. Gero, Mawdori. Begiratu zionat imanari. Nire xal beltza estutu dinat. Arrosarioa aletu ere bai, une batez. Oraingoan hitz egingo dinat, bai horixe!

Hogeita hamar urteko isiltasuna ezagutu din nire aho-tsak, hogeita hamar urteko iseka. Leher egin din, burlaz eta destainaz leher!

«Erakutsi ote duk ba hik inoiz ere anaiarekiko bihoztzik? Sukalde berria eraiki nahi duk oraindik bero dagoen hilotzaren gainean. Modouren alde otoitzean ari garenean, hik hurrengo ezkontzan daukak burua».

«Bai, noski! Ezkongai guztiei aurrea hartzeko kontuak atereak dituk: Mawdori, hik baino alderdi hobeak dituen adiskide leialari, legeari jarraituz berdin har baitezake emaztearen jabegoa. Gauza bat ahaztu zaik: nik ere badi-tudala bihotza eta arrazoimena, ez naizela eskuz esku aldatzen den objektu bat. Hik ez dakik zer esan nahi duen niretzat ezkontzeak: sinesmen eta maitasun ekimen bat duk ezkontza, norberaren buruaren osoko eskaintza aukeratu duen izaki bati lotzea, aukeran hartu hauen hari». (*Aukeratu* hitzean tematzen nindunan).

«Eta hire emazteak, Tamsir? Hire diru sarrerek ez ditiztek estaltzen ez haien beharrak ez hamarnaka dituan haurrenak. Hire diru-beharrak berdintzeko, tindaketa lanean jarduten dik hire emazteetako batek, frutak saltzen besteak, josteko makinari etengabe eragiten hirugarrenak. Hi, berriz, jaun ohoratua, patxadan hanka-zabal eserita, haiek hire hatzari eta begiei men egiten dieten bitartean. Ez nauk sekula hire emazte sortaren osagarri gertatuko. Ez eta nire etxea ere hiretzako oasi preziatu: utikan zama erantsiak! Egunero izango nauk txandakoa<sup>24</sup>.

24 Emazte bakoitzaren gelan poligamoak arauz pasatu behar duen denbora (Egilearen oharra). *Tourjatorrizkoan* (Itzultzailearen oharra).

Garbitasunean eta luxuan izango hintzateke hi hemen, oparotasunean eta ez-titan».

«Hor zaudek, gainera, Daba eta haren senarra finantzarako gaitasuna erakutsi dutenak hire anaia Modouren ondasunak berrerostean. Hori promozioa! Hiri begira jarriko dituk bekaizti hire adiskideak».

Eskuz keinu egin zidanan Mawdok:

—Isil hadi! Hago isilik! Geldi hadi! Nahikoa!

Baina abiada bizian doan sumindura ez dun gerarazten. Eta, inoiz baino gogorrago, honela bukatu ninan:

—Tamsir, okazta itzak hire konkistatzaile ametsak. Berrogei egun iraun ditek. Inoiz ere ez nauk hire emazte izango.

Imanak Jainkoa hartu zinan lekuko:

—Hitz lotsagabeagorik! Dolu jantzitan esanak, gainera!

Beste hitzik gabe jaiki zunan Tamsir. Behar bezala uler-tu zinan bere deskalabrua.

Honela hartu ninan urrutiko egun hartako mendekua, hirurak, azpisuge, Modou Fallen eta Binetouren arteko ezkontzaren berri eman zidatenekoa.



## 19

Ikusten dun, Aissatou, doluz jantzita ere ez zeukanat la-saibide apurrik.

Tamsiren ondoren, Daouda Dieng... Gogoan al dun? Daouda Dieng, nire antzinako ezkongai. Esperientzia hura baino nahiago izan ninan eskarmenturik eza, gabezia nahiago haren eskuzabaltasuna baino, haren zuhurtzia baino nahiago abentura.

Modouren hiletara etorria zunan. Dirutza ederra zegoan Fatim-i eman zion zorroan. Eta haren begirada zaletua esanguratsua zunan.

Berari dagokionez, uste dinat egia dela ustekabeen topo egiten genuenean esaten ziguna: lehen maitasuna ez dun inoiz ere ahazten.

Tamsir, konkistatzaile irrikak garbitu nituen egun googarri hartatik aurrera bazterrera geratua, eta, ondoren, Daouda Dieng, nire esku eske! Daouda Dieng izan zunan amaren lehenetsia. Haren ahots limurtzailea entzuten dinat niri aholkua ematen: maite duela erakusten dion gizona hartu behar din emakumeak eta ez emakumeak berak maite duena. Hori dun zorion iraunkorrerako sekretua.

Mawdoren eta Moudoren aldean, Daoula Dieng ondo zaindua zegoan. Zahartzaroaren mugan, denboraren eta jardunaren etengabeko erasoei eusten zienan. Koitoizko brodatuekin osatutako janzkera grisak dotorezia ematen zionan; lehengo gizaseme berbera zunan: jaso,

zehatza, bizarra sarri egina. Jende aurrean zuen prestutasunak dudarik gabeko aukera ematen zionan.

Legebiltzar Nazionalean diputatu, bere arrazoiak keinu zehatzez lagunduta, gizon hurbila izaten jarraitzen zinan. Ilaje urdinxkak xarma ematen zionan.

Duela hiru urtetik hona, nahaspila politikoan errespetua irabazia zeukanan ganorazko jardueragatik eta hitzaren zehaztasunagatik. Haren autoa, kolore nazionalikiko intsignia zeramana, aurreko espaloian aparkatuta egon ohi zunan.

Zenbateraino nuen nahiago haren bihotz-pilpira Tam-siren ziurtasuna baino! Ezpainen dardarak salatzen zinan, eta haren begiradak nire aurpegia argiz betetzen. Arrunkerietan gordetzen nindunan ni: «Eta Aminata (haren emaztea)? Eta haurrak? Eta sendagile kontsulta? Eta Legebiltzar Nazionala?».

Etenik gabeko jarroa zitunan nire galderak, bai hura lasaitzeko, bai aspaldian etendako elkarrizketa berritzeko. Labur erantzuten zinan. Baina nire azken galderak bizkarra jasotzea baino ez zinan eragin: «Ondo zagon», erronka gisa jaurtia.

Eta atzetik nik lotu: «Ondo egon behar du, bai, gizon-zoek soilik osatutako legebiltzar horrek!».

Burlaize doinua eman nionan nire esaldiari, begiak biribil mugitzen nituen bitartean. Beti eme, baita doluan ere; seduzitu egin nahi dun, interesa piztu!

Daouda ez zunan iruzur egiteko erraza. Bazekinan bere estuasunetik askatu nahi nuela, eta, urte askoan ehunduta, nire aspaldiko ezkon ezetzagatik banatzen gintuen isiltasun errezel deserrosoa urratu.

—Beti menderakaitz, Ramatulaye! Zer dela-eta baieztapen adarjotzaile eta iraingarri hori, Legebiltzarrean emakumeak ere badaudela jakinik?

—Lau emakume, Daouda; ehun ahaldunen artean, lau. Proportzio barregarria! Lurraldeetako ordezkari bakar bat ere ez!

Barre egin zinan Daoudak, barre tolesgabea, irekia, suspertzen ninduen.

Ozen nahastu genitinan barre-algarak. Berriro aurkitzen ninan haren hortzen lerro distiratsua, eta, gainean, azentu zirkunflexu bat bailitzan, bibote beltza, orraztua eta ondo zaindua. Ai! Tarterik gabeko hortz lerrokada hark irabazia zinan amaren konfiantza. «Baina zuek, emakumeok, obusak bezalakoak zarete. Zuek txikitu egiten duzue. Sarraskia eragin. Imajina ezan emakume andana Legebiltzarrean. Dena azpikoz gain geratuko zunan, su eta gar dena».

Eta barre-algarak, berriro.

Kopeta zimurtuz, ohar hau egin nionan: «Baina gu ez gaituk supiztaileak, bizigarriak baizik!». Eta, emakumeen alde, zera esan nionan: «Sail askotan, etsaigorik sortu gabe, nonbaitetik jasotako eta gutxietsi ezin diren aurrerapenez baliatzen gaituk; historiako lezioetatik erauzitako maileguez, alegia. Zuek adinako eskubidea diagu geure buruaren ahalmenaren mugaraino akuitatuak izateko jakitaterako bidean. Baldintza beretan banatu eta zuzen ordaindutako lan eskubidea ere bai. Funtsezko arma duk boto eskubidea. Eta hara non Familia Legea aldarrikatu den, emazterik apalenari ere luzaroan ezetsi zaion duintasuna aitortzen diona».

«Baina, Daouda, murrizketak egon, bazaudek. Sineskera zaharrak berpizten ari dituk; norberekeria nabarmen ageri duk; etsipena duk nagusi arlo politikoan. Kasketaz eta marmarka gordetako ehiza lekua.

«Badituk ia hogeitun urte independentzia lortu zela! Noizko emakume bat ministro herriaren etorkizuna bideratzen duten erabakietan? Hala eta guztiz ere, emakumeen

militantzia eta gaitasuna, konpromisoaren eskuzabaltasuna, ez zeudek frogatu beharrik. Gizon bat baino gehiago altxatu dik emakumeak agintera».

Daoudak entzuten zidan. Baina uste dinat nire ideiek baino askoz gehiago nire ahotsak liluratzen zuela.

Eta jarraitu ninan: «Heziera oneko gizartea noiz iritsiko ote da balioen arabera eta ez sexuarenera erabakitzea?».

Daouda Dieng nire gain proiektatzen zuen ametsaren gozotasuna ahogozatzen ari zunan. Bitartean, gogoberotzen ari nindunan, luzaroan lotuta egon ondoren askatzen den zaldiaren antzera, zabalduan mozkor. Ai, norberaren aurrean solaskidea, are gehiago, maitalea edukitzearen atsegina!

Ni, betiko Ramatulaye nindunan... apur bat borrokalaria.

Daouda Dieng neurekin neraman nire suan. Gizon zuzena zunan, eta egoerak eskatzen zion bakoitzean borrokatzen zunan justizia sozial gehiagoren alde. Ez zinan aldarteak edo luxuaren grinak eramane politikara, hurkoarenganako maitasunak baizik, bidegabekeria eta injustizia zuzendu nahiaren suminak.

«Nori mintza hatzaio, Ramatulaye? Ba al dun Asanblada Nazionalean neuk emandako hitzaldien oihartzunik? *Feminista* naizela leporatzen baitzait. Ez naun joko arauak aldatu eta arnas berria erantsi nahian indar egiten duen bakarra. Hemendik aurrera, emakumeak ez din apaingarri huts izan behar; batetik bestera darabilgun objektua, losintxaz ferekatu edo hitz gozoz ezitzen dugun neska-laguna. Lehen erroa, nazioaren oinarria, hor txertatzen baita ekarpen oro, hortik sortzen loraldi guztiak, hori dun emakumea. Bere herriaren zoriaz gehiago ardura dadin zirikatu behar dun emakumea. Marmarean ari haizen heuk ere gauza publikoa baino nahia-go izan dun heure senarra, heure eskola, heure haurrak. Alderdi politikoetan gizonak baino lehiatzen ez badira,



zer dela-eta egingo dute amets emakumeekin? Guztiz humanoa dun zatirik onena beretzat gordetzea pastela banatzean.

«Ez hadi egoista izan erantzunean. Besarka ezan herritar guztien zoria. Ez zagon inor merezi adina saritua, ezta gu ere, aberats eta diru-arazorik gabekotzat jotzen bagaituzte ere; honaino jaso gaituztela uste duten hautesle-bezero gosetuen zerbitzuko dun gure ekonomia oro. Herri baten garapena ez dun erraza. Zenbat eta neurri handiagoan izan erantzule, orduan eta gehiago nabari dinagu; miseriak bihotza estutzen din, eta ez daukan hura gerarazteko ahalmenik. Miseria material eta moral guztiez ari naun. Ongizateak bideak behar ditin, itxurazko etxeak, urtegiak, osasun zentroak, botikak, haziak. Neu naun independentziaren jaija lurraldeetan txandaka ospatzea bultzatu duena. Egokia dun ekimena, inbertsioak bideratzen baitu eskualdeen itxuraldatzea».

«Dirua behar da, diru pila bat, emaileengan konfiantza sustatuz lortu behar den dirua. Gure eurialdi bakarrekin eta gure laborerako landare bakarrarekin, kemetik handienak bultzatuta ere, Senegal ez dun aurrera aterako».

Gaua zerutik erortzen ari zunan laster batean, izaki eta gauza ilunpean harrapatzeko presaka, aretoko pertsianetan zehar. Sarkorra zunan muezinak *Timiss*<sup>25</sup> otoitzerako egindako deia; Ousmane altxatu zunan oin puntetan, eta pizgailuari eragin zionan. Argia piztu zunan, eta erasokor hartu gintinan.

Daouda zutitu egin zen. Ezagutzen baitzituen nire egoeraren esturak, lanpara zegoen alderaino jaso zinan Ousmane, Ousmanek, besoak gora, karkaraka barre zegen bitartean. Lurrean tinkatu zinan gero. «Bihar arte»,

---

25 Ilunabarra adierazteko wolof hitza.

esan zinan. «Beste zerbaitetara etorria nindunan. Eztabaida politikoetara eramán naun. Eztabaida oro dun aberasgarri. Bihar arte». Behin eta berriz.

Irribarrea: ondo kokatutako hortzen ilara. Irribarrea berriro; atea ireki zinan. Entzun ninan haren pausoa itzaltzen. Une bat, eta haren auto ahaltsuaren burrunbak eramán zinan etxera.

Zer esango ote dio bere emazte eta lehengusina Aminatari berandu iritsi dela azaltzeko?...

Daouda Dieng biharamunean ere etorri zunan. Baina zoritxarrez beretzat eta zorionez niretzat, nire amaren aldeko izeben bisitak eragotzi zionan aske mintzatzea. Ez zunan luzapenetara ausartu.

## 20

Ostiralean gauden. Erabat garbitu nauen bainua hartu dinat. Poro askatueta barrera lasaitzen nauen eragin bizigarria nabari dinat.

Xaboiaren usainak inguratzen nain. Piltzar zimurtuen orde, jantzi garbiak. Gorputzaren garbitasun hau guztiz atsegina zaidan. Begi askoren jo puntu izanik, emakumearen dohainik oinarritzkoena garbitasuna dela uste dinat. Etxolarik apalena ere gustagarri gertatzen dun, ordena eta garbitasuna nagusi badira; luxu handiko bizilekuak ez din erakartzen hautsez zikina badago.

*Etxekoandre* deitzen diren emakumeek baditen merezimendua. Beren gain hartzen duten etxeko lana, dirutan saritzen ez bada ere, behar-beharrezkoa dun etxean. Ondo lisatutako arropa pila, usain gozoa dariona; oinak txirrista egiten duen lauzadura distiratsua; saldak gantzututako sukalde alaia; hori dun beraren saria. Detailerik txikienean ere nabari dun saiatu izanaren balio handia: harako hartan loratze betean lorontzia, beste hartan zintzilik koadroa, ondo aukeratutako koloretan.

Etxeko antolamendua artelana dun. Gogorra gertatu zaigun horren ikastea, eta ez dun inoiz ere amaitzen. Menuak prestatzea ez dun erraza. Egun bakoitza hiru otordutan banatu ohi dela gogoan hartzen bada, urteko egunen luzeran menuak prestatzea ez dun erraza. Etxeko diru erabilerak malgutasuna eskatzen din, ondo begiratzea eta zuhurtzia, hileko lehen egunetik azkeneraino

abentura arriskutsu batera bultzatzen hauen finantza ariketa batean.

Emakume izan! Emakume bizi! Ai, Aissatou! Gau honetan ezin egonik nagon; ez hadi sumindu. Bizitzaren ahogozoa maitasuna dun. Bizitzako gatza, maitasuna, bestela esanda.

Berriro ere etorri zunan Daouda. Lehen bisitako janzki grisaren eta bigarren bisitako txokolate kolorekoaren orde, kotoizko janzki *rombal band*<sup>26</sup> bat jantzita.

Ezkaratetik eraso zinan nik lehen ikustaldian erabili nuen doinu berean, arnasa hartu ere gabe: «Zer moduz habil? Eta haurrak? Legebiltzarra? Eta Ousmane?». Bere izenaren deira, hara bertan Ousmane, aho eta matrail egun osoan darabilen txokolatez makillatua.

Oinak astinduz zalapartan borrokatzen den gizonttoa hartzen din Daoudak. Ipurdian adiskidetasun txaloa joz askatu zinan, eta Ousmanek, marrazki liburua eskuetan, etxeko guztiei erakustera alde egin zinan pozez orroka. «Ez al dago bisitaririk? Gaur nik eramango dinat eztabaida... neuk, gizonon Legebiltzarreko honek». Eta barre egiten zinan maltzur.

—Ez uste izan atsegin zaidalako kritikatzten dudanik. Herriaren egoera aldatu nahi duen demokraziaren hasierak erakartzen naik, eta hor hire alderdiak badik harro egoteko arrazoirik. Zuen ekimenaren muina duk sozialismoa, nire barne irriken adierazpen ere bai, zuen idazkari politikoak dioen bezala gure errealitateari egokitua badago. Ireki duen erreia ez duk gaitzestekoa, eta Senegalek berriro aurkitutako askatasun aurpegia erakusten dik bertan. Aintzat hartzen diat hori guztia, batez ere gure inguruan alderdi bakarreko aginteak ezartzen ari direnean. Alderdi bakarrak ez dik sekula herritarren

---

26 Tindategian erabili ohi den kolore urdina.

iritzi bateratua islatzen. Gizabanako guztiak molde berekoak balira, kolektibismo beldurgarri batean geundekek. Ezberdintasunek, benetako abertzaletasunetik sortuak badira eta herritarren zoriona baino ez badute gogoko, garapenerako mesedegarriak gerta litezkeen ideiak eta pertsonak elkarrekin topo egitea zekartek.

—Su-etena politikari, Ramatulaye. Uko egiten zionat aurreko egunean bezala jarraitzeari. Okitua nagon “demokraziaz”, “askatasunaz”, “borrokaz”, eta zertaz ez, egu-nero itolarrira naramaten hamaika esaeraz. Su-etena, ba, Ramatulaye, su-etena. Entzun nazan behingoz: *can-can* irratiak berri hau eman zidan: ez dunala Tamsirekin ezkondu nahi. Egia al da?

—Bai.

—Nire txanda dun. Hemen natorkin bigarrenez, hire eskua eskatzera... Doluminetik ateratzen haizenean, noski. Garai bateko berberak ditun hiregana dauzkadan sentimenduak.

Urrutiratzeak, hire ezkontzak, nireak, ez ditzen hireganako nire maitasuna zulatu. Hobeto esanda, bizkortu baino ez din egin urrutiratzeak; denborak, sendotu; heldutasunak, garbitu, soildu; indar handiz maite haut, baina buru argiz. Haur txikiz inguratutako alarguna haiz. Familia baten buru naun ni. Bizi izandakoaren “pissua” zaramanagu biok, eta horrek lagunduko zigun elkar ulertzen. Zorion berri batera irekitzen dizkinat besoak; nahi al dun?

Begiak zabal-zabal begiraten nionan, ez harrituta — emakume batek hutsik egin gabe asma zezaken antzeko aitorten bat—, mozkorraldiak jota baizik. Bai, Aissatou, orain arte balio izan duten hitz zaharrek, oraindik ere balio duten horiexek harrapatu ninditenan. Haien ezitia; urteak baziren ere haietatik titigabetua nengoela, txolin-*du* egin ninditenan: ez naun lotsa hiri aitortzean.

Ahaldun jaunak, argi, honela amaitu zinan:

—Ez iezadan berehalakoan erantzun. Egin ezan gogoe-  
ta nire eskaintzaz. Bihar etorriko naun ordu berean.

Eta haren aitorenak nahastuta bezala alde egin zinan  
Daoudak, irribarre gozo baten ondoren.

Erauntsia bezala sartu zunan haren atzetik Farmata,  
auzoko griota, bero-bero. Beti zebilenan bere kauriekin  
errealitateak aurre-ikuskariekin eduki zezakeen adosta-  
sunik txikienak asaldatuta etorkizunaren bila.

—Aurkitu dinat kaurietako “bi prakadun” gizon indar-  
tsu eta aberatsa. Bost mila franko eman zizkidan.

Eta kliska egin zinan begi zorrotz eta sakonez, beti be-  
zala misterioak arakatu nahian.

—Aholkatzen den bezala, bi kolasen limosna egina  
ninan hire alde, bata zuria eta bestea gorria; aitortu zi-  
danan. Gu bion zoriak bata bestearenarekin lotuta zeu-  
denan. Hire itzala babes zaidan. Ez dun itzala ematen  
dinan zuhaitza eraisten. Ureztatu egiten dun. Zaindu.

Farmata alaena, zein urruti hengoan nire burutazioe-  
tatik! Aztoratzen ninduen nahasmena eta nirekin borro-  
kan ari zen hura ez zitunan maite borrokaren ezaugarri.

## 21

Bihar? Bai laburra gogoetari ematen zaion denbora bizi-tza osorako erabaki bat hartu behar denean, are gehiago duela gutxi etsipenaren malko mingotsak ezagutu dituenarentzat! Daouda Diengen begirada zorrotza aztertzen ari naun, baita nahita eragindako bere ezpainen imintzioa ere, lagun hurkoarengandik ona baino jasotzen ez zuen gizon zintzo haren gozotasunarekin kontrajartzen bainuen. Zeinu bakoitza sinbolo den liburu ireki batean bezala ukitzen ninan bere esanahia, ulerterraza baitzen niretzat.

Nire bihotza ez dun jada putinka hasten esaten zaizkion hitzen zirimolan. Zinez esandako hitzek ukitzen naiten, baina ez erakartzen; samurtasunaren gose-egarritik nigan sortutako zoramena desagertu egiten dun orduen dantzarekin.

Ezin naun orain apainketan hasi. Aipatutako festak ez nain zirikatzen. Nire bihotzak ez din Daouda Dieng maitete. Neure buruak aintzat hartzen din gizon hori. Baina bihotza eta burua ez zatozan sarri bat.

Ai, zenbateraino nahiko nukeen gizon horrek bereganatzea eta “bai” esateko gauza izatea! Ez dun desagertuaren oroitzapena astun zaidalako. Hildakoek ez dituen ematen zaien edo banatu dituzten faboreen pisua baino. Koxkortu gabeko haurren bizitzak ere ez zidan traba egiten; abandonatu zituen aitaren rola joka zezaken etorri berriak. Hogeita hamar urte iragan ondoren, nire izatearren ezezko berberak baldintzatzen nain, ez beste ezerk.

Zehatz dezakedan arrazoirik ez dinat aurkitzen. Elkarraren aurkakoak ditun gure fluidoak. Daouda Diengen izen onaren benetakotasuna ez dinat nik eraikiko.

Senar ona? Noski. Kaleko marmarrak ez din behin ere hitz egin haren burugabekeriez, hain gaiztoa eta zurrumurru zalea izanik ere pertsona ospetsuekin. Haren emazte eta lehengusina ni baino bost urte geroago ezkondua zunan, herritar betebherragatik eta ez maitasunagatik, eta hark eman zizkionan haurrak. Emazte eta haur begirune mailara eramane ditin zereginaren menpeko gizon honek, eta jendearen eta are beraren babes irrikagarria jasotzen dinate. Ez zinan inoiz ere erabakirik hartzen emaztea berekin ez bazuen. Bere ekimen politikora ere biltzen zinan, joan-etorri ugarietara, babes ekimenetara —alderdi bezeroak ugaltzeko abagune—.

Farmatak, kaurietako griotak, honako hau bota zidan alde egin baino lehen: «Hire amak arrazoa zinan. Daouda zoragarria dun. Zer *géerek*<sup>27</sup> ematen din gaur egun bost mila frankoko billetea? Daoudak ez din emaztea aldatu, ezta haurrak abandonatu ere; berriro hire bila baldin badator, hi, zahartua eta familiaz zamatua, maite hauela esan nahi din; gai dun heu eta hire haurrak batera eramateko. Har ezan gogoan. Onar ezan».

Aukera guztiak! Baina zer dira aukera horiek kontrolaezin den xarmaren legean! Nire teilapean mindu nahi ez, eta Farmata bidali nionan gutun itxi batekin: «Emaztearen eta haurren begietatik urrun, berari ez beste inori eman gutun hau».

Farmataz baliatzen nintzen lehen aldia zunan, eta amorrua eman zidan. Bera? Pozez zorutzen, gazteak ginetik lanbide horrekin egina baitzen amets... Baina ni neu bakarrik aritzen nindunan beti; bera ez zunan behin

---

27 Aitoren semea, noblea.



ere nire arazoetan tarteko, jakinaren gainean jarria baino ez, ganorabako baten antzera bazterrera utzia, eta kexu zunan. Pozez zorutzen zegonan, gupidarik gabeko mezu baten eroale zela jakin gabe.

Daoudaren kontsulta-bulegoa ez zegonan *Fallene* txaletetik urrun. Bus azkarrek bazeukatenan geralekua atetik metro gutxira.

Kontsulta-bulego hark erraztasuna ematen zionan Daouda Diengi. Estatuak irekia zunan, gogoia erakusten zuten sendagile eta farmazialariei emandako mailegu baten bidez. Ulertua zinan sendagile batek ez duela bere lanbideari uko egiteko eskubiderik; izan ere, sendagilearen prestakuntza geldoa, luzea, nekagarria dun, eta sendagileak ez ditun asko. Beste edozertan baino onuragarriagoak ditun beren lanbidean; gai baldin badira beste jarduerekin batera eramateko, oso ondo. «Baina zer axolagabekeria sendatzeari uko egitea beste edozer gauza egiteko!» . Horrela aritzen zunan Daouda gure lagunartean, Mawdo Bâ eta Samba Diack tarteko zirela.

Farmata pazientziaz egon zunan bere txandaren zain, bada, kontsulta aretora heldu zenean; behin Daoudaren aurrean, zigiluz itxitako gutuna eman zionan. Eta Daoudak irakurri:

*Daouda:*

*Oinazearen hondamen biziak gorabehera, emakume berbera izaten jarraitzen duen baten atzetik habil.*

*Hik, maite izan nauen horrek, eta —ez zaukaat zalan-tza izpirik— oraindik ere maite nauen horrek, uler nazak, faborez.*

*Hire dohain ugarik justifikatutako begiramenak eta ez beste ezerk hiregana erakartzen nauten honetan, ez zaukaat nire kontzientziaren malgutasun nahikorik hire emaztea izateari baiezkoa emateko.*

*Hik dena merezi duk, eta nik ezin diat beste ezer eskaini. Begiramena ez duk nahikoa nik neure eskarmentuz ezagutzen dudan senar-emazte bizitzako lakio guztiak onartzeko.*

*Bestalde, hire emaztea eta haurrak hor egoteak are gehiago korapilatzen dik egoera. Emakume bategatik atzo abandonatua bainaiz, ez naitekek hain arin sar hire eta hire familiaren artean.*

*Poligamiaren arazoa erraza dela iruditzen zaik. Horren inguruan mugitzen direnek ezagutzen ditiztek aldatzearen gozamen iragankorraren truke kontzientziaren zama gertatu diren eragozpenak, gezurrak eta bidegabekeriak. Ziur nagok maitasunak bultzatuta habilela, hire ezkontza baino askozaz lehenagokoa den eta halabeharrak gauzatu ez duen maitasunak bultzatuta.*

*Mugarik ez duen tristuraz eta malkoak begietan eskaintzen diat nire adiskidetasuna. Onar ezak, Daouda bihotzeko hori. Atseginez hartuko haut nire etxean.*

*Laster arte, ezta?*

*Ramatulaye.*

Gutuna irribarrez emana zion Farmatak esan zidanan irri aurpegia gaiztotzen joan zitzaiola Daoudari irakurtzen ari zen bitartean. Betileak tolestu, kopeta zimurtu, ezpainak hozka estutu, hasperen egin; senak eta ikuskari zorrotzak goibel mozorroa ezartzen ziotenan.

Mahai gainean pausatu zinan Daoudak gutuna. Astiro, kartazal bat bete zinan billete urdin sortaz, estu-estu. Txartel baten gainean zirriboratu zinan mediku ikasketara garaian ikasi eta aspaldian banandu gintuen formula beldurgarria: «Dena ala ezer ez. Adio».

Aissatou, Daouda Dieng ez dun berriro inoiz itzuli.

«*Bissimilai! Bissimilai!*<sup>28</sup> Zer idatzi dun eta zeren mezulari bihurtu naun! Gizon bat hil dun. Haren aurpegi ilunak deiadar egiten zidan. Jainkoak bidalia bota dun hire oinazeak arintzeko. Jainkoak berak zigortuko hau, ez baition bake-bideari jarraitu. Uko egin dion handitasunari! Lokatzetan biziko haiz. Odol malkoak isuraraziko dizkiadan beste Modou bat opa dinat.

Nor haizela uste dun? Berrogeita hamar urterekin, *wolere*-a<sup>29</sup> haustera ausartu haiz. Hankapean hartu dun hire aukera: Daouda Dieng, aberatsa, diputatua, sendagilea, hire adinekoa, emazte bat baino ez duena. Ziurtasuna eta maitasuna eskaini dizkin, eta hik ezetza eman dion! Zenbat emakumek, Dabaren adinekoak izanda ere, egon nahiko luketen hire lekuan.

Aitzakiak asmatu ditun. Maitasunaz ari haiz ogiaz mintzatu ordez. Madamuk goragaleak nahi ditin bihotzean. Zergatik ez loreak, zineman bezala?

*Bissimilai! Bissimilai!* Hik, hain zimeldua haizen horrek, hemezortzi urteko neskatxak bezala aukeratu nahi dun senarra. Bizitzak gordea din hiretzat ezustekoa, eta, orduan, Ramatulaye, hatzei hozka egingo dien. Ez zakinat zer idatzi duen Daoudak. Baina dirua zagon kartazalean. Benetako *Samba Lingere*<sup>30</sup> bat dun, lehengo garaietakoa. Jainkoak bete dezala, bete-bete, Daouda Dieng. Nire bihotza harekin zagon».

Horrelakoa izan zunan Farmataren erasia bere misiotik itzuli zenean. Aztoratu egin nindunan. Gure familien arteko harremanagatik gaztetako adiskide nuen haren egia ezin zunan nirea izan, bere logika interesatuan...

28 Koranaren lehen suretako hasiera. Eguneroko hizketan erabiltzen da wolof hizkuntzan, harridura, ustekabea adierazteko.

29 Aspaldiko adiskidetasuna.

30 Ohore handiko gizona.

Uko egiten nionan beste behin ere nire etorkizun-asmorako erraztasunari. Une txiki batez argitua zen argiunetik bakardadera biltzen nindunan. Bakardade soinekoa janzten ninan eguneroko jantzia janzten den moduan. Ondo zetorkidanan haren ebakera. Farmatari atsegin ez bazitzaion ere, erraztasunez mugitzen nindunan haren barnean. “Beste zerbait” nahi ninan nik bizi. Eta “beste zerbait” hori ezin zunan izan nire bihotzarekin bat ez bazetorren.



Tamsir eta Daouda kanporatu ondoren, ez zegonan beste harresirik eskekoen eta nire artean. Orduan ikusi nitinan, ilaran estu inguratzen, etekin errazeko iturri bila zebiltzan agureak eta alferkerian gizendu nahi zuten abenturazale gazteak. Bata bestearen atzetik eman nizkienan ezetzak, esku-eske etorri zirenen herrian “lehoi eme” eta “atzeratu” fama irabaziz.

Nork askatzen ote zuen ehiza-txakur goseti andana hori nire arrastoen atzetik? Nire xarmak joanak baitziren, haur-egite, urte eta malkoekin. Ai! Ondarea! alaba Dabak eta beraren senarrak erosi eta nire esku jarritako zati potoloa.

Berek eraman baitzituzten Modouren ondasun banaketako hitzarmenak. Nire suhiak mahai gainean jarri zizkinan SICAP txaletaren aurrerakina eta bost urteko alokairuaren prezioa. Ordenantzaren agiria eskuan, nire alabaren eskura itzuli zunan SICAP txaleta, hark sailkatu baitzuen banan-banan haren edukia, eta dena erosi.

*Fallene* txaletaren historia azaldu erraza dun: duela hamar urte Modouren eta bion soldatarekin lortutako banaku maileguaren ondorio ditun lur eremua eta eraikina. Duela bi urte berritutako barnea, berriz, nirea dun, eta

hori baieztatzeko fakturak erakutsi nitinan. Modouren jantziak geratzen ditun, neuk aukeratuak eta zainduak zirelako ondo ezagunak, eta besteak... beraren bizitzako bigarren zatikoak. Zaila zitzaidanan senarra “gazte-otso” zarpail horietan imajinatzea... Beraren aldeko familiar-tean banatu zitiztenan.

Dama amaginarrebari eta haren alabari egindako opari eta bitxiak berenak ditun eskubidez.

Dama amaginarreba zotinka ari zunan, eta negarretan. Larrutzen ari zirela eta, errukia eskatzen zinan. Ez zinan etxez aldatzerik nahi...

Daba, ordea, gazte guztien antzera, errukirik gabea dun. «Gogora zaitez zure alabaren adiskiderik kuttunena nintzela. Amaren aurkari bihurtu zenuen Binetou. Gogoan izan hori. Bost urte bitartean, sostengurik gabe utzi zenituen ama eta haren hamabi haurrak. Ez ahaztu hori. Zer sufrikario izan duen amak. Nola lezake emakume batek beste emakume baten zoriona sakailatu. Ez duzu errukirik merezi. Alde hemendik! Binetouri dagokionez, biktima bat baino ez da, zeure biktima. Erruki diot».

Dama amaginarreba malkotan zegonan. Binetou?... Eserita, ezaxola. Zer axola zitzaion esaten ari zirena? Barrutik hila zegonan... Modourekin ezkondu zenetik.



## 22

Sekulako nekea nabari dinat. Arimatik zatorkidan, eta gorputza astunago bihurtzen din neke horrek.

Ousmanek, nire txikienak, gutuna eman zidan. Sei urte ditin. «Izeba Aissatourena da» esan zinan.

Lehentasuna din hire gutun guztiak eskura emateko. Zertan ezagutzen dituen? Seiluan? Kartazalean? Hire ispilu den idazkera zainduan? Darion izpiliku usainean? Haurrek badituzten gureen antzik ez duten zedarriak. Ousmanek ahogozatu egiten din bere aurkikuntza. Irabazi din.

Goxatzen nauten hitz txeratsu hauek hireak ditun, bai. Eta “azkenaren” berri ematen didan. Kontua ateratzen ari naun. Bihar amaitzen dun nire itxialdia. Hor izango haut hi, eskuaren, ahotsaren, begiradaren eskumenera.

«Amaiera ala hasiera berria?». Nire begiek hire aldatarik txikienak ere antzemango ditizten. Nire aldetik, egina dinat nireen kontua. Itxialdiak ondu egin nain. Arrangurek, zimurtu; nire koipea urtu egin dun. Hezurra ukitzen dinat haragia mamitzen ari zen lekuan.

Garrantzizkoena ez dun gorputzean ageri dena. Biziarazten gaituen bihotzaren edukia dun garrantzizkoa; betetzen gaituen izerdi bizigarriaren kalitatea dun oinarritzkoa. Sarri erakutsi didan maitasunaren gainetik dagoela adiskidetasuna. Denborak sendotu ditin elkarren arteko loturak, urruntasunak oroitzapen komunak bezainbeste, eta gure haurrak anai-arreba bihurtu. Batera

zenbatuko ditugu loraldi zimelduak ala hazi berriak lurperatuko ditugu ekoizpen berrietarako?

Dabaren oin hotsak entzuten ari naun. Blaise Diagne lixeotik zetorren, hara joan baitzen nire orde, bilera-dei bati erantzunez. Mawdo Fall<sup>31</sup> nire semeak filosofiako irakaslearekin duen konponezina baretzera. Sarrikoak ditun beren arteko haserrealdiak maisuak zuzendutako idazlanak eskuratzean.

Dabaren eta Mawdo Fallen urteen tartea, bi haurdunaldi galduen hutsa bitarteko, nabarmena dun; hori badakin.

Irakaslearen eta ikaslearen arteko korapiloa askatzera joan dun Daba, sei hilabeteen hirugarrenez. Literaturarako gaitasun bikainak ditin Mawdo Fallek. Seigarren urte-tik hona, nagusi izan dun gai horretan bere gelan; baina, aurten, maiuskula bat ahaztu zaiolako, koma batzuk utzi dituelako, hitz bat oker idatzi duelako, puntu bat edo bi kentzen zizkion irakasleak. Horregatik, Jean-Claude, Zuri bat, betiko bigarrenak, gaina harrapatu zion. Irakasleak ezin din eraman Beltz bat filosofian lehena izatea. Eta Mawdo Fall marmarrean aritzen dun. Ondorioz, irakaslearen eta ikaslearen arteko liskarra eta bilera-deia.

Daba prest zegonan irakasleari gertatutakoa latz adierazteko. Apur bat eztitu dinat. Etenik gabe konponketa bilatu beharrekoa dun bizitza. Azterketako idazlana dun garrantzizkoa, azaldu zionat... Lan hori, ordea, zuzentzailearen esku zagon. Inork ez din eraginik izango beragan. Horrela bada, zertarako asaldatu irakaslea ikaslearen zoria aldatuko ez duten puntu baten edo biren gorabeheratik?

Hau esaten zienat beti nire haurrei: gurasoek zaindutako irakasleak zarete. Egizue lan haien nekeak merezi

---

31 Mawdo Bären homonimo eta aita-jauna.



bezala. Aurka egin orde, serio ahalegin, bada. Handiak izango zaretenean, zuen iritziak ontzat hartuak izan daitezten, diploma bitartez ziurtatutako jakitatetik jario beharko dute. Diploma ez da mitoa. Diploma ez da dena, jakina. Baina jakitate bat saritzen du, ahalegin bat. Jarri bihar agintean nahi duzuen, komeniko zaizuen. Zuen aukerak zuzenduko baitu herria, ez gureak.

Kanpotik ekarritako grina gaiztoen eta bertute zaharren erresistentzia itsuaren artean, bere oinarri sakonetan astindua dago gure gizartea.

Igoera sozial azkarraren ametsak seme-alabak heztera baino jakitatea ematera bultzatzen ditu gurasoak. Bai giroan eta bai bihotzetan, zeharo sartua dago kutsadura hori.

Joanarenak gaitun, “antigoalekoak”, “atzean utziak”, “hondatuak”; baliteken. Baina gu laurok, zehaztasunez oratuak, kontzientzia zorrozteko eta geure buruari galderra garratzak zuzentzeko gai gaitun. Gure senarrek, Aissatou, ezkontzaren bukaera hain mingarria izan bada ere, bazitenan bikaintasuna. Garaipenak ihes egin bazien ere, aurrera eraman zitenan bizitzako borroka; milaka urtetako pisua gaingitzea ez baita erraza.

Gazteei begira jartzen naun. Non da prestutasun hori, ohore irainduak eskatzen duenean erantzuna emateko, begiak erne? Non, lur eremu bat osoa auzolanera eramaten zuen harrotasun kemen hura? Bizi-goseak biziduintasuna hiltzen din.

Argi ikusten dun Mawdo Fallen arazotik urruntzen ari naizela.

Lizeoko zuzendariak leial zehazten din Mawdo Fallen eta irakaslearen arteko tirabira. Baina hoa irakaslearen aurka ikasleari arrazoi ematera!

Hor zagon Daba, nire alboan, bizi, zeregina ondo bete duela eta hortz guztiekin irribarre.

Etxeko lanek ez dituen Daba lehertuko. Berak bezain ondo atontzen din senarrak arroza: «Daba nire emaztea da. Ez da nire esklaboa, nire neskamea ere ez» aldarrikatzen din emaztea “galbidera” daramala diodanean.

Nabari dinat nola doan zentzaten bikote gazte horren samurtasuna; nik amets egiten dudana bikotearen irudia dun. Bata bestearekin bat egitera iristen ditun, guztiaz aritzen ditun eztabaidan konponbidearen bila.

Hala eta guztiz ere, dardara nagon Dabagatik. Halako ezustekoak ditin bizitzak! Horretaz mintzaten natzaionean, bizkarrak jasotzen ditin: «Ezkontza ez da katea. Bata bestearekiko bizi-egitasmoari atxikitzea da. Gainera, gutako batek ez baldin badu aurrerakoan bere burua batasun honetan aurkitzen, zer dela-eta geratu beharko luke lotuta? Abou (senarra) izan liteke, neu izan naiteke. Emazteak ere har dezake hausturaren iniziatiba».

Guztiaz ematen zinan arrazoia ume honek. Sarri esaten zidan: «Nik ez dut politikarik egin nahi, eta ez da herriaren zoria eta batez ere emakumearena axola ez zaidalako. Baina alderdi baten barnean eztabaida antzuak entzutean, gizonengan dagoen aginte-gosea aztertzen dudanean, nahiago dut politikari uko egin.

«Ez, ez naiz ideologia mailan borrokaren beldur; baina, politikako alderdi batean, urria da emakume batek aurki dezakeen zirrikitua. Erabakitzeke aginte gizonen eskuetan geratuko da luzaroan, baina, denok dakigun bezala, hiria emakumearen alorra da. Nahiago dut nire elkarte; hor ez dago lehiarik, ez bereizketarik, ez kalumniarik, ez bata bestearen bultzaka ibili beharrik; ez dago erdibanatu beharreko kargurik, ez bete beharreko lekurik. Urtero aldatzen da zuzendaritza. Gutako bakoitzak aukera berbera dauka bere ideiak aurrera ateratzeko. Gaitasunaren arabera gara erabiliak emakumearen promozioa bilatzen duten elkarretaratze eta

antolamenduetan. Ekimen humanitarioak laguntzeko dira diru sarrerak. Edozein militantziaren antzeko onurak bultzatzen gaitu, baina militantzia leiala da, barne betetasuna beste saririk ez duena».

Arrazoi onak ematen zitinan umeak... Gauza guztiez zitinan iritziak.

Daba alaba zaharrenari begira nagon, beraren anai-arrebengan zoragarriro ordezen bainau. Hire hominimo Aissatouk hartu din txanda etxeko zereginetan.

Aissatouk egiten din txikien garbiketa: Oumar zor-tzi urtekoarena eta Ousmane hire adiskidearena. Beren kabuz moldatzen ditun besteak. Amyk eta oinarrizkoak erakusten dizkion bere biki Awak laguntzen zioten Aissatouri bere lanetan.

Hain ditun antzekoak nire bikiak, ezen, batzuetan ez ditinat bereizten. Bihurriak ditun, eta gaiztakeriak egiten zizkieten mundu guztiari. Awak ez din Aminatak bezain ongi lan egiten. Gorputzez hain antzeko, nola ote dira hain aiurri ezberdineko?

Gazteenek ez ditun zaintzeko eta hezteko arazo latzik sortzen; garbituak, elikatuak, zainduak, begiratuak, hazten ari ditun; noski, nabarmen ona naun eguneroko baitaila zauri, katarro, buruko min eta halakoen aurkako borrokan.

Benetako gaixoaldiak gertatzen direnean, Mawdo Bâ etorri ohi dun laguntza ematera. Haren ahuldadea zirikatzan dut zuen arteko loturak hautsi dituelakoan, baina, hala ere, zinez goratzen dinat ematen didan laguntzagatik. Haren adiskide Modouk etxetik alde egin badigu ere, edozein unetan esna zezakenat.



## 23

Seme-alaba zaharrenek kezkatzen naiten. Amona gogorra ekartzen dudanean eztitzen ditun kezka horiek, gertaera bakoitzari esaera egokia aurkitzen baitzion hark. Gogoko zinan behin eta berriz esatea: «Etxekoandreak ez dauka bidaiatzeko astirik, baina badauka hiltzeko astia». Logale, eguneko beharraren azken zatiari amaiera eman behar zionean kexatzen zunan: «Ai! Ez zeukanat etzateko oherik».

Bihurria ni, etxeko hiru oheak seinalatzen nizkionan. Haserre, erasotzen zidan: «Bizitza hire aurrean dun, ez hire atzean. Jainkoak egin beza heuk ere nire egoera jasatea». Eta hara hemen ni “haren egoera jasaten”.

Haurra arazorik gabe jaiotzen zela eta hazten uste niran. Bide zuzena markatu eta hark hartuko zuela besterik gabe, uste niran. Alabaina, nire kaltetan ziurtatzen dinat zenbateraino den egia amonaren profetia hura: «Guraso berberetik jaio izanak ez din nahitaez antzarik sortzen haurren artean. Posible dun haien aiurria eta arrasto fisikoak ezberdinak gertatzea. Sarri ditun ezberdinak bestalde: guraso berberetik jaiotzea logela berean gaua pasatzea bezala dun».

Haren hitzek eragin zezaketen etorkizunarekiko beldurra apaltzeko edo, irtenbideak eskaintzen zitinan amonak. «Aiurri bakoitzak zentzabide bat eskatzen din. Laztasuna hemen, gozotasuna han. Txikiengan etekina emango duen ipurdikoak mindu egingo din hazitxo».

Egunero gertatzen dun kirioak ataka gaiztoan jarriak izatea! Baina hori dun amaren halabeharra».

Hori bihotza zurea, amama: zuregan ikasitakotik eta zure eredutik ateratzen nuen aukera zailetan bizkortzen ninduen kemena.

Aurreko gau batean, ustekabeen, hirukotea (hala deitzen dinagu etxean) harrapatu ninan logelan erretzen: Arame, Yacine eta Dieynaba. Keinu guztiek adierazten zitenan ohikoa zutela erretzea: hatzen artean zigarroa kokatzeko era, ezpainetaraino txairo igotzekoa, dakite-nek bezala xurgatzekoa. Sudurrak dardara egiten zuen, eta kea ihesi ateratzen zunan. Arnasa hartu eta airea botatzen zuten bitartean, lezioa buruz esan edo etxerako lanak egiten zitiztenan nire andereñoek. Ahozuriz dastatzen zitenan plazera, ate itxiaren atzean; ahal dudan neurrian saiitzen bainaiz beren intimitatea errespetatzen.

Deynaba, Arame eta Yacine nire antzekoak ditun, diotenez. Antzekotasun ugarik eutsitako adiskidetasun panpo-xak batzen ditin; taldea osatzen ditin nire beste haurren aurrean, erantzun fidagaitz eta babesle berberekin; batak bestearekin aldatzen ditizten gona, soineko, praka, kortse, ia-ia neurri berekoak baitira. Ez dinat sekula esku hartu beharrik izan beren arteko liskarretan. Ikasle saiatuen ospea din hirukoteak.

Baina hortik erretzeko baimena bereganatzea! Nire haserrearen tximistak jo zitinan. Ezusteak itsututa bainengoen. Emakumearen ahoa, usain gozoaren ordeztakoaren bafada kirastua dariola! Emakumeen hortzak, zuriz distira egin ordezt, nikotinaz belztuak! Hala ere, beren hortzak zuriak zeudenan. Nola konpontzen ziren balentria hori lortzeko?

Ezin itsusiagoa iruditzen zitzaidanan prakak janzte, osaeran Mendebaldekoen erliebe gutxikoa ez bahaiz. Prakak emakume Beltzaren forma oparoak erakusten

ditin, giltzurrunen eta aldaken konkordura gehiegi nabarmenduz. Baina amore eman ninan askatu orde ez esutu eta trabatu egiten duen modaren aurrean. “Garaiko haizera” ibili nahi baitzuten nire alabek, prakak onartu nitinan beren arropategian.

Aurrerapenaren ondorioen beldurrak harrapatu nindunan bat-batean. Ez ote zuten, ba, nire alabek ere erreka horietatik edaten? Nork jakingo? Grina txar batek beste bat ekar baitezake berekin. Ezin ote gara, ba, modernizazioan sartu, ohituren okerreko bidea lagun ez bada?

Neu ote nintzen, bada, alabei askatasun apur bat ematearen erantzule? Aitonak gazteak etxera etortzea galarazten zinan. Arratseko hamarretan, txilina eskuan, sarrerako atea ixtera zihoala ohartarazten zitinan bisitariak. Txilin-hotsaren konpasean agindu hau errepikatuz: «Hemen bizi ez denak alde egin dezala!».

Nik noizean behin kalera ateratzen uzten nienan alabei. Zinemara joaten zitunan nik lagundu gabe; mutil eta neska zitiztenan adiskide. Banitinan nire jokabidea zuritzeko arrazoiak: adina datorkionean, nahitaez, maitasun sentimendura irekitzen dun, dela mutila, dela neska. Nik nahi ninan nire alabek jatortasunean egitea horren aurkikuntza, errudun sentimendu, itxurakeria eta hondamenik gabe. Beren harremanen berri izaten saiatzen nindunan; jendetasunerako eta konfidentziarako giro egokia sortzen ninan.

Eta hara non erretzeko ohitura jaso duten beren harremanetatik. Nik ez nekinan tutik ere; nik, dena nire mende eduki nahi duen honek. Amonaren jakituria burura zetorkidan behin eta berriz: «Ona dun sabela elikatzea; hik ez badakin ere, bera hornitzen dun».

Gogoeta egin beharra neukanan. Okerreko bidea geldiarazteko, beharrezkoa ninan berrantolaketa.

Belaunaldi berriarekin, bide berria; horixe iradokiko zinan dudarik gabe amonak.

“Jostailu zaharra” izatea onartzen ninan. Tabakoaren kaltegarritasuna ezaguna ninan, eta ezin ninan haren kontsumitzea onartu. Ezezkoa zionan nire kontzientziak, alkohola gaitzesten zuen bezala.

Handik aurrera, bada, usainaren atzetik nenbilenan atsedetik gabe. Nire zaintzaren gordeketan jolasten zinan usainak. Maltzur eta burlati, nire sudurrak zirikatzen zitinan, ihes egiteko gero. Haien gordelekurik kutunena komunak zitunan, gauez batez ere. Baina ez zinan, ernai eta likits, zabaltzerik lortu.



## 24

Gaur ezin izan dinat arratseko otoitza nire gisara amaitu: kaletik zatozen orroek jauzarazi naiten eserita nengoen tapizetik.

Zutik, atarian, hara non ikusten ditudan nire seme Alioune eta Malick badatozela negar malkotan. Errukarrria egoera: jantziak urratuta, gorputzak hautsez mozorrotuta lurlean ibili direlako, belaun odolduak praka motzen azpian; zarratada luzea ageri dun Malicken jertsearen eskuineko maukan, besoa penagarri zintzilik. Lagun zetorren mutiko batek azaldu zidan: «Futbolearen ari ginela, motorrean zetorren gizon batek hankaz gora bota ditu Malick eta Alioune».

Gizaseme bat aurreratzen zaidan, ilea luze, betaurreko zuriz, gri-gria lepoan. Kaleko hauts erreak itxuraldatzen din bere jean osoa. Mutiko haserretuen jomuga, ostikoka erabilia, zauri odoldua hankan, hainbesterainoko etsaigoagatik gogaitua. Jantzkeraren narrasarekin kontrastean, barkamena eskatzen zidan doinu eta keinu adeitsuan: «Ezkerrera egin dudanean, berandu ikusi ditut gazte txoak. Bide aske batera nentorrela uste nuen norabide bakarreko kale horretara heldu naizenean. Ez zait burutik pasatu hurrek hortxe jar zezaketenik jolaslekua. Freinoa sakatu dut, baina alferrik. Gol egiteko atea mugatzen duten harrien aurka jo dut. Erortzean, aurretik eraman ditut zure bi semeak, eta beste hiru mutiko ere bai. Barka iezadazu».

Motorzale gaztea atsegina gertatu zaidan. Neureak eta bost bota zizkionat, baina ez zitunan beretzat. Bazakinat zein zaila den hiriko kaleetan barrena gidatzea; musulmanen auzoan batez ere, ikasia baitut. Asko maite ditzen mutikoez galtzada. Bere egiten dutenean ez ditzen beste ezer begiratzen. Deabruak balira bezala aztoratzen ditun bero-bero baloiaren atzetik. Maiz, beren lehiaren xedea hariz estu lotutako trapu zahar borobila baino ez dun. Zer axola! Gidariak ez zaukan freno, klaxona eta bere odol hotza beste babesik; hesia irekitzen zaion tarrapatant, bultzaka itxia berehala. Atzetik, lehen baino beroago, garrasika ekiten zioten berriro.

«Gazte, errua ez duk hirea. Nire semeena duk. Otoi-tzean ari nintzen bitartean iruzur egin baitiete nire begiei. Hoa, edo, itxaron apur bat, hire zauriarentzat alkohola eta kotoia ekarri bitartean».

Aissatou, hire homonimoak ekarri ditin alkohol iodoztatua eta kotoia. Ezezaguna zaindu din, eta, gero, Alioune. Auzoko mutikoez ez ditzen ontzat hartu nire obra ona. Zigorra nahi ditzen “egilearentzat”; nik haserre egiten zienat. Ai!, umeak! Istripua eragin, eta zigorra nahi ditzen mina hartu duenarentzat.

Dilindan dagoen Malicken besoa hautsita dagoela iruditzen zaidan. «Aissatou, eramanezan ezan erietxera azkar-azkar. Mawdo han ez badago, eramazanez larrialdietara. Hoa bizkor, neska». Istant batean jantzi dun Aissatou; lagundu zion Malicki garbitzen eta arropa aldatzen.

Zaurien odolbilduak orban ilun eta okaztagarriak utzi ditin lurrean. Haien garbitzean, gizakion identitateaz egiten dinat hausnar: odol gorri berbera atal berberak odoloztatzen. Leku jakinean kokatutako atal horiek zeregin berberak betetzen dituzten.

Sendagai berberak gaitz berberak osatzen dituzten zerupe guztian, dela beltza dela zuria laguna: denak bat

egiten baikaitu gizaki izaerak. Horrela, giza biziaren saraskiari begiratzen badiogu, zer dela-eta hiltzen dute elkar gizakiek arrazoi zirtzilengatik sortutako borroka gaiztoetan? Hala ere, izaki paregabetzat din bere burua gizakiak. Zertarako balio dio adimenak? Adimenak berdin sortzen din ederra eta gaiztoa, sarriago gaiztoa ona baino.

Hartzen dinat nire lekua meskita berdearen irudiz apaindutako oinazpiko oihalean, nire erabilerarako soilik gordea baita; garbikuntzarako galdara ere bai. Aliounek, ukatzen diodan eztingarriaren bila beti usnaka, bultzaka baztertu din Ousmane, nire ondoan bere tokia hartzeko. Ni, berriz, aukeraz baliatu naun demanda egiteko:

—Kalea ez duk jolas egiteko lekua. Gaur ondo atera zaik. Baina bihar? Kontuz Zerbait hautsiko zaik, anaiari bezala.

Aliounek marmarka:

—Baina auzoan ez dago jolas egiteko lekurik. Eta amek ez dute nahi etxeko patioetan jolas egitea. Zer egin behar dugu mutikook?

Haren oharra zuzena dun. Urbanismoko arduradunek jolas egiteko lekuak ere antolatu behar dituzten, esparru berdeak begiratzen dituzten bezala.

Orduak geroago, erietxetik itzuli ditun Aissatou eta Malick, non, beste behin ere, Mawdo ondo baino hobeto arduratu baita haietaz. Igeltsuz lotutako Malicken besoak erakusten zidan hautsita zegoela. Ai, zein garesti ordainarazten duten mutikook mundura ekarri izanaren poza.

Ai, kuttuna, dudarik ez, zoritxarreko gertakarien uholdea dun gaur. Horrela nagon ni egina: zoritxarrak harra-patzen banau ez nain sekula uzten.

Aissatou hire homonimoa hiru hilabetez haurdun zagon. Farmatak, kaurien griotak, zorigaiztoko aurkikuntzara

ekarri nain sator-jolas trebe baten bidez. Herriko esame-  
sek zirikatu zitanen noski, edo urte luzeetako begiratze  
senak esana zionan.

Gure eztabaidak eteteko kauriak botatzen zituen ba-  
koitzean (gure ikuspuntuak kontrajarriak zitunan beti),  
atsekabetuta, “han” intzeria jaurtitzen zinan. Intziri oze-  
nagoarekin erakusten zinan kaurien nahas-mahasean:  
neska gaztea haurdun.

Ikusia ninan hire homonimoaren mehetze ia bat-bate-  
koa, jateko gogorik eza, bularrak nola puztu zitzaizkion,  
bere baitan zeraman haurdunaldiaren adierazle.

Baina nerabezaroak ere aldarazten ditin gazteak: puz-  
tu edo mehetu egiten ditin, luzatu. Aissatouk, gainera,  
paludismo krisi gogorra izan zinan aitaren heriotzaren  
ostean, Mawdo Bâk gerarazia. Gizenen desagertzea garai  
hartatik zetorrenan.

Aissatouk, taila txairoari eutsi nahi ziolako, ez zinan  
berriro gizentzerik nahi. Apeta berri horren kontura bo-  
tatzen ninan nik hain gutxi jatea eta janari batzuen ar-  
buioa. Mehe, bere praktetan airean iduri, ez zitinan, nire  
atseginerako, gonak baino janzten.

Zintzo adierazi zidan behin Oumar txikiak, Aissatou  
botaka aritzen zela beren bainugelan garbiketak egitean.  
Baina Aissatouk, nik galdetzean, ezetza eman zidan;  
dentifrikoarekin nahastutako urari nazka ziola aitatu  
zidan. Oumarrek ez zidan botaka egite horiei bu-  
ruz berriro hitz egin. Jakin-min hori alde batera geratu  
zunan.

Nola imajina nezakeen begi bistara bat-batean leher  
egin didan egia? Nola asma nezakeen nire alaba, ziga-  
rretaren arazoan nire haserrea apaldu zuena, jolas askoz  
astunago batera emana zegoela? Halabehar bihozgabeak  
ustekabeen harrapatu nindinan berriro ere. Babeserako  
armarik gabe, beti bezala.

Farmata behin eta berriz eta egunero tematzen zunan bere kaurietako “neskatxa gazte haurduna” dela eta. Era-kutsi egiten zidan. Min zinan haren egoeraz. Esanguratsua zunan beraren jarrera: «Hara! Baina begira ezan: kauri bakarti hori, ezdeus airean. Begira ezan egoki dator-kion beste kauri hori, alde zuria gora, marmita eta tapakiaren antzera. Haurra sabelean zagon, amarekin bat egiten din. Bi kauri horien bikotea bakartuta zagon; loturarik gabeko emakumea dun, senarrik gabekoa. Baina, kauriak txikiak direnez, neska gaztea dela esan nahi din».

Eta bere eskuak behin eta berriz botatzen zitinan airera kauri berritsuak. Elkarri ihes egiten ziotenan, elkar topa, elkar zamalkatu. Beren txilin-hots iragarleak bahea betetzen zinan, eta bi kauriko bikotea beti bakartzen zunan larritasuna adierazi nahian. Grinarik gabe jarraitzen zinan beren hizkera.

Eta, arratsalde batez, nire xalotasunaz asper-asper, Farmata ausartu zunan: «Galde iezaiei alabei, Ramatulaie. Galde iezaiei. Etxekoandre batek ezkorra izan behar din».

Etenik gabeko setakeriarekin aztoratuta, urduri, onartu zinan proposamena. Iritziz aldatuko nintzen beldur, gazelaren usain fineko jauziaz, Aissatouren gelan desagertu zunan Farmata. Irabazi duenaren distira begietan irten zunan handik. Atzetik negarrez, Aissatou. Bidali zinan kanpora nire bubuan kuzkur zegoen Ousmane, atea giltzaz itxi eta aitortu: «Kauriek ezin dituen egunero gezurra esan. Hain temati azaldu badira, badagoela zerbait esan nahi din. Ura eta harea nahastuta zauden; lokatza sortzen dituen. Bil ezan hire lokatza. Aissatouk ez zion ezetzik bere egoerari buruz. Neuk salbatu dinat dagoena ezagutzera ematean. Hik ez zunan ezer sumatzen. Bera

ez zunan aitortzera ausartzen. Egoera horretatik ez zinenten sekula irtengo».

Zirrarak ixten zinan nire eztarria. Ni, hain bizia errietarako, isilik nengonan. Harri eta zur, berotasunez arnases-tuka. Begiak itxi nitinan, gero berriro ireki. Mingainari hozka nengonan.

Horrelako egoera baten aurrean, burura datorren lehen galdera dun: «Nork? Nor da lapurreta honen egilea, zeren, lapurreta, egon, bazagon; nor da hondamen honen eragilea, zeren, hondamena, egon, bazagon! Nor ausartu da? Nor...? Nor...?». Aissatouk delako Ibrahim Sall baten izena aurreratu zinan berehala, bere hizkeran Iba gertatuko zena.

Harri-harri eginda begiratzen nionan alabari, hain ondo hezia, hain samurra nirekin, hain lagunkoi etxean, hain eragin handikoa zeregin guztietan. Bat etor al dai-tezke hainbeste dohain horrelako jokaerarekin?

Unibertsitateko ikasle dun Iba, lege ikasle. Adiskide baten... urtebetetze jaian ezagutu zitenan elkar. Noiz-behinka, lizeora etorri ohi zunan Iba Aissatouren bila, eguerdian “jaisten” ez baldin bazen. Bi bider gonbidatu zinan bere gelara unibertsitateko eremuan. Ibarekin ondo egoten zela aitortu zinan alabak! Ez, ez zionan ezer eskatu; mutilak ez zinan ezertara behartu. Dena natural gertatu zunan bien artean. Ibak bazekinan Aissatouren egoera. “Lagundu” nahi zion lagun baten zerbitzuak ez zitinan onartu. Neskari atxikia zegonan mutila. Bekaduna izanik, beka galduta ere haurraren ardura hartzeko prest zegonan.

Aitorpen bakarraren jarraian ikasi behar izan nitinan guztiak, arnasestuek zotinka ebakitako esaldiekin baina inolako damurik gabe! Burua makur, Aissatou. Itxurakeriarik gabeko kontakizun hartan ezagutzen ninan alaba. Ezagutzen ninan bere bihotzean nire irudia eta

maitalearena biak batera bizitzea lortu zuen mutilareki-ko eskaintza osoan. Aissatouk begiak jaisten zitinan zapaltzen ninduen zorigaitzaz jakitun, isilik bainengoen. Eskuz eusten nionan neure buru akituari. Aissatouk begiak jaisten zitinan. Nire erraien karraska entzuten zinan. Jabetzen zunan zenbateraino zitekeen larria bere jokaera, lehenbizi abandonatua eta ondoren alargundu berria nintzen haren aurrean. Alaben borroketan, Dabaz aparte, bera zunan zaharrena. Zaharrenak etsenplua eman behar din... Nire hortzek klaska egiten zitenan, amorruez klaska.

Larrialdi garaian, bakardade urte luze haietan, sorospen bafada bailitzan Aissatou alabaren jarrera samur eta gozagarria gogora ekarriz, nire aztoramena menderatu ninan. Bizitzako ezbehar guztietan bezala, Jainkoarengana itzultzen nindunan. Nork erabakitzen ditu jaiotza nahiz heriotza? Jainko Ahalguztidunak!

Bestalde, ama gaitun azaldu ezin dena ulertzeko. Ama, ilunpeak argitzeko. Ama gaitun txitak ateratzeko, tximistak gaua marraz zirriborratzen duenean, trumoiak lurra urratzen duenean, lokatzak bidea labain bihurtzen duenean. Ama gaitun, ez hasiera ez azken, maitatzeko.

Nire izate osoarekin, alabaren eta oztopo guztien artean babes harresia eraikiko nuela zin egin nionan neure buruari. Neurriak hartu nizekionan aurrez aurre jartzeko une horretan alabarekin lotzen ninduen guztiari. Zilbor hesteak bizi berri bat bereganatu zinan, hautsi ezineko lokarri bat erasoan tropelaren aurrean eta denboraren luzaroan. Berriro ikusi ninan erraietatik atera berria, haur-oihal arrosatan ostikoka, bere aurpegi txiki zimurrez betea zetazko ileen mende. Ezin ninan abandonatu harrokeriak agintzen zidan bezala. Haren bizia eta haren etorkizuna apustu indartsua zitunan tabuak erais-teko eta beste guztiaren gaineko nagusitasuna ezartzeko

bihotzari eta arrazoiari. Beregan gor-gor zegien bizia galdera zunan niretzat. Ireki eta zabaltzeko lehia bizian zegonan. Dardara zeginan babes eske.

Neu nindunan behar bezainbesteko goieran egon ez nintzena. Baikortasunez gogobetea, ez nionan antzik hartu kontzientziaren dramari, bere izatearen irakinaldiari, bere buruko erauntsiari, beregan zeraman mirariari.

Ama gaitun uholdeari aurre egiteko. Alabaren lotsaren, zinezko damuaren, oinazearen eta estualdiaren aurrean, mehatxuka hasi behar ote nuen?

Hartu ninan alaba besoetan. Asaldura paganoz eta has-tapenetako samurtasunez osatua baino hamar bider indar handiagoz estutu ninan besoen artean. Negarrez ari zunan. Zotinka.

Nolatan ahal izan zuen berak bakarrik bere sekretuarekin bizi? Trauma eragiten din niregan ume honek nire haserretik ezkutatzeko erabili behar izan duen ahaleginak eta nagusitasunak zoraldiak harrapatzen zuenean edo nire umeteria bihurriarengan nire ordezkioak egitean. Min ninan. Zinkurinka nenbilenan. Bihotzean min.

Egundoko indarra erabili behar izan ninan zutitzeko. Eutsi! Ilunaldia arintzen hasi zunan. Eutsi! Argi izpiak bat zetozenan bakezko argitasunarekin. Zalapartaren gainetik babesa eta laguntza emateko erabakia argira zetorrenan. Malkoak xurgatzen nituen neurrian eta kopeta kiskalgarria laztantzen, nire erabakiak indarra hartzen zinan.

Bihar bertan, aholkua eskatuko zionat Aissatou txikiari.

Harri eta zur zegonan Farmata. Auhenen zain zegonan; irribarrez, ni. Gaitzespen sutsuak espero zintan; ni, bihotza arintzen saiatzen nindunan. Mehatxuak nahi zintan; nik barkamena eskaintzen nionan.



Dударик gabe, ez din sekula ikasiko zeri atxiki nirekin. Bekatari batengana samurtasunez inguratzea bere bu-ruaren gainetik zegonan. Gazte-gaztetandik nire pausoei itzala baillitza lotua, eztei jai handiosak zitinan amets Aissatourentzat nire eztei pobreen ordain. Hi goresteko ohitura zinan, Aissatou, diru mordo emango baihion homonimoaren ezkontzan. Fiataren historiak bere ega-rria zorrozten zinan, eta egundoko aberastasuna hiri egozten. Jai erraldoiak zitinan amets, eta hara non neska hau dirubako estudiante gazte bati eman zaion, zeina ez zaion sekula esker handikoa gertatuko. Nire lasaitasuna botatzen zidan aurpegira.

—Alabak baino ez ditun. Har ezan iraun dezakeen ja-rrera bat. Ikusiko dun. “Hori” egin duena Aissatou baldin bada, neure buruari galdegiten zionat zer ez duen egingo hire hirukote erretzaileak. Bete ezan laztanez alaba, Ra-matulaye. Ikusiko dun.

Ikusiko dinat, bai, Ibrahima Sall biharko deituz...



## 25

Hitzartutako orduan sartu zunan Ibrahima Sall nire gelan. Atsegin zaidan orduarekiko begiramen hori.

Handia, eguneroko jantzitan. Aurpegi atsegina oro har. Begiak, ordea, nabarmen ederrak. Gozoak, samurrak, begitarteko pantaila luzean. Gustagarriak emakume baten aurpegian... Irribarrea ere bai. Haren hortz lerroka-dan kokatu zunan nire begirada. Saldukeriaren seinaleko etenik ez. Ibrahima Sallek zuzen bereganatzen zinan: lotsagabe izpi bat lagun, lehen seduzitzaile gaztearen irudia. Atsegina gertatu zitzaidanan, eta bere txukuntasunak lasaitu nindunan: ilea motz eta ondo orraztua, azkazal ebakiak, oinetako distiratsuak. Gizaseme prestua behar zinan izan; azerikeriarik gabekoa, beraz.

Neuk deituta etorri zunan, baina berak hartu zinan hizketaren norabidea.

—Askotan izan dut buruan hizketaldi hau zu jakinaren gainean jartzeko. Badakit zenbateraino esanahi handikoa den alaba bat amarentzat, eta Aissatou sarri mintzatu zait zutaz, zuk dituzun loturei buruz; ezagutzen zaitudala iruditzen zait. Ez naiz abenturazalea. Zure alaba nire lehen maitasuna da. Bakarra izatea nahiko nuke. Barkamena eskatzen dizut gertatu denaz. Zu bat baldin bazatoz, Aissatouekin ezkonduko naiz. Nire amak zainduko du haurra. Gure ikasketak jarraituko ditugu.

Hara hor laburbildua eta zuzen esana nik entzun nahi nuen guztia. Zer erantzungo? Aise eman baietza bere

proposamenei? Aurrean zegonan Farmata zehaztasunei  
erne.

Berak zirikatu zinan:

—Heu haiz, hortaz, lehena?

—Bai —erantzun zinan Ibrahima Sallek.

—Ohartu, beraz, hire ama. Bihar joango gaituk, edo  
joango nauk, hire bidegabekeriaz jakinaren gainean jar-  
tzera. Aurreztu dezala diru mordoxka bat nire ilobari  
kalte-ordainak emateko. Bestalde, ezin izan al duk itxa-  
ron lanbide bat eduki arte nesken atzetik ibiltzeko?

Haserre gabe onartzen zitinan Ibrahima Sallek griota-  
ren oharrak. Izenez ezagutzen zinan beharbada, eta jitez,  
isiltasun adeitsu batez baino ez baitzuen kontrajartzen.

Farmataren kezketatik urrun, erabat bestelakoak zitu-  
nan nireak. Ikasturtean gintunan bete-betean. Nola jo-  
katu behar dut alaba ikastetxetik bidal ez dezaten?

Nire kezken berri eman nionan Ibrahima Salli. Berak  
ere gogoeta egina zinan horri buruz. Oporretan jaioko  
zunan haurra. Behar-beharrezkoena burua ez galtzea  
zunan; utzi hilabeteak aurrera joan zitezen, Aissatouk  
arropa zabalak jantz zitzala. Bi hilabete izango zitinan  
haurrak ikasturte berriaren hasieran. Azken urtea hasi-  
ko zinan Aissatouk.

Azken urte horren amaieran, ezteiak.

Arrazoi zuzenak ematen zitinan alabaren lagunak. Da-  
baren buru argian pentsarazten zidan.

Berak, Ibrahima Sallek, ez zinan unibertstatetik bida-  
lia izateko inolako arriskurik. Eta, lizeoko ikaslea baino  
ez bada ere, norik ohartaraziko zion ikastetxeari aurki  
aita izateko tenorea? Ez zunan ezer ageriko. “Zapal” ja-  
rraituko zinan... Alabaren sabela, baina, hanpatua, sala-  
tari gertatuko zunan.

Zer lege bihozbera etorriko ote oporraldi luzeak esta-  
liko ez duen lizeoko neska errudunen egoera arintzera?

Ez nionan ezer gehitu hain antolamendu zehatzari. Une hartan, alaba nire izatetik bereizi egiten zitzaidala nabaritu ninan, berriro mundura ekarriko banu bezala. Ez zegonan gehiago nire babesean. Lagunarena zunan nirea baino gehiago. Familia berria sortzen ari zunan nire begien aurrean.

Menpeko zeregina onartzen ninan. Fruitu umotuak zuhaitzetik erori beharra din.

Jainkoak erraz diezaiola ume honi bere bizitzako norabide berria.

Baina, dena den, zer bide?



## 26

Ohitura lasaigarriak ditun berriro nagusi, Aissatou. Oihal beltzen azpian, bihotzaren taupada monotonoak. Zenbat maite dudan erritmo geldo hori entzutea! Mentu berri batek txertatu nahi din etxekoen artean.

Ibrahima Sall egunero etortzen dun, eta ahal duena ematen zion gutako bakoitzari. Mawdo Falli bere logika ekartzen zion, eta, idazlanen eztabaidan, argitasuna. Oumarri eta Ousmaneri, ohituraz, txokolatea. Ez din gutxiesten Malicken eta Aliouneren jolasetan nahastea, ez baitute gehiago kalean jolasten, patioan baizik.

Malicken besoak igeltsu-zorroan jarraitzen din. Hanka ere hausten ez bazaio, ez baitio baloiari uko egiten!

Baina Arame, Yacine eta Dyeinaba hirukotea fidagaitz zaion beren artean sartzeari. Begiramenez agurtzen ditent, baina berotasunik gabe. Etsaigoa zieten haren gonbitei. Ezinikusia azaltzen ditent... ahal izanagatik.

Ibrahima Sallek gertutik jarraitzen din Aissatou ikasgai eta eskolako lanetan. Oso bihotzean zeukan lagunaren arrakasta. Ez din inolako atzerapenaren kausa izan nahi. Aissatouren buletineko notak gora zoazan: badun zer-baitetarako ona ezbeharra!

Farmatak ez din ondo hartzen Ibrahima Sall: *axolagabe* eta *lotsagabe* esaten zion. «Inoiz ikusi ote da atzerri-tar bat etxeko ahuntza askatzen?». Ez din hori bota gabe hutsik egiten.

Ibrahima Sallek, asaldagaitz, egoerari egokitzeko aha-leginak egiten ditin. Nire lagungoa bilatzen din, nirekin

eztabaidatzen ditin berriak, egunkariak eta fruituak ekartzen zizkidan batzuetan. Haren gurasoak ere, Farmata erneak salatuta, gu ikustera etorri ohi ditun, eta kezka agertzen dituen Aissatouren osasunaz. Eta betiko ohitura lasaigarriak nagusi ditun berriro...

Hire bekaizti naun, ez baihaiz mutilez baino erditu! Ez ditun ezagutzen alaben arazoekin gainera etorri zaizkidan estuasunak.

Azkenean, heziketa sexualari aurre egitea erabaki dinat. Hire homonimo Aissatouk txunditu nain. Orduetik aurrera, zuhurrago jokatzen hasia naun. Hirukoteari mintzatzen natzaion, bikiak gazteegiak baitira oraindik.

Zelako zalantzak izan nituen garai batean! Ez nitinan nire alabak armatu nahi gozamenarekiko immunitatea eskainiz. Azpikoz gain zagon mundua. Lehengo amek kastitatea erakusten zitenan. Haien itzal handiko ahotsak arbuiatzen zitenan ezkontzatik kanpoko “alderrai ibiltze” oro.

Oraingo amak “debekatutako jolasen” lagun gertatzen ditun. Kalteak murrizteko laguntza ematen dituen; hobe esanda, aurretik neurriak hartzeko. Seme-alaben bidea oztopatzen duten arantza eta harriak erauzten dituzten askatasun guztiak eskuratzeko. Minez makurtzen naun nahikeria horretara.

Behin eta berriz saiatzen naun nire alabek gorputzaren balioaz kontzientzia har dezaten. Aditzera ematen saiatzen naun sexu harremanaren esanahi ezin ederragoa, maitasunaren adierazpide baita. Antisorgailuen existentziak ez ditin desioen eta grinaren askatasun basatira eramane behar. Haiek mendean hartzean, arrazoiaren bidera ekartzean, haien arteko aukera egitean, haiekin atxikimendu ahalmenean bereizten dun pertsona abereengandik.



Emakume bakoitzak nahi duena egiten din bere bizitzaz. Emakume baten bizitza lizuna ez zatorren bat moralarekin. Zer ateratzen da plazeretatik? Zahartzaro goiztiarra eta lotsaizuna, dudarik ez, azpimarratzen ninan nik.

Nire hitzek zaila zitenan bidea alabengan. Han geundenon artean, neu nindunan zaugarriena. Harridurarik txikiena ere ez baitzen marrazten hirukotearen aurpegietan. Nire hitzek, aizkorakadek, ez zitenan piztu inolako jakin-min berezirik. Ate ireki bat iltzatu nahian ari nintzelako irudipena hartu ninan. Hirukoteak bazekinan, beharbada... Isilune luzea... Eta hirukoteak alde egin zinan...

Lasaitasun “uf” bat atera zitzaidanan. Tunel estu bateko ibilera luzearen ondoren argira ateratzen ari nintzen irudipena ninan.



## 27

Bihar arte, adiskide kuttun hori.

Nahiko denbora izango dinagu geuretzat, Aissatou, are gehiago alargun oporrak luzatzea lortu dudalako.

Gogo ematen ari naun. Barne iraultza honek ez hau ia batere harritzen... Ezin zionat buruari galarazi bihotza hustea. Ez eta hemen laburbiltzea ere. Mundua astintzen ari ditun emakumearen askapenari buruzko ur-biziek, eta ez naiten ezaxola uzten. Arlo guztietako haustura darraren astinaldi horrek erakusten zigun zenbaterainokoak diren gure gaitasunak.

Jai egiten din nire bihotzak emakume bat itzaletik argira ateratzen den bakoitzean. Bazakinat zein mugikorra den lortutakoen eremua; zaila dun iraupena: gizarteko trabak bultzaka zauzkanagu beti, eta gizonezkoen egoismoak eutsi egiten zion.

Batzuentzat lanabes, besteentzat beita, begirunez begiratuak edo erdeinatuak, isilaraziak sarri: erlijioek eta gehiegizko legeek oinarriak jarrita, zori berbera ditenek emakume guztiak.

Nire gogoetek bizitzako arazoetan errotu naiten. Gure etorkizuna bideratzen duten erabakiak aztertzen ditinat. Gaur munduan gertatzen ari dena zulatuz zabaltzen ditinat nire aburua.

Jabetuta nagon beharrezkoa eta ezinbestekoa dela gizonaren eta emakumearen arteko osagarritasuna.

Maitasunak, bi izaki horien arteko lotura naturalak baziraun, bai edukian bai espresioan oso akastun azaltzen bada ere.

Elkar maite! Bikotekide bakoitzak egiaz jo ahal baleza bata bestearengana! Bakoitza bestearengan urtzen ahalegindu ahal baledi! Bestearen garaipenak eta porrotak bere egingo balitu! Hutsen eta akatsen zerrenda eraiki ordez, bestearen dohainak goratuko balitu! Nork bere grina okerrak apalduko balitu, horretan gogaikarria gertatu gabe! Alditxarrak aurrez ikusteko gordelekurik sekretuenak argira aterako balitu eta lagun gertatu, sendatuz, isileko gaitzetan!

Instrumentu ezberdinen adostasunak sinfonia atsegina eraikitzen duen bezala, bikotearen elkar aditzetik jaiotzen dun familiaren arrakasta.

Aberats eta pobre, batu eta urratu, ganorazko eta kaskarin, familia guztiek osatzen ditzen Nazioa. Nazio baten arrakasta, nahitaez, familiatik pasatzen dun.



Zer dela-eta ez dira hirekin joango seme-alabak? Ai! Ikasketak...

Horrela, bihar, jostun trajez ikusiko haut ala soineko luzez? Dabarekin egiten dinat apustu: jostun janzkeran. Hemendik urrun bizitzen ohitua, mahaia, platera, aulkia, sardexka nahiko ditun —Dabarekin egiten dinat berriro apustu—.

Lasaiago, esango dun. Baina nik ez dinat jarraituko. Oihala zabalduko dinat lur gainean. Erdian, lapiko handia, lurrun jario, eta beste eskuek ere bertatik hartzea jasango dun.

Duela urte asko gogortu hauen oskolaren azpian, sinestegaitzeko kopetilunaren azpian, hire ibilera apur bat

lotsagabearen azpian, hire barne dardara sumatuko dinat agian. Zenbat maiteko nukeen hi entzutea nire bihozkadei galga jarri nahian, edo bihozkada horiek bi-ziagotzen, garai haietan bezala, eta garai haietan bezala bide bila parte hartzen ikusiko bahindu.

Abisu ematen dinat, badaezpada: ez zionat uko egiten nire bizitza berregiteari. Denen gainetik –etsipen eta umiliatze– itxaropendun naun. Landare berdea humus zikin eta okaztagarritik jaiotzen dun, eta nigan kimu berriak ageri direla nabari dinat.

Zorion hitzak zerbait estaltzen din, ezta? Haren bila aterako naun. Zoritxarra nirea, hain gutun luzea idatzi beharrean gertatzen banaiz...

Ramatulaye.



# **Hitzostea**

**Mariama,  
jaso ditinagu hire hitzak**

Josune Muñoz





Euskarazko literaturara Afrikako testuak ekartzeko aha-  
legin gutxi egin da. Ziur asko, auzoliteraturen joerek  
bultzaturik. Batetik, Frantziako Estatuan ez da itzulpen  
behar hori hedatu, batik bat literatura afrikar frankofo-  
noa argitaratzearen alde egin delako. Bestetik, Espainia-  
ko Estatuan Afrikako literatura argitaratzeko ahaleginak  
egon badira ere, oso gutxitan egon da hango literatura  
bide komertzialetan sartzeko benetako saiorik, asmo-  
rik edo apusturik. Argitaletxe komertzial handien kata-  
logoetara begiratu besterik ez dugu horretaz ohartzeko.  
Testuinguru horretan, orain arte, Afrikako literatura eus-  
karaz irakurtzeko aukera eskasa izan da oso<sup>1</sup>. Ipuin uga-  
ri, egia da; baina eleberri gutxitxo. Afrikako ipuingintza  
munduko aberats eta erakargarrietarikoa izan arren,  
genero literario horri begiratzeak Afrikako literaturaren  
irudi jakin bat sortu du: hain zuzen ere, haur imajinario-  
ra hurbiltzen dena. Afrika koloretsua, animalia basatiz  
betea, basamortua edo oihana baino ez duena kontagai.

---

1 Esku artean duzun eleberria, agian irakurria duzuna dagoeneko, gertakari  
ezohikoa da euskal kulturari: emakume afrikar baten eleberria euskaraz  
irakurtzeko aukera dugu, lehen aldiz. Hainbat ahaleginen emaitza da: ai-  
pagarriena, Afrika biziki ondo ezagutzen duen Iokin Otaegiren prestasuna.  
Emakume afrikarren eleberririk euskaratu ez zela jakin zuenetik, itzultze-  
lanari lotu zitzaion, eleberri bikain hau, *Hain gutun luzea*, euskaraz ira-  
kurtzeko aukera izan genezan.

Irudi biko topikora makurtuz kontinente erraldoi bat, berrogeita hamalau Herri bateratzen dituen.

Eleberrigintzari begiratuz gero, bestelakoa dugu irudia. Afrikako eleberrigintza aspaldikoa da, gainera, zenbait ikertzailek azpimarratu duten eran: «Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Afrikako eleberrigintzak literaturaren agertokia hartzen du, eskubide osoz hartu ere (...), eta Afrikako errealitateari buruzko ikuspegi berri bat aurkezteko balioko du: afrikarren beraien ikuspegia». (Diaz 2005: 17). Horren erakusle argia dugu *Hain gutun luzea* eleberria, beste Afrika bat irudikatzen diguna; kolonizazio garaia ondorengo Senegal, alegia.

Mariama Bâ Senegalgo hiriburu jendetsuan jaio zen, Dakar ospetsuan, 1929an. Goi-mailako familia musulman batean sortu zen, inguru tradizional batean; baina, emakumea izanda ere, maistra-ikasketak egiteko aukera izan zuen: egoera eta bizi-baldintzak aldatzen ari ziren seinale. Mariama Bâk goiz galdu zuen ama. Aita, 1956tik aurrera Senegalgo osasun-ministro izan zen; kargu horretan jardun zuen lehen afrikarra, hain zuzen. Eta aitak erabaki zuen Mariama Bâk heziketa modernoa jaso behar zuela.

Afrikako literaturaren adituek XX. mendeko emakume idazleez jardutean, bi belaunaldi aipatu ohi dituzte: lehen belaunaldia eta bigarrena. Mariama Bâ lehen eta bigarren belaunaldien artean kokatu ohi dute. Lehen belaunaldian, idazle hauek kokatu ohi dituzte: Kameruneko Marie Claire Matip (*Ndonga*, 1958) eta Therese Kouh-Moukoury (*Recontres essentielles*, 1969); eta Senegalgo Aminata Sow Fall (*Le revenant*, 1976). Lehen belaunaldiko idazleen liburuetan Afrikako kultura, belaunaldi eta esparruen arteko tentsioak, gatazkak eta kontraesanak aztertzen badituzte ere, ez dute Afrikako patriarkatuaren aurkako jarrera ozen eta argirik. Beraz,

Mariama Bâ ez da lehen idazle emakume afrikarra, esan izan denaren kontra, baizik eta gailentzen zen ikuspegia eta jarrera irauli zuen lehena, beste era eta bide batzuk lantzen lehena:

Hau dun unerik beldurgarriena Senegalgo emazteki guz-tientzat: denbora labur honetarako sakrifikatzen ditin ondasun guztiak ezkon familiaren oparitan. Are okerra-go, beren pertsonalitatetik eta duintasunetik eten egiten dun, eta senarraren zerbitzuko gauza bilakatzen; haren aitonaren, amonaren, aitaren, amaren, anaiaren, arre-baren, osabaren, izebaren, lehengusuen, lehengusinen, adiskideen zerbitzuko objektu. Baldintzatua geratuko dun haren jarduera: ezkonahizpetatik inork ez baitu, zikoitz eta zeken, ezkontza nahasle edo abegi txarreko emazte baten burua ukituko (14. or).

Aitzindari eta apurtzaile izan zen Mariama Bâ: literatura-bide berriak urratu zituen. Ohiko tradizioaren eta modernitatearen arteko talka aztertzeaz gain, ikuspuntu eta sentsibilitate feminista afrikarra jorratu zuen. Horre-gatik dugu klasiko bat *Hain gutun luzea*, ospe eta eragin handiko eleberria. Izan ere, 80ko eta 90eko hamarkade-tako idazleak Mariama Bâk zabaldutako bideetatik abia-tu ziren. Besteak beste, Werewere Linking, Ken Bugul eta Calixthe Beyala<sup>2</sup>.

Baina itzul gaitezen Mariama Bâren garaira, idazlearen ekarpena kokatze aldera.

Senegalek independentzia lortu zuen 1960. urtean. Mariama Bâ maistra zen garaitsu hartan, eta Obeye Diop Asanblea Nazionaleko diputatuaren emaztea; beraz,

2 Baita ingelesez idatzi zuten beste idazle batzuk ere: Grace Ogot, Buchi Emecheta, Ama Ata Aidoo eta Tsitsi Dangarembga.

hurbil-hurbiletik bizi zituen garaiko borrokkak, itxaropenak, aldaketak... Mariama Bâk emakumeen eskubi-deen aldeko borroketan parte hartu zuen, eta giro haren emaitza bikaina eskaintzen digu *Hain gutun luzean*. Mariama Bâk, begirada argi eta zorrotzaz, aldaketa-aro haren kronika egiten du, Ramatulaye protagonista-ren ahotik. Garai hartan, Afrika berria esnatzen ari zen, eraldaketa soziala borborka zegoen; iluntasun, itzal eta kontraesanez beteriko Afrika, benetakoa. Hamaika etnia, hamaika hizkuntza, kontinente bakarrean: Fon, Malinké, Dioufene, Diolas, Madjago, Peul, Bambara... Zarataka eta taldeka aritzeko joera, kolorez betetako Afrika bizi-bizia. Usainak, jendearen joan-etorriak, aisialdia, janariak, jantziak, algarak, dantzak... dibertitzen bada-kien Afrika alai; baina baita ohiko lanbide eta jakintzak atzean uzten ari den Afrika beltza ere, Europa zuriarekin liluratuta.

Kronikagile bikaina dugu Ramatulaye. Bikain lortzen baitu, adibidez, orrialde pare batean kolonizazioaren hari fin, luze eta hautsezinak agerian uztea eta zerrendatzea:

Gure belaunaldiaren pribilegioa izan dun bi garai histori-koren arteko giltzarri gertatzea; mendetasunarena bata, independentziarena bestea. Proiektuen bultzatzaile ginelako iraun geninan gazte eta eraginkor. Independentzia eskuratu genuenean, han geundenan gu Errepublikaren sorreran, ereserkiaren jaiotzan eta ikurrina jasotzean (46. or).

Beste kontu historiko batzuen kronika ere topatuko dugu. Deskolonizazioaren borroka amaitu ondoren, es-tatu independenteak eraikitzeke ahaleginetan ari ziren gizon zein emakumeen bizipenak ere islatzen dira. Tradizioen, sineskerien eta ohituren kaiolatik askatzeko

ahaleginetan aritu ziren, Ramatulayek pasarte hauetan ongi azaltzen digun bezala:

Askatasun misiora bidalitako benetako ahizpa batzuk gintunan. (...) geurea ukatu gabe, zibilizazio ugarien aldetik balioetsiak izan; munduarekiko ikuskera jaso, nortasuna landu, geure berezitasunak indartu, gure akatsak apaldu; moral balio unibertsalei gugan fruitu emanarazi (33. or).

Irakasleek, haur eskolatik unibertsitateraino, laudoriozko aipamenik eta dominarik irabaziko ez duen armada bikaina osatzen dituen (44. or).

(...) Gainezka betetako eskolako geletan zutik, geu gintunan ezjakintasuna gainditzeko osatu behar zen ahalegin erraldoiaren hauspoa (43. or).

Geroago, Afrikako emakumeen lan eskerhari eginiko traizioa kontatzen digu, eta lorturiko eskubideak nola eten zituzten kontatzen:

«Zuek adinako eskubidea diagu geure buruaren ahalmenaren mugaraino akuilatuak izateko jakitaterako bidean. Baldintza beretan banatu eta zuzen ordaindutako lan eskubidea ere bai. Funtsezko arma duk boto eskubidea. Eta hara non Familia Legea aldarrikatu den, emazterik apale-nariereluzarozenezetsizaionduintasunaaitortzendiona.»  
«Baina, Daouda, murrizketak egon, bazaudek (...) Badi-tuk ia hoge urte independentzia lortu zela!» (103. or).

Garaiko «pertsonek politikoa da» lelo feministari lotuz, Mariama Bâren begirada zorrotzak arlo publikora zein pribatura begiratzen du, geroago beste emakume

idazle batzuek egingo duten bezala. Are gehiago, ezau-  
garri hori bilakatu zen idazle horien literaturaren gakoe-  
tariko bat, Inmaculada Diaz Narbonak *Otras mujeres,*  
*otras literaturas* liburuan azaltzen duenez:

(...) funtzio politiko bat, pribatua zen hura publiko bilaka-  
tzekoa. Pertsonaia narratzaileari esker, kontatzen dena-  
ren lekukoa baita, testua egiazkotu egiten da; prozedura  
horrek intimitasun- eta aitopen-giroa sortzen du...  
(Diaz 2005: 35).

Narratzaileek ikuspuntu pribatu eta eguneroko batetik be-  
giratzen diote errealitateari; horrela, bizitzaren hainbat  
alderdi aztertzen dituzte, eta hain zuzen ere, alderdi ho-  
riek ez dute errealitatea ezkututzen, ezpada gizartearen  
benetako zailtasunak agerrarazten (...) emakume baten  
begirada kritikoa gizarte horri, gizarte bat, zeinak, alda-  
ketak gorabehera, emakume afrikar baten bizitzaren oi-  
narriak markatzen jarraitzen baitu (Diaz 2005: 49).

(...) antzinako espazio bat, eraldatu nahi ez duena (Diaz  
2005: 51).

(...) ezein emakumek ihes egin ezin dion errealitate bat;  
ahalik eta hobekien itzuri egitea, hori du erremedio ba-  
karra. Edo beste emakume batzuen sostengua jasotzea,  
elkarrekin etorkizun bat eraikitzeko (Diaz 2005: 54).

Beraz, *Hain gutun luzea* irakurtzeak, aipatutako be-  
netako Afrika bizi horretara hurbiltzeaz gain, Afrikako  
tradizioa eta modernitatea, arlo publikoa eta pribatua  
hobeto ezagutzeko parada eskaintzen digu. Horretarako,  
Ramatulayeren begiradak lehenik, eta ahotsak geroa-  
go, Senegalgo bizimoduaren geruza eta esparru guztiak

arakatzen dituzte: politika zein garbiketa-ohiturak, hezkuntza zein dantzarako jantziak, etorkizuna zein eguneroko sukaldaritza... Zoom erako jokoak eginez, hurbiltasunerantz edo urruntasunerantz. Nitik gurantz edo, alderantziz, orokorretik partikularrerantz abiatuta, Ramatulayeren istorioak garaiko Senegalgo emakumeen istorioa/historia gorpuzten du.

Eta, eleberria frantsesez idatzita egon arren, literatura postkolonial guztietan gertatzen den bezala, herri-hizkuntzen aztarnak topatuko ditugu narrazio osoan zehar, jendarte horien aberastasun eta konplexutasuna gogoraraziz. Esaterako, Woloferazko hitzak, ohitura eta sinemenen ingurukoak: *gri-gria*, *Siguil ndigalé*, *henna*, *griota*, *Kora*, *laobe*, *gongo*, *Gelewar*, *ndol*, *Gnac*, *Guer*, *Samba Lingere*. Jendarte klaseen edo taldeen ingurukoak: *Djou-djoung*, *Sine*, *tour*; *wolere*... Janarien ingurukoak: *laax*, *kola-intxaurrak*, *Thiakry*; *kauriak*, *safara*. Janzkeraren ingurukoak: *bubuak*, *Bazzin*, *rombal band*... Baita islameko hitzak ere: *zem-zem*, *henné*, *Miraas*, "*Bissimilai! Bissimilai!*", *Hadja* eta *El-Hadj* tituluak, *djin*, *couscous*, *babutxa*... Eta, azkenik, modako hitzak: *SICAP*, *biguine*, *gourmetteek*, "*prêt à porter*", *pin-ups*, *night-club*, *Alfa Romeo*, *Fiat 125*.

Hitzez haraindi, esaera eta errefracuak ere ugari, tradizioaren igorle, errepikaren errepikaz. Behin eta berriro aurkituko ditugu halako esaerak eleberrian zehar, idazkerari darion ahozko kutsu hori indartu ez ezik emakumeek jasandako tradizio atzerakoia agerrarazten dutenak: horren adibide batzuk baino ez dira «Etxekoandre batek ezkorra izan behar din» (133. or) eta «Etxekoandreak ez dauka bidaiatzeko astirik, baina badauka hiltzeko astia» (125. or). Mineke Schipper Afrikako kulturetan adituak eginiko gogoetetan, argi azaltzen da errefracuak joera arautzailea, tradizioaren gordailu dira

eta. *No te cases con una mujer de pies grandes* liburuan ohartarazi bezala, Afrikakoaz gain, mundu osoko erre-frauen joera da misoginia, baita Euskal Herrikoena ere (ikus Garate 1998).

Afrikako betiko tradizio horri, gainera, beste bat batzen zaio: erlijio islamikoa. Islamak zehatz-mehatz ezartzen ditu bizitzak eta bizimoduak arautzeko bideak, eta bada eskakizunen artean bat gailentzen dena: esanekoak izatea, eta otzanak —emakumeen kasuan, bereziki—. Ramatulayek oso argi erakutsiko digu islamaren legeak ez direla berdinak gizon eta emakumeentzat:

Uler nezala eskatzen zidanan. Baina ulertu, zer behar ninan ulertu? Grinaren nagusitasuna? Iruzur egiteko eskubidea? Aldaketa gogoaren aitzakia? Ezin nindunan poligamo joeraren aldeko azaldu. Beraz, ulertu, zer ulertu? (61. or).

Poligamia da nagusi afrikar tradizioan zein islamikoan. Azken horrek Jaungoikoaren legetzat du poligamia:

Ala guztiahaldunak bi izaki bata bestearen ondora ekartzen dituenean, ezin du inork ezer egin aurka (65. or).

Jainkoak bigarren emaztea eman zionan, berak ezin din hor ezer egin. Zorion hitzak baino ez ditin hiretzat, gizaldi laurden batez ezkontide izan haizelako, emazteak senarrari zor dizkion atsegin guztiak eman baitizkio. Haren senitarteak, batez ere neuk, anaia nagusia naize-nez, eskertzen dinagu (65. or).

Afrikako emakumeek poligamia ulertu, onartu eta defendatzen dutela esan bada ere, Ramatulayek kontrakoa adierazten digu eleberri honetan. Eta lehena baino ez da,



poligamiak dakartzanak salatu baitituzte geroko idazleek ere (Buchi Emechetak, Paulina Chizianek eta abarrek; emakume idazle gehienek, alegia): iraina, mina, abandonua, gizonen erantzukizunen utzikeria, jeloskortasuna eta inbidiak, istiluak eta beste.

Gizon batekin eman hogeita bost urte, bitartean hamar haur mundura ekarri, eta berriro hutsetik hasi? Ba ote nuen neuk bakarrik nahiko indar erantzukizun moral eta material horren pisuari eusteko? (70. or).

Nahigabe asko entzuna naun neurea ez ulertzeko. Hire kasua, Aissatou, eta beste emakume askorena. Gutxietsiak, zokoratuak edo trukean emanak. Asko erabilitako edo modatik kanpo geratutako bubu urratuak bezala bazterrera utziak. Zorigaitzak harrapatzen hauenean, indarra behar dun gero hari gaina hartzeko (72. or).

Ez baita betetzen Koranak argi adierazten duena: alegia, senarrak emazte guztiak berdin hartu eta zaindu behar dituela. Usu, gazteenak edo heldu den azkenak jaso ohi du diru eta arretarik gehien. Ramatulayek, emazte zaharrenak, adinekoen patu hori salatzen du:

Ez zunan sekula gehiago etorri; bere zorion berriak gure oroitzapena estali zinan apurka-apurka. Ahaztu egin gintinan(79. or).

Modouk erauzi egin nindinan bere bizitzatik (...) Utzia, abandonatua, airean dabilen hostoa jasoko duen eskurik aurkitu gabe, horrela esango zinan amamak (88. or).

Testuan, Ramatulayeren ahotsa da nagusi, baina Aissatouk ere hartuko du hitza pasarte batean, bere

duintasuna defendatzeko, hau da, Mawdo-ri idatziriko gutunean (57. or). Une esanguratsua, beste ahots narratibo bat sartzen baita eleberrian.

Emazte berri eta gazteagoaren aurrean jarrera oso ezberdina dute bi emakumeek. Aissatouk ez du onartuko, eta bertan behera utziko du harremana. Ramatulayek lagunaren ausardia miretsiko badu ere, eta emazte berria onartuko ez badu ere, ez du senar-emazte hitzarmena hautsiko. Halere, horrek ez dio abandonua arinduko.

Berriro ere, Ramatulayeren hausnarketan sakontasuna azpimarratu behar dugu, bereziki une horretan, bere etorkizuna kolokan dagoenean: «Ez baitizkinat sekula hainbeste begiratu, ez zaizkidalako horrenbeste axola izan» (162. or). Ez du ezer ezkututzen, alde ilunei ez die beldurrik. Senegal, bere herria zein bere mundua, patxadaz eta zorrotz aztertuko du zortzigarren atal osoan zehar; hausnarketa sakonean emango du denbora luzea<sup>3</sup>. Beraz, Ramatulayeren kezkak eta kexuak ez dira hase-realdi edo egonezin baten isla soilik; Ramatulayeren inkonformismoa emakume begiradatik haratago doa: humanismo ariketa bat da. Jende ororentzat dira muga tradizio itxiak, ohitura zaharkituak eta sinesmen estuak. Ez dituzte emakumeen hegalak bakarrik mozten, gizonak, alde erosoenean egonda, konturatzen ez badira ere.

*Hain gutun luzea* adiskidetasun baten gorpuztea da batik bat, Ramatulayek Aissatouri bidalitako gutunean eraikia. Lagun bien babeslekua adiskidetasuna da: «Adiskidetasunak badin maiteminak ezagutzen ez duen handitasuna» (90. or). Narrazioaren egitura laguntasun horretan datza. Nokaren erabilerak maitasun, hurbiltasun eta konfiantzaz blaitzen du gutun osoa; eta tonuak, askotan, ahapeka egina dirudi, isilgordeka,

---

3 5. kapitulua dugu horren emaitza.

elkarri konfidentziak eginez: «Ondo dakin hik zenbateraino naizen minbera. Bai batak, bai besteak erakutsitako jokaerak ez zidan grazia izpirik egiten...» (25. or); «Eta gizon hori pasio osoz maite izan dudala aitortu behar» (28. or); «negar egiten zionat Modouri, eta ezin dinat ezer egin horren aurrean, Aissatou» (95. or). Aldeko entzulea eta hartzailea duela jakiteak isilik egoteko mandatua hausteko indarra ematen dio, lagunari sentitzen duena ozen esateko. Ironia erabiltzeaz gain, Mariama Bâk emakumeen eleberrietan ezohikotzat jotzen diren tonuak erabiltzen ditu: tonu isekaria, tonu mingotsa, haserrea... Beraz, hika irakurri dugun gutun luze honetan, bi emakumeen arteko konfiantza gorpuzten da, baina, aldi berean, barrenak hustu eta minak partekatzen dira, eta amorrua adierazi.

Askotariko gaiak eta tonuak gurutzatzen dira, hortaz: barnea lasaitzeko eta salatzekeo kapituluak; maite eta miresten duen Senegal deskribatzeko eta ohitura zaharrek dakarten atzerapenaren kronika egiteko uneak... Mariama Bâk, ahozko substratua duen eleberri moderno honetan, bikain bateratzen ditu estetika eta kritika soziopolitikoak; eta garaiko emakumeen egoera publikoaren eta pribatuaren kronika sakona eskaintzen digu. Asmo handiko eleberri honetarako Mariama Bâk erabili zuen estiloa erabat egokia dela uste dugu. Eleberri tradizio handirik gabeko Senegalen, gainera, eleberri bat sortzea ardua handiko eginkizuna zen. Mariama Bâk ahozkotasunean oinarritzen zen estiloa hautatu zuen, eta arintasunari eman zion garrantzia. Eleberri, kapitulu nahiz ahapaldiak laburrak dira. Esaldiak ere, laburrak eta indarrez beteak. Deskripzioz jositako eleberria da, eta zoom efektuari esker lortzen ditu mugimendua eta bizitasuna:

Taxi! Taxi! Azkar! Azkarrago, mesedez! Nire aho-lehorrara! Bola geldi mingarria bularrean! Azkar ba! Ospitalera! Zornearen eta eterraren usain nahasiak. Aurpegi suminduak. Ezagunen talde bat negarrari emana. Ezbehar beldurgarriaren gogoz kontrako lekukoak. Amaitzen ez den pasillo luze bat. Gero eta luzeagoa. Eta, han, gela bat. Gelan, ohea. Ohean, Modou. Oihal zurian bilduta zerraldo (10. or).

Ahokotasuna nonahi aurkituko dugu; errefrauak, istorio laburrak, elkarrizketa bizi-biziak; Ramatulayek iman edo griotekin dituen elkarrizketak berrirakurri baino ez dugu. Afrikako erritmo biziak, baina baita lasaiak ere. *Hain gutun luzea* aurrera doan heinean, Ramatulayeren nekea areagotu egiten da, erritmoa lasaitu egiten da, lirikoagoa bilakatzen da: «Oihal beltzen azpian, bihotzaren taupada monotonoak. Zenbat maite dudan erritmo geldo hori entzutea!» (143. or). Alarguntsak gorde behar dituen berrogei dolu-egunak pasatu ondoren, Aissatou lagunarekin elkartzeko unea hurbil du: «Batera zenbatuko ditugu loraldi zimelduak ala hazi berriak lurperatuko ditugu ekoizpen berrietarako?» (119. or).

Poligamia jorratzerakoan, eleberriko gai eta salaketa iturri nagusia baita (hari eskaini baitizkio orrialde gehien), parte-hartzaile guztien egoera hartu du kontuan, honako ondorio honetara heltzeko: saria benetakoz zoriona baldin bada, poligamian kide guztiak dira kaltetuak (aurreko emaztea, datorren emakume gaztea, gaztetasan bila doan gizon heldua...); poligamia bultzatzen duen kidea izan ohi da, askotan amaginarreba, onuradun bakar. Ramatulayek badaki ez direla gizonak bakarrik oztopo-jartzaile, emakume batzuek —bereziki edadetuek—, tradizioei eutsiko dietela indarrez. Hainbat emakumeren joerak zerrendatzen ditu, biktimismoan

erori gabe. Eta, hausnarketa egin ondoren, ohartuko da zailtasun larriak daudela giza harreman orekatuak izateko tradizio patriarkalak oinarri dituen jendarte batean. Horren ondorioz, senar-emazteen artean egon behar duen orekaren eta harmoniaren garrantzia defendatuko du: «Jabetuta nagon beharrezkoa eta ezinbestekoa dela gizonaren eta emakumearen arteko osagarriritasuna. Maitasunak, bi izaki horien arteko lotura naturalak baziraun, bai edukian bai espresioan oso akastun azaltzen bada ere» (147. or). Eta poligamiaren eta senitarteko nagusien gehiegizko presentziaren eta garrantziaren aurka agertuko da.

Aissatouren zein Ramatulayeren bizitzak erabat zailduko dira poligamiaren ondorioz. Aissatou liburuetan babestuko da, eta Mariama Bâk omenaldi hunkitua egingo die hainbestetan emakumeen lagun eta akuilu izan diren liburuei:

Liburuen ahalmena giza inteligentzia azkarraren asmen liluragarria dun. Hotsetan bildutako zeinu askotarikoak; hitza moldeatzen duten hots ezberdinak. Ideia, pentsamendua, historia, zientzia, bizia sortzen duten hitzen antolamendua. Harreman eta kultura tresna bakarra, hartzeko eta emateko bitarteko ezin hobea. Liburuek lotzen dituzten belaunaldiak aurrerapen iraunkor berberera. Haiek altxarazi hinduten. Haiek eman zinatzen gizarteak ukatu zinana (59. or).

Aissatouk liburuetan topatzen du lasaibidea; Ramatulayek, aldiz, zineman, irratian, seme-alabekiko maitasunean eta adiskidetasunean aurkituko du. Babesleku horiek *Zergatik panpox* eleberriaren protagonista ekarri digute gogora. Eleberri labur bi horiek 1979an argitaratu ziren. Eleberrien protagonistek senarren abandonua

pairatu dute, seme-alabekiko maitasunean babesten dira, eta, gertatuko ulertu nahian, gogoeta egiten dute, sakon, zauria kontatzeko ariketa mingarrian. Milaka kilometro idazle bien artean, baina haien lan literarioek helburu bera zuten. Inmaculada Diazen hitzetan:

(...) kultura orotako emakumeen literaturan agertzen da beraien burua kontatzeko eta izendatzeko beharra (Diaz 2005: 14).

(...) balizko elkarrizketa baten bilaketa larriminezkoak idazketa askatzailea dakar, bizipenak partekatzeko eta izendatzeko desira zilegi gisa, gizonaren uztarritik askatu eta bere emakume-patuaren eta Historiaren jabe izateko nahi gisa (Diaz 2005: 29).

Elkarren arteko loturak gehiagotan ere antzeman ditugu. Ramatulayek etxe barruan gordetzen diren lanbide ezkutuen zerrenda egiten du, eta antzeko zerrenda bat agertzen da *Zergatik panpoxeko* protagonistaren barne-solasaldian (Muñoz 2013: 62; Urretabizkaia 1979: 9-19). Bestalde, hamazazpigarren kapituluaren bukaeran, Ramatulayen hitzetan «nire jokabidearen ahuldadeak aztertzen ari naun» (94. or). Arantxa Urretabizkaiaren eleberriko protagonistak eginiko gogoeta-ariketa bera dugu: «Txemak alde eginez gero sentitzen dudana analizatzen eman ditudan ordu pilak ez du ondorio ederrik ekarri» (Urretabizkaia 1979: 24-25). Bi eleberrietako protagonistek beren buruari egiten dizkieten galderak antzekoak dira, eta ondorio antzekoa dute: emakume izateak ekarri die egoera hori. Ez da egoera pertsonal hutsa, soziala baizik, jendarte bietan eraikitako genero-rolen banaketaren eta antolaketaren ondorio. Gizonak «garai-le kastako kideak» (Urretabizkaia 1979: 11) dira herri eta

kultura bietan; emakumeak, galtzaileak: «ez dago justiazirik idatzi eta aipatutako lege guztiak bete dituen emakume batentzat» (Urretabizkaia 1979: 55; Muñoz 2013: 64). Era berean, amatasunari buruzko gogoetak harilkatzen dira bi literatura-lanetan. Hona hemen adibide bi; lehena, Mariama Bâren eleberrikoa; bigarrena, Arantxa Urretabizkaiaren eleberrikoa:

Ai, zein garesti ordainarazten duten mutikook mundura ekarri izanaren poza (...) ama gaitun azaldu ezin dena ulertzeko. Ama, ilunpeak argitzeko. Ama gaitun txitak ateratzeko, tximistak gaua marraz zirriborratzen duenean, trumoiak lurra urratzen duenean, lokatzak bidea labain bihurtzen duenean. Ama gaitun, ez hasiera ez azken, maitatzeko (131. or).

Ama izateko disziplina gogorra izan da neretzat. Axo-lagabekeria guztiak Antxonon irribarre baten truke. Disziplina gogor bat dohain miresgarri batzuk lortuko baditut, apaltasuna, xamartasuna eta dohain hauek lortzen ez badituzu, jarrai, ez etsi, bestela ez duzu bizitzaren poza dastatzerik izango (Urretabizkaia 1979: 9-19).

Eleberri bakoitza aitzindaria izan zen bere kulturen eta literaturan, amatasunaren gaia era moderno eta feminista batean jorratu zuelako. Bietan agertuko dira amatasunaren alde ilun eta ezkutuak emakumeen ikuspuntutik kontatuta<sup>4</sup>.

Halere, bi eleberrien artean badago ezberdintasun bat baino gehiago. Protagonista bien adinean, adibide

4 Informazio gehiago Afrikako literaturari buruz: Perez, Bibian (2012). *Lo lejano y lo bello. Feminismos y maternidades africanas a través de su literatura*. Fundamentos, Madril. Euskal literaturari dagokionez: Lasarte, Gema (2013). «Arantxa Urretabizkaiaren amatasuna eta emakumetasuna».

baterako, alde handia dago. Ramatulayeren bizi-esperientzia handiagoa eta luzeagoa da, eta hamabi seme-alaba ditu, belaunaldi berri bat. Belaunaldi berri batek bizimodu berri bat dakar: sexua, erlijioa, harremanak... Azken finean, bizitza eta mundua etengabe mugitzen eta aldatzen ari direla gogoraraziko diote gazteek, bizitza aurrera doala beti. Ziurtasun horrek indarra eta baikortasuna emango dio Ramatulayeri.

*Zergatik panpoxeko* protagonistaren egoera, aldiz, beste bat da: amatasuna bakardadean bizi du, ez du inolako laguntzarik, semearen zaintzaren urte neketsuetan dago, eta, ondorioz, eguneroko lanak zamatzen du. Gainera, ez du ez beste erreferentziarik inguru hurbilean, ez baikortasuna pizteko alternatibarik... Oso nekatuta, minduta, galduta dago. Eta bada, gainera, funtsezko beste ezberdintasun bat: *Zergatik panpox* eleberriaren protagonista isolaturik dago; liburu osoan zehar ez da agertzen amarik, ahizparik, lagunik... Eta, semeari edo joan den senarrari hitz egiten badie ere, bere buruari hitz egiten dio: gogoeta-jarioa da nagusiki (Muñoz 2013: 61). Arantxa Urretabizkaiaren narrazioak tonu goibela du. *Hain gutun luzeak*, aldiz, bi lagun minen arteko solasaldia irudikatzen du, aipatu bezala.

*Zergatik panpox*en irakurtzen genuen legez, naturatik hartzen dituen irudietan imajinatzen du bere burua Ramatulayek: «Abisu ematen dinat, badaezpada: ez zionat uko egiten nire bizitza berregiteari. Denen gaintetik —etsipen eta umiliatze— itxaropendun naun. Landare berdea humus zikin eta okaztagarritik jaiotzen dun, eta nigan kimu berriak ageri direla nabari dinat» (149. or). Baina, Urretabizkaiaren eleberrian, bukaerako hitzak ilunak dira, itxaropenik gabekoak: «Nola ailegatuko naiz, panpox, beste negu hotz baten bukaeraraino» (Urretabizkaia 1979: 58). Bestelakoak dira



Ramatulayerenak: «*Zorion* hitzak zerbait estaltzen din, ezta? Haren bila aterako naun. Zoritxarra nirea, hain gutun luzea idatzi beharrean gertatzen banaiz...» (149. or). Aspaldiko lagunarekin elkartuko da biharamunean.

Bazegoen Mariama Bâ idazle senegaldarren *Hain gutun luzea* euskaratzeko hamaika arrazoi. Haien artean, afrikar emakumeen literaturaren adierazgarritasuna, Inmaculada Diazek hain ondo adierazten duen moduan:

Fikziozko autobiografia, semiautobiografia, bizitza-kontakizun eta gutun-kontakizunen bitartez, emakume afrikarrek idatzitako eleberriek hastapen- eta emantzipazio-kontakizunak dakartzate, eraikitako errepresentazioa eta baloreak gainditzea funtsezko helburu (...) emakumeen fikziozko autobiografiak berriro zehazten dituzte estrategia politiko, kultural eta intelektual posibleak, emakumeen mesedetan (...), tradizioaren biolentzia sinbolikoa gainditu nahi dute, (...) etorkizunerako estrategia emankorrak aurkezten dituzte, botere-harremanei gain egin eta emakumearen parte-hartzea ezartzeko, historiako subjektu erantzule bezala, gaur eta etorkizunean. (...) *Mundukotasunean* esku hartzeko modu bat, elkarrizketa zabal hori, Norberaren eta Besteraren arteko enkontruan, hierarkiarik eta generorik gabeko mundu horretan, kulturen mundu bat, den-denek konpartitutako gizaterian (Diaz 2002: 33-34)

Mariama Bâren *Hain gutun luzea* eleberria euskaratzeak Afrikako emakume idazle gehiago euskaratzeko ohitura ekartzea espero eta nahi dugu. Hango emakume idazleek, jakina, idazteari ekin diote. Adibidez, hona hemen Senegalgo beste idazle esanguratsu bi: Ken Bugul eta Fatou Diome. Batak zein bestek Mariama Bâk

jorratutako gaiak atzera hartu, zabaldu, sakondu eta zehaztu dituzte.

**Ken Bugul (1948):** 80ko hamarkadan hasi zen argitaratzen, eta XX. mendeko bigarren idazle belaunaldian kokatu ohi da. Eragin eta ospe handiko egilea da. Ken Bugulek zortzi liburu argitaratu ditu —gehientsuenak molde semi-autobiografikoan—, eta hainbat hizkuntzatarata itzuli dira; besteak beste, gaztelaniara<sup>5</sup>.

Egile honen literaturgintzan, Afrikako emakumeen identitatea eraikitzeke bidean Afrikan zein Europan topatu ohi diren askotariko oztopo eta zailtasunak irudikatzen dira. Afrikar askok eta askok bezalaxe, Ken Bugulek Europako irudi liluragarria eta idealizatua jaso zuen; baina migrazioan bizi izandakoa oso gordina eta traumatikoa izan zen. Afrikara itzultzean, idazle honek Afrikako kontinenteko zauri sakonetara zuzendu du begirada: kolonizazioaren eragin suntsitzaileak, ustelkeria, indarkeria, gerrak, migrazio legalaren nahiz ilegalaren ondorio lazarriak... Eta, Mariama Bâren lanean agertzen zen antzera, emakumeen esperientziak eta patuak era zuzen eta kritiko batean islatu ditu: gizonekiko harreman zail eta korapilatsuak, amatasuna, poligamia, mendebaldeko feminismoa... Europako irakurleei batzuetan ulergaitzak gertatzen zaizkien erabakiak kontatzen zaizkigu istorio gordin horietan. Edonola ere, lan horiek guztiak erakargarriak eta bitxiak dira, eta griotek mendeetan zehar gordetako ahozko moldeak eta lirikotasuna baliatzen ditu. Ken Bugulen eleberriek Afrikako emakume idazleek

5 Hona hemen Ken Bugulek argitaraturiko liburuak: *Le Baobab Fou* (1982) [*El baobab que enloqueció*, Ed. Zanzibar, 2001]; *Cendres et braises* (1994); *Riwan ou le Chemin de Sable* (1999) [*Riwan o el camino de Arena*, Ed. Zanzibar, 2005]; *La Folie et la mort* (2000) [*La locura y la muerte*, El Cobre, 2003]; *De l'autre côté du regard* (2002); *Rue Félix-Faure* (2005); *La pièce d'or* (2006); *Mes hommes à moi* (2008); *Cacophonie* (2014).

eraiki duten literatura-esparru ugaria hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen digute.

**Fatou Diome (1968):** Europan bizi eta idazten du egile honek. XXI. mendearen hasieran ekin zion argitaratzeari, eta, hortaz, mende honetako lehen belaunaldiko kide dugu. Kontakizun laburrak argitaratuz abiatu zuen bere literatura-ibilbidea, baina Europaranzko migrazioari buruzko eleberriek ekarri diote ospea (*Le Ventre de l'Atlantique*, 2003, eta *Celles qui attendent*, 2010)<sup>6</sup>. Afrikako migrazioa gai berria ez den arren, Diomek genero-ñabarduretan jarri du arreta. Europara doazen emakumeek uko egin behar diote identitatearen ezaugarri askori, Europa ez baitago ohituta Afrikako emakume etorkinak hartzera, eta arrazakeria da nagusi. Migrazioa arrakastatsua izanez gero, aurrera egingo dute, eta Afrikan lortu ezin dutena —salbuespenak salbuespen— lortuko dute: hezkuntza, lanpostua edo eskubideak. Baina Afrikara itzultzerakoan galduko dute dena. Bestalde, Fatou Diomek eleberrietan “maistraki” kontatzen duen eran, emakumeen migrazioak itzulera zaila du. Afrikar jendarteak errezeloz begiratu ohi ditu, gutxietsi egin ohi ditu hango patriarkaturen menera bizi ez direlako. Itzulerako bidaia horretan, ordea, atsegin handiz hartu ohi dira gizonezkoak; badago horrelako eredurik eta ohiturarik, baina itzuli den emakumearen eredurik ez da kasik garatu.

Gainera, Afrikan geratzekotan, emakume horiek zain egon behar izaten dute, ziur asko haien senarrak

---

6 Hona hemen Fatou Diomeren liburuak: *La Préférence nationale* (2001); *Les Loups de l'Atlantique* (2003); *Le Ventre de l'Atlantique* (2003) [*En un lugar del Atlántico*, Lumen, 2004]; *Ketala* (2006); *Inassouvies, nos vies* (2008); *Celles qui attendent* (2010) [*Las que aguardan*, El Cobre, 2011]; *Mauve* [Fatou Diome - Titouan Lamazou, 2010]; *Impossible de grandir* (2013).

kanpoan egongo direlako urte luzez. Gaztetasuna senar horien zain emango dute, eta, jakina, gizon gazte horiek bidean hiltzen dira sarri, edo galdu egiten dira. Bakar-dadean egin beharko diote aurre amatasunari; familia-ko zailtasunak gainditzeko askotariko trikimailuak egin beharko dituzte; konpainia, maitasun eta sexu gabetasunak baldintzatuko ditu; besteen zerbitzura biziko dira.

Halere, Mariama Bâk agerian utzi zuenez, Afrikako emakumeek bide berriak asmatu izan dituzte: publikoa eta pribatua, tradizioaren eta modernitatearen arteko gatazka elkarriketa bilakatzeko ahalmena izan dute, jendarte eta emakume eredu berriak sortzeko gai dira. Hain zuzen ere, literatura dugu horren adibide bikaina. Ahots hauek entzutea gomendatzen dizuegu, Afrikako emakume idazleen kateari segitu eta sormenerako gaitasun hori lehen eskutik gozatzeko.

Gaur-gaurkoz... Mariama, jaso ditinagu hire hitzak.

## Bibliografía:

- CAMPOS, Mónica (2001). *De mujer a mujer. Las cartas de las protagonistas de la historia*. Bartzelona: Oceano.
- Z.Z.E.E. (2001). *Diccionario de literatura del África subsaharina*. Bartzelona: Virus.
- DIAZ NARBONA, Inmaculada (arg.) (2002). *Las africanas cuentan*. Cadiz: Universidad de Cádiz.
- (2005). *Otras mujeres, otras literatura*. Madril: Zanzíbar.
- (2007). *Literatura del África subsahariana*. Cadiz: Universidad de Cadiz.
- GARATE, Gotzon (1998). *27.173 atsotitzak. Refranes. Proverbs*. Bilbo: BBK.
- LASARTE, Gema (2013). "Arantxa Urretabizkaiaren amatasuna eta emakumetasuna" in *05 Forum Hitzaldiak*. Bilbo: Forum Liburuak, 39-54.
- MUÑOZ, Josune (2013). "Nahiago dut nire zuloa" in *05 Forum Hitzaldiak*. Bilbo: Forum Liburuak, 59-76.
- PEREYRA, V, Mora, L.M. (1998). *Literaturas africanas*. Madril: Mundo negro.
- (2003). *Mas allá del arco Iris. Textos femeninos y feministas al sur del Sahara*. Mexiko: Tanya.
- PEREZ, Bibian (2012). *Lo lejano y lo bello. Feminismos y maternidades africanas a través de su literatura*. Madril: Fundamentos.
- TORRAS, Meri (2001). *Tomando cartas en el asunto. Las amistades peligrosas de las mujeres con el género epistolar*. Zaragoza: Pressas Universitarias de Zaragoza.
- SCHIPPER, Mineke (2004). *No te cases con una mujer de pies grandes*. Bartzelona: Oceano.
- URRETABIZKAIA, Arantxa (1979). *Zergatik panpox*. Donostia: Hordago.



# Biografiak

## Egilea

### Mariama Bâ

Klase altuko familia musulman batean jaio zen Dakarran, 1929an. Haurra zela galdu zuen ama eta aiton-amonak hazi zuten. Eskola frantsesean ikasi ondoren, maistra izateko diploma eskuratu zuen 1947an eta irakaskuntzan jardun zuen dozena bat urtez.

Emakumeen eskubideen aldeko borrokan aitzindari izan zen eta afrikar emakumeek jasotako kultur ondarearen zein tradizioen berrirakurketa bere literatur lanen oinarrietako bat da. 1979an idatzi zuen lehen eleberria, *Hain gutun luzea*. Nazioarteko sona eman zion eta hainbat hizkuntzatarara itzuli zen nobela. *Un chant écarlate* bigarren eleberria argitaratu aurretik hil zen, 1981ean.

# Itzultzailea

## Iokin Otaegi

Izazpi azpiko Matxinbentako Largarate baserrian jaio nintzen, 1930. urtean. Pedagogian lizentziaduna, heziketari eman diot bizitza, bizi izan dudan etapa bakoitzean, gozo eta min, esperientzia ederra bilduz. Zarautzen hasi nuen maisutza, Francoren garaian zigortua izan zen Olabeagaren manupean. Handik Bilborako bidea hartu nuen, Poza Lizenziatuan zegoen ikastetxe handira. Bilbon Euskal Herriaren maitasuna eta euskara barruratzeko egoera egokia aurkitu nuen, 1961a arte, hamar urte. Harrezkero, hainbat lekutan aritu naiz irakasle (La Salle, Zaragoza, Legazpi...).

Udako esperientzia baten ondoren, 1988. urte hasieran Rwandako bidea hartu nuen, Gisenyi eta Goma artean dagoen Arteskola bateko zuzendari izateko. Gure klasi-koak dioena jakin gabe han zer gertatuko zen, aitzitik, Rwandara joan gabe geratuko nintzaden. 1994 apirilean, gerra gogortu zenean, ebakuatu ninduten, 1995 bukaeran Rwandara itzuliz. Ai, Afrikaren lilura! Eta 2002. urteko irailean, ibilera horiek denak bukatutzat eman nituen. Ibilera horiek dira *Rwanda bihotz-minez* (Hiria, 2008) liburuaren abiapuntu.

Iruñeko Errotxapean urtebete egin ondoren, Bilboko San Frantzisko kalean bizi naiz hiru lagunekin, betiere etorkinekin ari direnei laguntza emanez. Bestalde, badut LITA, Lasalletarren Irakurle Taldea, noizean behin nobela eder baten inguruan elkartzeko, laguneri giro nasaiari.



# Hitzostea

Josune Muñoz

Bilbon jaio nintzen, 1967. urtean. Euskal filologoa naiz, Genero ikerketan aditua. 2004an SKOLASTIKA *Literatur zerbitzuak* sortu nuen Bilbon, emakumeen literaturan espezializaturiko kulturgunea. SKOLASTIKAN hainbat tailer eta ekimen kultural eskaintzen dira, betiere emakumeen sorkuntza ardatz hartuta. Gainera, badu liburutegi espezializatua ere, 5.000 aletik gorakoa.

Hiru ikerlerro hauek jorratu ditut: mendebaldeko emakumeen literaturaren historia (ahozko literaturan arreta berezia jarriz); Afrika, Asia eta Ekialde hurbileko emakumeen literatura; eta euskal emakumeen literatura. Emakumeen hitzen inguruan aritzeaz gain, emakumeen begiradak eta sortzen dituzten irudiak izan ditut ikergai. Eta ondorioz, emakumeen komikiak eta erotikak landu ditut azken urteotan.

Bestalde, SAREINAK taldeko kidea naiz; egitasmo horrek literatura, feminismoa eta euskara uztartzen ditu.





# argitaletxea **edo!**

**Euskara.** EDO!-k euskarazko lanak argitaratuko ditu.

**Autofinantzatua.** EDO! diru irabazi asmorik gabeko egitasmoa da. Litekeena da lan batzuk ordaindu behar izatea, baina ahalegina egingo du bazkideen borondatezko lanean oinarritzeko.

**Borondatezko lana.** EDO! Borondatezko lanean oinarritzen da; bazkideak eta lankideak dira proiektua bultzatzen dutenak, eta harpidedunak dira proiektuaren oinarria.

**Adostasuna.** EDO! adostasunean oinarritzen da. Adostasuna da talde lanaren oinarria, eta prozesuek eskatzen duten erritmoen arabera lan egin nahi du.

**Edukiak.** EDO! liburua eta literatura merkantziaren logikatik ateratzen saiatuko da. Edukiei jarriko die arreta, salmentari beharrear.

**Gizarte eragile.** EDO!-k zerbitzu publiko gisa ulertzen du bere lana. Kultur eragile soilik ez, gizarte eragile ere izango da.

**Pentsamendu kritikoa.** EDO! pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa sustatzeko tresna izango da.

**Independentea.** EDO! independentea da alderdi politiko, gizarte mugimendu, erakunde publiko eta kultur industrietatik. Diru laguntzak onartuko ditu, laguntza gisa, proiektuaren printzipioak eta lanak baldintzatzen ez dituzten neurrian.

**Kalitatea eta seriotasuna.** EDO!-k egiazko edizio lana egingo du argitaratutako lanekin eta publikazio berme guztiak emango dizkio egileari.





Afrikar literatura garaikidearen ikurretako bat da *Hain gutun luzea*. Nobela hau irakurtzeak, Afrikako tradizioa eta modernitatea, arlo publikoa eta pribatua hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Ramatulayeren begiradari eta ahotsari esker, irakurleak poligamiaren esperientzia hurbiletik biziko du, baita Senegalgo errealitatearen beste ertz zenbait ere: kolonizazioa eta deskolonizazioa, familia eta emakumeen eskubideak, hezkuntza eta eguneroko bizimodua... Nitik gurantz edo, alderantziz, orokorretik partikularrerantz abiatuta, Ramatulayeren ahotsak garai hartako Senegalgo emakumeen istorioa eta historia gorpuzten ditu.